

04

Artea: inklusio eta eraldaketa sozialerako bidea

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen
Behatokiko Taldea

bizkaiko hirugarren
sektorearen behatokia

2012ko iraila



3s_berrikuntza

Artea: inklusio eta eraldaketa sozialerako bidea

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen
Behatokiko Taldea



Copyright Bilbao Ría 2000

2012ko iraila

Argitalpen honetako argazkiak Bilbao Ría 2000 eta Verdini Dantza Taldeak utzi dizkigute.

“La mano del corazón” marrazkia eta testua Zubietek utzi dizkigu. Marrazkiaren egilea: Blaise Batje.

Graphic recorder: Pernan Goñi.

Dokumentuaren egileak, parte hartu duten pertsonen ekarpenekin: Raúl Castillo, Romina Sostegno eta Rafael López-Arostegi.

Diseinu grafikoa: ST3 Elkartea.

Itzulpena: Koldo Morales.

Inprimategia: Estudios Gráficos Zure

ISBN: 978-84-940338-0-3

Lege-gordailua: BI-1224/2012

Behatokiaren webgunean – www.3sbizkaia.net– dokumentu hau eta Behatokiaren gainerako argitalpenak ikus daitezke eta dohainik deskargatu.

Horien bitartez, Hirugarren Sektorea hobetzen lagundu nahi dugu; horregatik, ahalik eta gehien hedatzea eskertzen dugu eta beraren banaketa baimentzen dugu, betiere dirua irabazteko asmorik gabe egiten bada eta egileak zein diren adierazten bada.

Argazkiak beren erabilerarako soilik utzi dira, irabazi-asmorik gabe, argitalpen honen ondorioetarako.

Oharra: “Sorkuntza Lantegia” gaztelaniaz burutu zen. Hori dela eta, nahiz eta honako hau euskarazko bertsioa izan, saioetan ateratako argazkiak erabiltzen baditugu, eta testurik badute, gaztelaniaz agertuko dira argitalpen honetan.

Aurkibidea

Aurkezpena	5
1. Gaiaren aukeraketa	6
2. Helburuak eta metodologia	8
3. Parte-hartzaileak eta itxaropenak	11
4. Esku-hartzearen esparrua definitzen	15
4.1. Kontzeptuak argitzea: inklusiorako artea, eta proiektuen orientazio eraldatzailea.....	15
4.2. Esperientzien identifikazioa, eta hortik abiatutako hausnarketa.....	21
4.3. Esku-hartzearen eremu nagusien identifikazio eta definizioa.....	31
5. Testuingurua aztertuz.....	38
5.1. Mapen bidezko irudikapena	38
5.2. Oztopo eta aukeren identifikazioa	46
6. Oraingo errealitatea eraldatuz.....	55
6.1. Esku-hartzearen gako batzuk	55
6.2. Proiekturako ideiak	62
7. Bibliografia eta erreferentzia bibliografikoa	82



Verdini Dantza Taldeak utzitako irudia



Blaise Batjek Zubietxe Elkarteari utzitako irudia, irabazi-asmorik gabeko jardueren eremuan erabiltzeko, eta elkarteak argitalpen honetarako utzita.

Marrazki honi “La Mano del Corazón” deitu zion bere egileak.

Izenburua azaltzerakoan, egileak keinuz irudikatu behar izaten zuen hizkuntza-desberdintasunak hitzetatik kanpo uzten zuena.

Keinua zen bere eskuineko eskua bularraren ezkerraldera eramatea, haxe esaten zuen bitartean: bihotzaren eskua.

Bazirudien berari buruz hitz egiten zuela, edo bestearengan miresten zuenari buruz (hau da: bere ezaugarri bat, bestearengan ere antzematen zuena).

Edonola ere, jarrera bat da, norbait adjektibatzen duena eta norbaiten ekintzak adjektibatzen dituena.

Tolesgabetasuna, zintzotasuna, prestutasuna, samurtasuna, tolerantzia, onginahia, onberatasuna, amultsutasuna, sentikortasuna, fedea, zuzentasuna...

BLAISE BATJE
Zubietxe Elkartea
Ulises 2.0 liburutik

[http://www.zubietxe.org/%5Cgestion%5Cgestion%5Carchivos%5CPUBLICACIONES%5C29_ULISES%202.0%20%20%20\(4%20Mb\)_C.pdf](http://www.zubietxe.org/%5Cgestion%5Cgestion%5Carchivos%5CPUBLICACIONES%5C29_ULISES%202.0%20%20%20(4%20Mb)_C.pdf)

Aurkezpena

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia informazio eta dokumentazio, ikerketa aplikatu eta sustapen zentro bat da, Hirugarren Sektorean espezializatua, irabazi-asmorik gabekoa eta independentea; beraren asmoa da Hirugarren Sektorea indartzea eta Bizkaiko Hirugarren Sektoreko erakundeen esku-hartze eta kudeaketaren berrikuntza eta hobekuntza bultzatzea.

“3S Berrikuntza” bildumak ikuspegi, ikusmolde, proposamen eta tresnak eskaini nahi dizkie Hirugarren Sektoreko erakunde eta sareei -eta interesatuta dauden gainerako eragileei-, bai beren esku-hartzea hobetzeko eta bai proiektu berritzaileak abiatzeko, sortu berriak diren edo atenditu gabe dauden behar sozialei erantzutea xedetzat hartuta.

Esku artean duzun lana laugarren “Sorkuntza Lantegiaren “ emaitza da. “Sorkuntza Lantegia” hausnarketarako esparru bat da, arazo sozial esanguratsuei irtenbide berritzaileak eskaintzeko asmoz sortua; beste alderdi batzuen artean, askotariko eragileen arteko elkarreagina sustatu nahi du, ikuspegi alternatiboak eta esku-hartze esparru berritzaileak sortzeko xedez.

Hala, bere lehenengo edizioan, lantegiak familiarik gabeko etorkin adingabeen egoera jorratu zuen. Geroago, erantzunak bilatu genituen nerabezaroan gertatzen diren jokabide bortitzentzat. Hirugarren edizioaren ardatza, berriz, bazterketa egoera edo prozesuan dauden edo buru-gaixotasun larria duten pertsonengana zuzendutako esku-hartzea izan zen.

Eta laugarren edizio honetan, atearen eremura jo dugu, inklusio eta eraldaketa sozialeko prozesuak sustatzeko eskaintzen dituen aukerak esploratzeko. Horretarako, pertsonen eta erakundeen arteko elkarrizketa hartu dugu abiapuntutzat, alegia, bai alor artistikotik eta bai esku-hartze sozialaren alorretik horrelako ekimenen sustapenean esperientzia duten edo horrelakoak sustatzeko interesa duten pertsona eta erakundeen arteko elkarrizketa.

Lantegian parte hartzea, gainera, lagungarria izan ohi da parte-hartzaileek elkar ezagutu dezaten edo elkarren arteko ezagutza sakondu dezaten, irizpide eta jardunbide egokiak trukatu ditzaten eta geroago beren lotura indartu dezaten, ekimen bateratuak abiatuz. Horrek, batzuetan, aurrerapenak ekartzen ditu abiapuntuko egoera estankoago baten aldean.

Espero dugu argitalpen hau baliagarria izatea lantegiaren baitan egindako hausnarketa eta proposamenak helarazteko; espero dugu, halaber, erabilgarria izatea pertsonen inklusioa eta gizartearen eraldaketa sustatzeko ekimenak alor artistikotik abiatzeko interesa duten pertsonentzat, proiektu eta esperientzia berriak sortuz.

1. Gaiaren aukeraketa

Lehenik eta behin, gure begirada artearen mundura zuzendu nahi izan dugu, artea adierazpen-espaziotzat hartuz, inklusiorako ibilbideak eta eraldaketa sozialerako bideak aktibatzen tresnatuz hartuz, esku hartzeko eta eragina izateko aukera berriak (sentsibilizazioa eta salaketa, alternatibak proposatzea, eskubideak sustatzea eta defendatzea...) eskatzen dituen krisi-testuinguru honetan.

Adierazpena pertsonen dimentsio bat eta funtsezko eskubide bat da, eta adierazpen artistikoa bide pribilegiatua da pertsona guztiak dimentsio hori garatu dezaten eta eskubide hori banaka eta taldeka erabil dezaten; hori bereziki garrantzitsua da bazterketa eta urrakortasun egoerak pairatzen dituzten pertsonentzat.

Artea adierazpen eta garapen pertsonalerako espazio bat da, topaketarako, parte-hartze sozialerako, lanerako espazio bat da... Espazio horrek askotariko oztopoak eta zailtasunak (fisikoak, harremanen alorrekoak, komunikatiboak...) gainditzea ahalbidetzen die pertsonari, eta bidea ematen die egoera bidegabeak, alternatibak eta gisa berekoak sozialki komunikatzeko, modu eraginkorrean.

Bigarrenik, gure gizartearen bilakaerak ekarritako konplexutasunen eta errealitate interdependenteen magma honetan, uste dugu -autore batzuek eskatzen duten bezala- hibridazioan eta nahasketan ere badela eraldaketa sozialaren "lanerako" eta berrikuntzarako potentzial bat -lan eta berrikuntza horiek barra-barra agertzen dira diskurtsoetan, eta presentzia handia dute, aspalditik, alor sozial eta kulturalaren erakunde askoren ekimenetan-.

Alde horretatik, inklusioa eta eraldaketa soziala sustatzera zuzendutako ekimen berritzaile ugari identifikatu ahal izan ditugu, bai alor sozialean eta bai kulturean. Hala eta guztiz ere, konturatu gara beharrezkoa dela bultzatzea bi alor horietan lan egiten duten pertsonen eta erakundearen arteko ezagutza eta lankidetzak; izan ere, neurri handi batean, ez dute elkar ezagutzen eta ez dira elkarerraginean aritzen.

Elkargune honetara erakarri gaituen *hirugarren arrazoiak* esku-hartze sozialaren munduko ahots kritiko batzuek plazaratutako behar batekin du zerikusia, alegia, beharrezkoa dela pertsona eta kolektiboaren adierazpena kontuan hartzea, ongizate-sistemen tresna arrazionaleratik haratago doazen ekintza eta esku-hartze elementu bezala.

Hala, gutariko askoren ikuspuntutik, inklusioak ez du zerikusirik bazterketa-egoera objektiboaren aldaketarekin soilik (enplegua, etxebizitza, osasuna, hezkuntza, informazioa, kultura... eskuratzeko bidea izatea), baizik eta, horrez gain, subjektuaren adierazpen propioarentzako aukerak sortzarekin ere, horrek bidea ematen baitio osorik garatzeko eta gizartearen, kulturen eta gainerako eremuetan aktiboki parte hartzeko.

Alde horretatik, esku artean dugun edukiari dagokionez, asmo bakarra ez da kulturara iristeko bideak eskaintzea bazterketa, arrisku edo urrakortasun egoeran dauden pertsonari, kontsumo kulturalaren ikuspuntutik, baizik eta, batez ere, artearen bidez beren burua adierazteko aukera eskaintzea, pertsona bezala hazten jarraitu ahal izan dezaten, beren egoera eraldatzeko eta gizartearen eragina izanez.

Bukatzeko, aipatu dugun bezala, gogoeta hau ez da hutsartera egiten dugun salto bat; aitzitik, proposamen eta ekimenez osatutako ibilbide azpimarragarri bati erantzuten dio, bai gure ingurune hurbilean eta bai eskala globalean.

Bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonekin egindako arte tailerrak (pintura, dantza, argazkigintza...), antzerki soziala, arte-terapia; adierazpena artearen bidez erraztera orientatutako proiektuak, desgaitasunak dituzten pertsonengana zuzenduta; osoko instituzioetan (espetxeak, ospitale psikiatrikoak...) egindako proiektu artistikoak; trebakuntza profesionalerako proiektuak, jarduera artistikoen alorrean; eta beste hainbat.

Proiektu eta ekimen ugari, hainbestearino non lantegiaren helburu nagusietako bat lan esparru hori definitzen saiatzea izan baita, balizko esku-hartze eremuak zehaztuz eta -era horretan- beraren mugak irudikatuz, existitzen diren esperientzia ugarien identifikazioa eta azterketa abiapuntutzat hartuta.

Hala, abian jarritako ekimenak eta -batez ere- oraindik ere sortzeko daudenak dira hausnarketa honen helburu nagusia, hau da, adierazpen artistikoak inklusio eta eraldaketa sozialeko prozesuen garapenari eskaintzen dizkion aukeren inguruko hausnarketa honen helburu nagusia; horren haritik, azkeneko helburua da esku hartzeko aukera berriak irekitzea eta, ahal den neurrian, alor sozial eta kulturean diharduten elkarteen arteko lankidetzaz indartzea.

I. eranskinean, identifikatutako ekimen ugari aurkezten dira, eta II. eranskinean proiektu berriak abiatzeko lagungarriak izan daitezkeen hainbat baliabide; horietako batzuk alor artistiko eta sozialean diharduten erakundeen arteko lankidetzaz ahalbidetzera zuzentzen dira bereziki.

Eranskinak ez dira paperezko edizio honetan sartu, neurri handikoak direlako eta aldizka eguneratu behar direlako. Nahi izanez gero, Behatokiaren webgunean -www.3sbizkaia.org- aurki daitezke eta bertatik dohainik deskargatu.

2. Helburuak eta metodologia

2.1. Helburuak

Lehen aipatu dugun bezala, Sorkuntza Lantegiaren edizio honen helburu nagusia **esku-hartzearen esparru hau garatzea ahalbidetzen duten proiektu berritzaileak identifikatzea** izan da.

Hain zuzen ere, laugarren lantegi honek helburu hauek lortu nahi izan ditu:

- Gizarte inklusioa diziplina artistikoetatik erraztera zuzendutako **esku-hartze esparrua definitzea**, ikuspegi eraldatzaile batez. Eta, horretarako, hiru faseko lan bat gauzatu da:
a) kontzeptu nagusiak argitzea (bazterketa -edo eskusioa- eta inklusioa, urrakortasuna, eraldaketa soziala, diziplina artistikoak); b) esperientzia konkretuak identifikatzea eta aztertzea; c) esperientzia horietatik abiatuta, espazio honetan sartzen diren esku-hartze eremu batzuk ezartzea eta definitzea.
- **Baztertutako pertsona, kolektibo eta komunitateek** “kultura”ra, sorkuntza kulturalera, adierazpenera... iristeko aurkitzen dituzten oztopoak eta/edo zailtasunak ezagutzea, eta baita eskura dituzten aukerak ere ezagutzea. Ezagutzea, halaber, ekimen horiek sustatzerakoan erakundeek aurkitu ohi dituzten aukerak eta oztopoak, eta baita horien garapenerako egon daitezkeen baliabideak ere.
- Esku-hartzearen **gako batzuk identifikatzea**, eta baita abiatu beharreko **proiektu edo ekimen** konkretuak ere.

2.2. Metodologia

Sorkuntza Lantegia gaiaren aukeraketarekin eta beraren hasierako kontzeptualizazioarekin hasten da, eta zenbait fasetan garatzen da argitalpen honetara iritsi arte; kasu guztietan, bi saio presentzial egiten dira parte hartzera gonbidatutako pertsonekin; esan dugun bezala, pertsona horiek askotariko eremuetakoak izaten dira.

Atal honetan, ez dugu prozesu hau guztia xehetasunez jorratu, hori jadanik azaldu baita lehenengo edizioaren argitalpenean. Aitzitik, gure zeregin nagusia izango da 2011ko azaroaren 2an eta abenduaren 1ean egindako bi saio presentzialetan garatutako metodologia deskribatzea.

Erabilitako metodologiaren asmoa da ideia berritzaileen sorrera erraztea. Beraren ezaugarrien artean, aipatzekoa da bertaratutako pertsonen esperientzia eta ezagutzatik abiatzen dela, ikuspegi, ikusmolde, praktika eta gisa berekoen trukea erazten duela..., ekarpenak prozesatzen dituela eta generalizazio baliotsuak ezartzen dituela, praxi berri eta aberatsago bat sortzeko xedez.

Edonola ere, aurretik landutako eduki batzuk eskaintzen dira: a) programa bat, metodologia, helburuak eta saioen edukiak definitzen dituena, parte hartzen duten pertsonak gero aldatu baditzaikete ere; b) esparru teoriko bat, ez oso zabala baina bidea ematen duena gaia kokatzeko eta edukiaren hasierako kontzeptualizazioa egiteko; c) eta beste elementu osagarri batzuk, hala nola, erreferentziako bibliografia bat, edota ekimen edo esperientzien zerrenda bat.

Aztergai dugun kasuan, gainera, esku-hartze eremuen sistematizazio bat egin zen aurretik, identifikatutako ekimenak abiapuntutzat hartuta; halaber, ekimen eta proiektuak garatzera zuzendutako baliabideak identifikatu ziren (laguntza teknikoa, finantziarioa...).

Horrekin guztiarekin, esparru bat eskaini nahi zaio lantegiari, bertan garatutako lanari sostengua emanaz eta lan hori bideratuz, zorroztasuna eta eraginkortasuna irabaziz. Edonola ere, hemen eskaintzen dena taldean balidatzeko eta hobetzeko elementuak izaten dira beti.

Jarraian, saio bakoitzaren edukia aurkeztuko dugu.

Lehenengo saioa 2011ko azaroaren 2an izan zen; saio horretan, lantegia aurkeztu ondoren (helburuak, edukiak eta metodologia), parte hartuko zuten pertsonak eta erakundeak aurkeztu ziren, eta haien itzaropenen berri jaso genuen (2. atala).

Horren ostean, lehenengo gaia planteatu zen: zer-nolako laguntza eman ote dezake arteak inklusio eta eraldaketa sozialeko prozesuak sortzeko?


Galdera horri erantzuteko, lehenik eta behin, parte-hartzaileen iritziz azpimarratzekoak ziren *esperientziak* identifikatu ziren (hori lagungarria izan zen antolatzaileek emandako zerrenda aberasteko); horrekin batera, hasierako hausnarketa eta eztabaida egin ziren.

Esperientziak identifikatu ondoren, esperientzia horiek bultzatzerakoan erakundeek aurkitzen dituzten *oztopo eta aukera* nagusiak aztertu ziren, azterketa hori mapen bidez irudikatuz. *Mapa* horiek aukerak, beharrak eta hartzaileen gaitasunak bereizten dituzte, eta baita eskura dauden baliabideak ere -horiekin kolaboratu ahal baita-.

Bukatzeko, esku-hartze eremuei buruz proposatutako sistematizazioaz hitz egin zen, elkarrizketa moduan, identifikatutako esperientziak eta ekimenak beren eremuetan kokatuz. Edonola ere, sistematizazio hori argitalpenean aurkeztzen da, esku-hartze esparruaren definizioaren zati gisa, testuinguruaren azterketa egin aurretik.

Abenduaren 1ean egindako **bigarren saioan**, lehenengo saioan sortutako edukiak balidatu ziren, bai akta eta bai eduki horietatik abiatuta landutako panel batzuk (oztopoak, aukerak eta gakoak) berraztertuz, eta proposamenak eta esku-hartzerako alternatibak sortzeko prozesu bat gauzatu zen.

Sorkuntza-prozesu honen abiapuntua aurreko saioan egindako azterketa da, hots, proiektuei, aukera eta oztopoei eta esku-hartze eremuei buruz egindako azterketa.



Saio honetan, funtsean, asmoa da esku-hartzeaz hausnartzea eta jarduteko aukera berriak sortzea.

Alde horretatik, esku-hartzean indartu edo xertatu behar diren gakoan inguruan lan egiten da.

Gako horietatik abiatuta, eta definitutako esku-hartze eremuei lotuta, zenbait ideia proposatzen dira proiektuak gauzatzeko.

Azken urrats bezala, taldeak ideia horietako batzuk lehenesten ditu eta horien inguruan lan egiten da, haien deskribapenean ahal den neurrian aurrera eginez.


Bi saio horiek, denbora aldetik berezita egonda baina nahiko hurbilak izanik, bidea ematen dute berezita baina -aldi berean- konektatuta dauden edukiez lan egiteko, hausnarketarako espazio bat ahalbidetuz saioen artean.

Lehenengo saioan, gaiaren kokapena (hizpide dugun esku-hartze eremua) adosten da eta esku-hartzeen testuingurua aztertu; horren ostean, bigarren saioan, esku-hartzearen hobekuntzarako funtsezkoak diren gakoak definitzen dira, eta proiektuak gauzatzeko ideia batzuk identifikatu eta aztertzen dira.

Horrenbestez, lehenengo saioaren abiapuntua taldearen praxia, esperientzia eta ezagutza dira, eta asmoa horren inguruko hausnarketa bat egitea da. Horri begira, hausnarketa hori aberasten saiatzen gara, taldetik kanpoko ekarpen teoriko eta esperientziekin. Bigarren saioan, berriz, praxira itzultzen gara, egindako hausnarketatik abiatuta, praxi hori hobetzeko xedez.

Gainera, lehenengo saioan, ahalegin bereziak egiten dira parte-hartzaileen arteko ezagutza bultzatzeko eta lan-prozesuari buruz dauden itxaropenak adierazten laguntzeko, lantegiaren helburuak eta edukiak berraztertuz.

Bukatzeko, laugarren lantegi honen metodologiaren baitan, taldeko lana jasotzeko eta itzultzeko erregistro berriak bilatzearen bidetik, Pernan Goñi izan genuen gurekin. Berau bideratzaile grafiko bezala aritu zen lehenengo saioan, zenbait eduki jasoz -eduki horiek bakoitza bere atalean aurkezten dira-.



3. Parte-hartzaileak eta itxaropenak

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiegu *“Artea: inklusio eta eraldaketa sozialerako bidea”* izeneko IV. Sorkuntza Lantegian parte hartu duten pertsona guztiei.

Esku artean duzun idazkia beren hausnarketaren emaitza da, eta haiek dira bertan jasotzen diren arrasto, irizpide eta proposamenak landu dituztenak, modu koralean. Haiek dira lan honen benetako egileak.

Gure aldetik, eskerrak eman nahi dizkiegu lantegian parte hartzeagatik, erakutsitako interesagatik, eta sorkuntza kolektiboaren bidean egindako ahaleginengatik. Eta, batez ere, argitalpen honen bitartez, hainbat diziplina artistikoen bidez egiten duten lana aitortu eta balioetsi nahi dugu, bazterketa, arrisku edo urrakortasun egoeran dauden pertsona eta kolektiboekin batera aritzen baitira, eraldaketa soziala bilatuz.



3.1. Parte-hartzaileak

Aurreko edizioetan bezala, jakintzak, ikuspegiak eta esku-hartze eremuak uztartzen saiatu gara, errealitatearen irakurketa zabal eta konpartitu bat egiteko, eta, batez ere, esku-hartze eremu hau bultzatzea ahalbidetzen duten aukerak, irizpideak eta proposamenak identifikatzeko.

Horretarako, beraz, honelako pertsona eta erakundeak izan ditugu gurekin:

- Alor artistikoan lan egiten dutenak.
- Bazterketa, arrisku edo urrakortasun egoeran dauden kolektiboekin lan egiten dutenak.
- Esparru honetan esku hartzeko esperientzia eta/edo interesa dutenak.

Gainera, saiatu gara gizarte ekintzaren eta alor artistiko edo kulturalaren ordezkariak orekatua izaten; horrekin batera, kasu askotan elkar ezagutzen ez duten pertsona eta erakundeen arteko topaketa errazten saiatu gara, praxira eramandako dinamiken bidez.

Hala, lantegian parte hartu duten erakunde eta pertsonak hauexek izan dira.³

GIZARTE EKINTZAREN ERAKUNDEAK		
1	ZUBIETXE ELKARTEA	Helena González
2	Kartzela Pastoraltzaren BIDESARI ELKARTEA –TOPALEKU	Gaizko Cirión
	Kartzela Pastoraltzaren BIDESARI ELKARTEA - KARTZELA	Miguel Yuste
3	FEVAS (Adimen ezintasuna dutenen aldeko elkarten euskal federazioa)	Alfredo Bezos
4	SARTU FEDERAZIOA	Vanesa Salguero y Marta Senz
5	GOIZTIRI	Santos Carretos
6	MUNDUKO EMAKUMEAK	Marta Eugenia Fernández
7	APNABI	Emilio Arizaga y Camilo Sotelo
8	ANESVAD	Carme Romero ¹ y Paula Paunero
9	KALÉ DOR KAYIKÓ KDK BILBAO	Casimiro Amaya y Roberto Gutiérrez
ALOR ARTISTIKOAREN ERAKUNDEAK		
1	HORTZMUGA TEATRO	Izpiñe Soto
2	5+1 ARKITEKTURA TALDEA / HIRIA KOLEKTIBOA	Ohiane Ruiz
3	IDEATOMICS - Saioa Olmo	Saioa Olmo
4	ARTEFACTO (Euskadiko Arteterapeuten Elkarte)	Amaia Atorrasagasti
5	CONEXIONES IMPROBABLES	Arantxa Mendiharat
6	REKALDE ARETOA	Eztizen Esesumaga
7	AMASTE	Idoia Azkorra

¹ Anesvadetik proiektu bat garatzen duen artista.



Pernan Goñik, marraztutako binetek gonbidatutako pertsonaren karikatura eta izena jasotzen dituzte, eta baita haien erakundearen izena ere; kasu askotan, gainera, lantegitik espero dutena ere adierazten da.

3.2. Itxaropenak

Gonbidatutako pertsonak hainbat erakundetakoak ziren, eta neurri handi batean ez zuten elkar ezagutzen (batez ere eremu desberdinetan aritzen direnak: artea eta gizarte ekintza); horregatik, aurkezpenak egiteko dinamika bat prestatu genuen, bi edo hiru pertsona ezezagunen topaketa espontaneo bat sortzeko.

Asmoa zen norik bere burua aurkeztea: izena, nondik datozen (zer proiektu eta erakunderekin duten lotura), zer eginkizun/rol betetzen duten bertan, zer lotura duen gai honekin beren zereginak, eta zer espero zuten lantegi honetatik (itxaropenak).

Geroago, osoko bilkuran, pertsona bakoitzak bere laguna aurkezten zuen modu laburrean: izena, jatorria, gaiarekin zeukan lotura eta itxaropenak.



“Itxaropenei” dagokienez, nahiko adostasun handia egon zen -bigarren saioaren ostean berriro kontrolatu zen, lehenengo saioaren esperientziaren eta inpresioaren ostean-. Pertsona gehienek esan zuten beste pertsona eta proiektu batzuk ezagutu nahi zituztela, topaketarako eta/edo lankidetzarako aukerak identifikatzeaz batera.

BESTE PERTSONA/ERAKUNDE BATZUK EZAGUTU, ETA ZER EGITEN ARI DIREN EZAGUTU

“Jendea ezagutu eta balizko lankidetzak identifikatu”. “Elkar ezagutu, eta bakoitza zertan aritzen den jakin”, “Jendea eta garatzen ari diren proiektuak ezagutu”. “Jendea ezagutu eta martxan dauden proiektuen ideiak ikusi”.

IKASI, EZAGUTU ETA PROIEKTUAK ETA HARREMANETARAKO GUNEAK IDENTIFIKATU

“Hirugarren sektoreko beste elkarte batzuek zer egiten duten ezagutu, eta horrek norberaren erakundearen izan ditzakeen aplikazioak ikusi”. “Ikasi eta interes komunak detektatu. Harremanak eratuz”. “Lan ildo honetan gauden pertsonak ezagutu, eta harremanetarako aukerak identifikatu”. “Gauzak ikasi, harremanak izan eta jendea ezagutu”. “Konplizitatearen bat sortu ahal izatea, eta beste eragile batzuen kezak ezagutu”. “Elkarren artean ezagutu eta topaguneak identifikatu”.

4. Esku-hartzearen eremua definituz

4.1. Kontzeptuak argitzea: inklusiorako artea, eta proiektuen orientazio eraldatzailea

Lantegi honetan, aztergai izan dugu nola lortu ote daitekeen, diziplina artistikoen bidez, *eragina izatea inklusio sozialaren prozesuetan*; aztergai izan dugu, halaber, *nola egin ote dezakegun hori ikuspegi eraldatzaile batetik*.

Lehenengo urratsa da esku-hartzearen eremu hori definitzea edo mugatzea; horri begira, lehenengo zeregina da argitzea zertaz hitz egiten dugun haxe esatean: “inklusio sozialerako artea, ikuspegi eraldatzailetik”.

Bazterketa eta inklusio egoera eta prozesuez eta horien “arrazoiez” dugun ikusmoldeak baldintzatu egingo du gure aukeraketa, elementu hauei dagokienez:

- inklusioa diziplina artistikoen bidez errazteko sustatu daitezkeen esku-hartze motak – edo “esku-hartze eremuak”–;
- bultzatu beharreko ekimenek izan beharko lituzketen ezaugarriak, orientazio eraldatzailea izan dezaten nahi baldin badugu (“arrazoietara” orientatuta, pertsonen aukerak eta beren eskubideen erabilera handitzeko ahalmenarekin,...).

Beste alde batetik, identifikatu behar da zer sektore eta azpisektore kulturaletan garatuko liratekeen -gehienbat- ekimenak, eta, halaber, zer-nolako esku-hartze kulturalak sustatu beharko liratekeen; horiek, funtsean, sorkuntza kulturalarekin izango dute zerikusia, eta, neurri batean, ekoizpen eta hedapen kulturalarekin ere bai.

Hala, une honetan, saiatuko gara zehazten zer sektore eta azpisektore kulturaletan kontzentratzen den lan hau, eta, horiei lotuta, zer diziplina artistikotara zuzenduko garen. Eta, bigarrenik, nola ulertzen ditugun inklusio/bazterketa prozesuak eta bazterketa, arrisku eta urrakortasun egoerak.

Diziplina artistikoak

Gure asmoa ez da “artea” zer den hemen definitzea; aitzitik, nahi duguna da zehaztu zer diziplina kontsidera daitezkeen, a priori eta gainerakoak baztertzeko asmorik gabe, inklusio sozialera zuzendutako proiektu artistikoak bultzatzerakoan, artearen alorreko eta gizarte ekintzaren alorreko erakundeetatik.

Diziplina horiek identifikatzeari begira, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Kulturaren Euskal Behatokiak eta Kulturaren Euskal Kontseiluak egindako “Kultura 07” txostena hartuko dugu oinarritzat.²

2 Eusko Jaurlaritzak. Kultura Saila. Kulturaren Euskal Behatokia eta Kulturaren Euskal Kontseilua. Kultura 07. Ed. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia,, Vitoria-Gasteiz, 2007, 106. orr.

Txosten horretan, bere behaketa eremuaz Behatokiak egiten duen sailkapen bat aurkezten da (behaketa kulturalaren eremua). Bertan, “eremu arautzailea” eta “ekoizpen-eremua” bereizten dira, eta azken horren barnean behaketaren xede diren sektoreak eta azpisektoreak: ondarea, adierazpen artistikoa, industria kulturalak, hedabideak eta beste jarduera batzuk (beste jarduera sortzaile batzuk eta jarduera eta produktu osagarriak).

BEHAKETA KULTURALAREN EREMUA

EREMU ARAUTZAILEA			EKOIZPEN-EREMUA						
Prestakuntza lkerkuntza	Ordenamendu publikoa	Ordenamendu pribatua	Sektoreak eta azpisektoreak		Eskaintza			Produktua	Eskaria/erabiltzailea
					Sorkuntza	Ekoizpena	Hedapena/erakusketa		
Prestakuntza-eskaintza (kuantifikazioa eta karakterizazioa) lkasleak eta lizentziatuak Irakaskuntza arautua Irakaskuntza ez-arautua lkerkuntza ...	Gastu publikoa Diseinua, politika publikoen kudeaketa eta inpaktua Administrazioa: Europakoa Estatala Autonomikoa Forala Tokikoa Elkarte sektorialak	Existitzen diren egiturak: kopurua, kideak. Mobilizatutako baliabideak Elkarte sektorialak Eskubideen kudeaketa	Ondarea	Museoak Artxibategiak Liburutegiak Ondare-ondasunak	Fisikoa Enpresak Establezimenduak Langileak Azpiegiturak Ekonomikoa Garatutako jarduera Mobilizatutako baliabideak	Fisikoa Kuantifikazioa Karakterizazioa Ekonomikoa Salmentak	Fisikoa Ohitura kulturalak Ekipamendua Praktika kulturalak Ekonomikoa Gastu kulturala		
			Adierazpen artistikoa	Arte eszeniko eta musikalak Antzerkia Musika Dantza Ahozko tradizioa Arte bisualak					
			Industria kulturalak	Ikus-entzunezko industria (zinea eta bideoa) eta Multimedia Argitalpen-industria (liburua) Industria fonografikoa Eskulangintza					
			Hedabideak	Irrati eta telebista Aldizkako argitalpenak					
			Beste jarduera batzuk	Beste jarduera sortzaile batzuk Arkitektura Diseinua Publizitatea Jarduera eta produktu osagarriak Arte grafikoak Tresna musikalak Soinu- eta irudi-euskarri eta -aparatuak Turismo kulturala					
Euskera-Kultura digitala: zeharkako ikuspegi linguistiko eta teknologikoa									
LURRALDE EREMUA									

Sailkapen honetatik abiatuta -eta, batez ere, adierazpen artistikoarekin, industria kulturekin eta ondare kulturalarekin zerikusia duten sektoreak eta azpisektoreak kontuan hartuta-, lan honen ondorioetarako interesgarriak diren diziplina artistikoen tipologia hau definitu dugu.

ARTE BISUALAK (Pintura, komikia, argazkigintza, instalazioak...)	MUSIKA (Pop-rock, klasikoa, rap, hip-hop, elektronikoa, fusioa, blues...)	ANTZERKIA (Arte eszenikoak)	DANTZA (Arte eszenikoak)
IKUS-ENTZUNEZKOAK (Film laburrak, bideo-klipak, bideo- sorkuntzak, bideo- jokoak...)	LITERATURA (Kontakizunak, poesia, ipuinak...)	FOLKLOREA (Ahozko tradizioa, dantza, musika...)	ESKULANAK
JOERAK (moda, diseinua, arkitektura...)	2.o. INGURUNEA / ZIBERKULTURA (Plataformak, sareak, gailuak, software eta hardware librea...)	KULTUR ONDAREA (Arkeologikoa, arkitektonikoa, etnografikoa, artistikoa, liburutegiak, artxibategi eta museoak)	

Berehala ikusiko dugunez, diziplina horien guztien kasuan badira -eta bultzta daitezke- inklusio sozialerako ekimen eta proiektuak, ikuspegi eraldatzailez bideratuak. ³

Bazterketa eta inklusio egoera eta prozesuak

Bazterketa -edo **esklusio**- kontzeptuari dagokionez, Espainiako bazterketa eta garapen sozialari buruzko VI. Foessa Txostenean planteatutako hasierako definizioetik abiatzen gara:

Europar hedatutako bazterketa kontzeptuak bidea ematen du zailtasun egoeren ikusmolde horren hiru funtsezko alderdi barne hartzeko: bere jatorri **estrukturala**, bere dimentsio **anitzeko** izaera eta bere izaera **prozesual** edo dinamikoa. Bazterketa terminoa azterketa soziologikoaren tradizio frantsesetik abiatzen da; beraren arabera, bazterketa integrazioa galtzeko prozesu sozial bat da, **diru-sarrerarik ez izatea eta lan merkatutik urruntzea kontuan hartzeaz gain** beste elementu hauek ere sartzen dituen barne: **lotura sozialen ahultzea, parte-hartze sozialen jaitsiera** eta, hortaz, **esku-bide sozialen galera**. (Fundación Foessa, 2008).⁴

José Felix Tezanosek (Tezanos, 2004, 30.-31. orrialdeak) ⁵ berriz, elementu horietako batzuk aipatzen ditu (izaera estrukturala, dimentsio anitzekoa eta prozesuala) eta, Joan Subiratsen planteamenduen ildotik, azpimarratzen du bitartekotza politikoak eta ekintza instituzional eta sozialak ere fenomenoaren osagai bihurtu daitezkeela.

3 Ondare kulturalaren kasuan ere, badira zenbait ekimen; adibidez, adineko boluntarioek ondarea erakusten diete beste pertsona batzuei (gazteak, etorkinak...), eta horrek bultzatzen ditu adineko pertsonen parte-hartze soziala eta adin eta jatorri desberdineko pertsonen arteko harremanak.

4 FUNDACIÓN FOESSA (2008): *VI Informe Foessa sobre exclusión y desarrollo social en España*, Madril, Cáritas, 55. orri-aldea. Webgune honetan eskura daiteke: www.foessa.org/quePensamos/nuestrasPrioridades/index.php?MzI%3D. Letra lodiak geuk jarriak dira.

5 TEZANOS, J. F. (ed.). (2004) [e. o. 1999]: *Tendencias en desigualdad y exclusión social. Tercer Foro sobre tendencias sociales*. Editorial Sistema, Madril. Agiri honetan: SARTU (2010), *Tendencias Sociales e Inclusión Social*, Bilbo, Sartu Federazioa, 28.-29. orrialdeak.

Hala:

- Hasteko, **bazterketa soziala fenomeno estruktural bat da** (eta ez kausala edo singularra).
Bazterketa soziala izaera estrukturalako fenomeno bat da; nolabait, sistema ekonomiko eta sozial honen logikaren berezko ondorioa da, sistema horrek sortu eta elikatzen baitu modu ia saihestezinean (Subirats, J. (dir.) y otros, 2004:18).⁶
- Bigarrenik, bazterketa soziala **hazten ari den fenomeno bat da**.
- Hirugarrenik, bazterketa sozialak **dimentsio anitzeko izaera** du (zirkunstantzia kaltegarri batzuk metatu daitezke).
Bazterketa soziala ezin esplikatu daiteke kausa edo faktore bakar baten arabera; aitzitik, elkarren artean lotuta dauden edo elkar berrelikatzen duten faktore edo gabezien metaketatik definitzen da (Subirats, J. (dir.) y otros, 2004:19).
- Laugarrenik, bazterketa soziala **prozesu dinamikoa bat** da: gero eta pertsona gehiago ukitzen ditu, eta pertsona horien ezaugarriak gero eta desberdinagoak dira.
Bazterketa soziala prozesu sozial jakin batzuekin lotzen da (krisi ekonomikoa, laguntza ekonomikoen murrizketa, laguntza sektore eta talde berrietara orientatzea, eta abar). Prozesu horien eraginez, pertsona batzuk ezin kontsideratu daitezke gizartearen eskubide osoko kideak, bizi duten egoerak hori eragozten baitu.
- Bukatzeko, esan behar da bazterketa soziala ez dela fenomeno bat soilik, baizik eta **arazo sozial bat** ere bai, eta, hortaz, bitartekotza politikoak eta ekintza instituzional eta soziala fenomenoaren berezko osagai bihurtu daitezkeela (Subirats, J. (dir.) y otros, 2004:19).

Aurreko bi erreferentziak osatzen dituen beste erreferentzia interesgarri baten arabera, bazterketa prozesuak haustura hirukoitz baten inguruan kokatzen dira, eta hiru faktore elkartzearen ondorioz sortzen dira.

Bazterketaren oraingo egoera haustura hirukoitz baten ondorioa da: haustura ekonomikoa, soziala eta bizitzakoa. Aldi berean, hiru faktoreen konbergentziaren ondorioa da: faktore estrukturalak, egitura baztertzaila eraten baitute; faktore sozialak, testuinguru eragozleak sortzen dituztenak; eta subjektiboak, motibazioen gabeziak bizi-dinamismoak ahultzen baititu. Hiru alor horiek elkarren ondoan eta elkarren gainean jartzen dira, eta elkar berrelikatzen dute.⁷

Inklusio sozialak, beraz, eskubideen benetako erabilera dakar berekin (enplegua, etxebizitza, osasuna, hezkuntza, kultura... eskuratzea), baina, horrez gain, informaziora ezin iristea, laguntza eta harreman sareetara ezin iristea...

6 SUBIRATS, J. (dir.) y otros (2004). *Pobreza y exclusión social. Un análisis de la realidad española y europea*. Fundación “la Caixa”. Hemen argitaratuta: Colección Estudios Sociales. 16. zkia. Batzelona. On-line eskura daiteke: www.estudios.lacaixa.es. In: SARTU: Tendencias Sociales e Inclusión Social, ed. Sartu Federazioa. (2010) Bilbo, 28.-29. orrialdeak.

7 BELADELL, C. *EXCLUSION SOCIAL: origen y características*. Ikastaroa: “Formación específica en Compensación Educativa e Intercultural para Agentes Educativos”. Murtzia, 2002ko Urtarrilaren 30a. http://enxarxats.intersindical.org/hee/CE_exclusio.pdf


Beraz, inklusioa ez da amaitzen erantzukizun publikoko prestazio eta zerbitzuetara iristean, ezta emaitza jakin batzuen bermea lortzean. Horrez gain, norberaren bizi-proiektuaren nolabaiteko garapena ere eskatzen du, eta hiritartasunaren erabilera aktiboa ere bai, taxuzko baldintza edo aukeretatik abiatuta.

Era horretan, garrantzitsua da kontuan hartzea inklusioa badela bazterketa egoera objektiboak (enplegua, etxebizitza, osasuna, hezkuntza, informazioa, kultura... eskuratzea) aldatzea baino zerbait gehiago, hau da, horrez gain aukerak sortu behar dira subjektuaren **adierazpenerako**, pertsona moduan osotasunez garatu ahal izan dadin eta modu aktiboan parte hartu ahal izan dezan gizartearen, kulturaren, eta abar.

Bazterketa bezala, inklusioa ere dimentsio anitzekoa da eta, gaur inoiz baino gehiago, dinamikoa.

Hala, Joan Subiratsek funtsezko hiru esparrurekin lotzen du inklusioa, eta esparru horien inguruan eraiki behar dira inklusiorako estrategiak: a) ekoizpenaren, lan merkatuaren eta kontsumoaren esparrua; b) hiritartasunaren esparrua; c) eta harreman eta lotura sozialen esparrua.⁸

Izatez, proiektu artistikoek eragina izan dezakete esparru horietako bakoitzean.



Eta, ikuspegi dinamiko batetik, Robert Castelek⁹ zonei buruz hitz egiten du: mutur batean *integrazioa* dago; bertan dauden pertsonen lan egonkorra eta harreman sendoak (familia, auzokideak...) dituzte; gero, *urrakortasunetik* igaroz, beste muturrera iristen da: *bazterketara*.

Horrenbestez, bazterketak eta inklusioak gero eta muga lausoagoak dituen continuum bat osatzen dute, eta baita gero eta dinamikoagoa den prozesu bat ere, historikoki arrisku eta bazterketatik kanpo zeuden pertsona eta kolektiboak ere ukitzen dituena.

8 SUBIRATS, J. *Cómo ser yo mismo, ser como los demás y sentirme reconocido en mi ser distinto. El reto de la nueva ciudadanía.* In: VVAA. Eres Igual, Caja Madrid, Madrid, 2009, 14. orrialdea.

9 CASTEL, R. *La metamorfosis de la cuestión social. Una crónica del salariado.* Ed. Paidós, Buenos Aires, 1997, 418. orrialdea.

Beste modu batean, esan daiteke **urrakortasun sozialaren** zona handitu egin dela, eta, hortaz, hazi egin direla baztertzeko arriskua sortzen duten egoerak eta beheranzko mugikortasun sozialaren aukerak.

Izatez, sexuak, adinak, jatorriak eta/edo etniak eta autonomia mailak (degaitasuna, mendetasuna) esplikatzeko dute, neurri handi batean, pobrezia, bazterketa edo arrisku egoerak beren bizitzaren unearen batean aurrez aurre dituzten pertsonen multzoaren hazkundera eta beraren dibertsifikazioa.¹⁰

Lan honen ondorioei begira, bazterketa egoeran dauden pertsonen -alde batetik- eta arrisku edo urrakortasun egoeran dauden pertsonen -beste batetik- hitz egitean, pertsona hauek ditugu hizpide:

- lehenengo kasuan, bazterketa egoera objektiboak pairatzen dituzten pertsonak (adibidez: langabezia, eskolatuta ez egotea,...);
- bigarrenean, berriz, bazterketa pairatzeko arriskuan daudenak (adibidez: lan prekario edo ezegonkorra, eskola-porrotata...) eta, halaber, beren sexu, adin, jatorri, etnia, autonomia maila edo gisa bereko beste arazoirekin batengatik aukera handiagoak dituztenak arrisku edo bazterketa egoerak pairatzeko.

Hala, adibidez, degaitasuna duten pertsona guztiak ez daude bazterketa edo arrisku egoeran, baina degaitasuna urrakortasun faktore bat da eta, normalean, degaitasunak dituzten pertsonen horrelako egoerak pairatu izaten dituzte.

Eta, edozein kasutan, kulturara iristeko bidea edo kulturarako sarbidea aztertzea interesatzen zaigu, batez ere degaitasunak dituzten pertsonen kasuan eta urrakortasun edo bazterketa egoerak pairatu ohi dituzten gainerako pertsonen kasuan.

Gainera, kultura bada eskubideak erabiltzeko esparru bat, eta hor ere bazterketa egoera eta prozesuak sortzen dira.

Eta hemen bada bereziki interesatzen zaigun hausnarketa bat, alegia, nola lagundu ote diezaiekegun bazterketa, arrisku edo urrakortasun egoeran dauden pertsonen sorkuntza, ekoizpen eta hedapen kulturalaren alorrera iristen, eta nola egin ote dezakegun hori ikuspegi normalizatzaile batez, esparru eta baliabide normalizatuera (biztanleria osoarengana zuzentzen direnak) eta sustapen kulturalaren esparru eta baliabideetara iritsi daitezen, horren bidez indartzeko pertsona horiek kulturaren eraikuntzan duten parte-hartzea.

Artea inklusio sozialerako, ikuspegi eraldatzaile batetik.

Azken batean, jorratu nahi dugun fenomenoaren konplexutasuna azpimarratu nahi dugu. Ez dugu hitz egiten pertsona eta familia jakin batzuk soilik inplikatzeko dituzten prozesuez, ezta faktore bakar bati lotutako errealitate estetikoek ere.

10 Tezanosek (2004), Subiratsek eta beste batzuek (2004) eta Jiménez Ramírezek (2008) egindako ekarpenetatik abiatuta, SARTUK elementu hauen sistematizazio interesagarri bat egin du:

- inklusio eta integrazioaren esparru eta faktoreak (lanekoa, ekonomikoa, finantzariora, prestakuntza, soziosanitarioa, etxebizitzarena, pertsonala, soziala eta erlazionala, hiritartasuna eta parte-hartzea);
- bazterketa prozesuetan zeharkako eragina duten desberdintasun sozialeko ardatzak (generoa, adina, etnia/ jatorria edo jaioterria eta degaitasuna).

En: SARTU. *Tendencias Sociales e Inclusión Social*, Ed. Sartu Federazioa. (2010) Bilbo, 30.-31. orrialdeak.

Eta, artearen edo esku-hartze sozialaren aldetik, bazterketa egoera eta prozesuak sortzen dituzten arrazoieta eragina izan nahi dugunean edo inklusio prozesuak sustatu nahi ditugunean, alderdi horiek hartu behar ditugu kontuan. Hala, adibidez:

- a) Bazterketaz haustura ekonomiko bezala hitz egiten badugu, artea lagungarria izan dakiguke okupazio eta enplegurako aukerak lortzeko.
- b) Bazterketaz sare sozialekiko loturak hausteko prozesu bezala hitz egiten badugu, arteak topaketarako, komunikaziorako eta berriz afiliatzeko bideak eskaintzen dizkigu.
- c) Bazterketaz eskubide sozialen eta hiritartasun aktiboa erabiltzeko aukeren galera bezala hitz egiten badugu, artea parte-hartze sozialerako esparrua izan daiteke, eta baita eraldaketa sozialerako tresna indartsua ere, sentsibilizatzearen, salatzearen eta alternatibak proposatzearen bitartez.

Eta, orobat, desberdintasunak aitortzeko eta baloratzeko eta diskriminazioa sortzen duten elementu kulturalak -sexu, adin edo desgaitasuna, besteak beste- eraldatzeko tresna bat.

- d) Bazterketaz pertsona, beraren dimentsioak eta beraren bizi-proiektuak ukitzen dituen prozesu bezala hitz egiten badugu, artea bide egokia izan daiteke gaitasunen garapenerako, adierazpenerako, autoestimua berreskuratzeko, norberaren historia erreskatatzeko...

Bukatzeko, bada oso garbi utzi behar den zerbait, alegia, pertsonen inklusio soziala bultzatu nahi duen edozein proiektuk **orientazio eraldatzailea** izan behar duela nahitaez.

Horrek esan nahi du proiektuek kontuan hartu behar dutela bazterketaren izaera estrukturala, dimentsio anitzekoa eta dinamikoa, eta ahalik eta faktore gehien ukitu behar dituztela, bazterketa prozesuei buelta ematen saiatuz; azken batean, proiektuek beren hartzaileren aukerak areagotzea ahalbidetu behar dute, hiritartasuna modu efektibo eta aktiboan erabili ahal izan dezaten, pertsona bezala haziz eta beren bizi-proiektuak garatuz.

Geroago, sakonago jorratuko ditugu proiektuek izan beharko lituzketen gakoak, horietako batzuek zerikusia baitute alderdi hauekin.

4.2. Esperientzien identifikazioa eta horietatik abiatutako hausnarketa

Taldeak identifikatu dituen esperientziek ahalbidetu dute Behatokiaren taldeak abiapuntu bezala prestatutako zerrenda aberastea. Bada, zerrenda berri hori lantegi honen produktu etako bat da (ikus I. Eranskina).

Esperientzia esanguratsuen identifikazioak badu balio propioa, erreferentzia eta jardunbide egokien adibideak diren neurrian. Gainera, bultzatu nahi dugun esku-hartze eremu hau kontzeptualizatzeko ahaleginari lotuta, bistaratu eta modu konkretuan definitzen saiatzen da.

Hemen, lehenengo saioan parte hartu zuten pertsonen identifikatutako esperientziak soilik aipatzen dira; esperientzia horiek I. Eranskinari gehitu zaizkio, aurretik jasota ez bazeuden, eta hor deskribatzen dira sakonago.

Edonola ere, saioan bertan egindako tipologiaren arabera aurkezten dira, sailkatuta. Sailkapen hori oinarritzat hartu da geroago, esku-hartze eremuiei buruzko hausnarketa egiteko.

Bukatzeko, identifikatutako esperientzien berri eman ondoren, saio orokorrean sortutako hausnarketa eta eztabaidarako elementu batzuk aurkeztuko ditugu.

Hurrengo atalean, azkenean sistematizatu ziren esku-hartze eremuak aurkeztuko dira; ildo horretatik, eremu horietako bakoitzarekin lotuko dira eranskinean sartuta dauden esperientziak.

Horri dagokionez, beren esperientziak esku-hartze eremu jakin batean kokatzeko eskatu genien parte-hartzaileei, horiek guztiak eremu batean -batez ere batean- kokatuta geratu zitezten, eremuen sailkapena egokia ote den egiaztatzeko forma bezala:

- ikusteko ea esperientzia guztiak sailkatzea ahalbidetzen duen (exhaustibotasuna);
- eta, funtsean, eremu bakar batekin lotzeko (esklusibotasuna), nahiz eta esperientzia jakin batek xede bati baino gehiagori erantzun diezaiokeen -eta hori gertatzen da normalean-.

Eta, ikusiko denez, bi irizpide horiek bete ahal izan dira neurri handi batean.

Esperientziak¹¹

Komunitatean integratutako eta berari irekitako artea / artistak komunitatearekin lanean.

Garrantzitsua da proiektu artistikoak dinamizatzeko formak bilatzea, zeinetan pertsona eta kolektibo mota desberdinak inplika daitezkeen, izaera irekiarekin eta orientazio eraldatzailearekin, eta komunitateari eta lurraldeari lotuta.

- **104 París.** CENTQUATREren nahia da bizitza errealarekin konektatuta egotea eta elkarbizitza-esparrua izatea artistentzat eta publikoarentzat, gaur egungo praktika artistiko eta kulturaleri eta adierazpide espontaneoek irekita egonda. Zentroak proposamen horiek guztiak hartzen ditu, gogo onez, erakin handi batean. Bertan daude esparru publikoak, ikerketa-tailerrak eta errepresentazio eta lan esparruak.
- **Le Laboratoire d'aubervilliers.** Ikerkuntza artistikora zuzendutako tresna bat da. Laborategi hauetan, baldintza egokiak sortzen saiatzen dira ekoizpen artistiko eta kulturalaren sistema arruntetara egokituta ez dauden proiektuentzat, erakundea, egitura edo beste alderdi batzuk -hala nola denbora edo aurrekontua- hor jasotzen diren proposamenetara egokituz.
- **Artibarrri: arte y barrio.** Artibarrri baliabide zentro bat da, eta ekintza komunitarioko proiektu artistikoak garatzearen aldeko sare bat. Bertan, pertsonen parte-hartzea funtsezko ardatza da bizi-kalitate indibidual eta kolektiboaren hobekuntzarako, aldaketa sozialaren pizgarria izateaz batera. Artibarrri sare-lana sustatzen du, horrelako proiektuak areagotzeko, hobetzeko, hedatzeko edo lurraldearekin konektatzeko.

11 Hemen islatzen dira lantegian parte hartu duten pertsonen identifikatutako esperientziak, horietako bakoitzari buruz dagoen informazioa apur bat handituz, parte-hartzaileek emandako edo sarean dagoen informazioa oinarritzat hartuta. Sailkapena lantegiaren esparruan egin da.

Auzoetan proposamen kulturalak sortzen dituzten esparruak, parte-hartzea, topaketa eta ingurunearen eraldaketa uztartzen dituen dinamika batez.

Kasu honetan, kontua da lurraldeari lotutako topaguneak sortzea, pertsonak zenbait ekimen gauzatu ahal izan ditzaten hor, horien artean ekimen artistiko eta kulturalak.

- **Sarea Taberna**, San Frantzisko auzoan (Bilbo), esparru kultural eta topagune bezala.
- **Gaztetxeak**, topaguneak direlako eta inguruneari irekitako jarduera artistiko eta kulturala sortzen dutelako.

Elkarlaneko dokumentalak, herritarren parte-hartzearekin; horien bidez, errealitate jakin bat bizi duten pertsonak badute aukera hori zuzeneko eran adierazteko.

- **Identibuz proiektua**, Úbiquak garatua Bilboko San Frantzisko auzoaren eta Lisboako auzo baten artean. Auzoan bizi diren pertsonak diseinatzen dute zer kontatu nahi duten auzoari buruz, eta telefono mugikorrek erabiltzen ikasten dute, grabazio tresna gisa, hortik abiatuta bideo-klipak egiteko.
- **Habla** proiektua, Anesvad Fundazioarekin antzeko metodologia batez garatuta; bere asmoa da errealitatea azaltzea beraren protagonistak diren pertsonengandik abiatuta, bideoaren teknika erabiliz.
- **Aspacek** ere badu **bideoak editatzeko tailer bat**. Kamera kasko batean jartzen da, eta pertsonak kaletik doaz jendearen erreakzioak grabatzen. Geroago, bideoak editatzen ikasten dute.

Izaera sozialeko bideo-jokoak (“social games” eta “serious games”¹²).

- Badira proiektuak, pertsonen parte-hartzea uztartzen dutenak beren errealitatearen aurkezpen edo errepresentazioarekin eta **bideo-jokoak** egitearekin. Ezaugarri hori dute nerabe eta gazte immigranteekin garatutako proiektu batzuek; horien bidez, “mugako” eta auto-errepresentazio lana egiten da, programazio apur bat ikasten da...
- Espainian, **“border games”** deritzanak erreferente bat dira: lan-sare bat da, gazteei ahalbidetzen diena bideo-joko bat kolektiboki eraikitzea, beren berehalako esperientziatik abiatuta, tailer batzuen, editore baten eta kode irekiz diseinatutako bideo-joko libre eta doakoen motor baten bitartez.
- Italiako esperientzia batzuk ere aipatu dira (**molleindustria.it**). Webgune bat da, ikuspuntu politikotik kritikoak diren argudioetan oinarritutako bideo-jokoak ekoizten dituen: gerra eta kontsumismoaren salaketa, eta abar. Proiektuaren helburua da bitarteko horren potentziala esploratzea eta *“bideo-joko tradizionalen pertsuasio-erretorikaren dekonstrukzioa egitea”*. Eta hori ahalik eta modu dibertigarrienean egitea.

¹² Joko serioak ez daude diseinatuta entretenitzeko soilik, baizik eta, horrez gain, bideo-jokoaren industriarekin zerikusia ez duten alderdi batzuei buruzko mezu edo ideia esanguratsuak transmititzeko; adibidez: etika, politika, erlijio edo gerrari buruzkoak.

Balioen inguruko sentsibilizazio eta heziketarako proiektuak, antzerkia, bideo-jokoak, jolasa eta gisa berekoak bitarteko bezala erabiliz.

- **Antzerkia** zenbait xedetarako erabiltzen duten proiektuak: kontsumoa arduratsua sustatzeko, emakumeen aurkako indarkeria nerabezaroan prebenitzeko, eta abar. Adibidez: Hortzmuga, erakunde eta instituzio batzuen lankidetzarekin.
- **Jolas kooperatiboen** erabilera bake eta elkarbizitzarako hezkuntzaren tresna gisa (balioen inguruko hezkuntza); adibidez: Trukeme Proiektua (EDE Fundazioa).
- Zenbait erakundek (Amnesty International, Acnur, Mugarik gabeko Medikuek, Unicef...) **bideo-jokoak** ekoizpena sustatu dute, herritarrak sentsibilizatzeko eta beren esku-hartzearen eremua ezagutzera emateko.¹³
- Zubietxe elkartearen **arte tailerrak** elkartearen sentsibilizazio sailari laguntzen dio, errefortzu gisa, immigrazioaren fenomenoari buruz sentsibilizatzeko hitzaldietan. Ikastetxeak eta HHEak (EPA) bisitatzen dituzte, eta DBHko bostehun ikaslek baino gehiagok ekintza horietan parte hartzen dute urtero.

Gainera, bi argitalpen egin dituzte, horietako bat Alhóndiga Bilbaorekin batera, hogeita bost ilustratzaile profesionalen inplikazioarekin, eta pieza horien guztien edo batzuen erakusketak antolatu dituzte sarritan. Halaber, poster serie bat argitaratzen dute elkartearen arte tailerren parte hartzen duten emakume sortzaileen lan artistikoa sustatzeko.

Desgaitasuna duten pertsonen adierazpena artearen bidez sustatzera zuzendutako proiektuak (hastapena, motibazioa, hedapen kulturala, gaitasunen garapena, sorkuntza eta ekoizpen artistikorako sarbidea, artearen bidezko sentsibilizazioa, integrazioa, hedapen kulturala, kolektiboa bistartzeko proiektuak...).¹⁴

A.- Hastapena – motibazioa / hedapen kulturala (hedapen ekintzaren hartzailak desgaitasuna duten pertsonak dira).

- **FEVASek eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoak** tailer musikalak antolatzen dituzte -horien ostean kontzertu labur bat eskainiz-, musika desgaitasun intelektuala duten pertsonengana hurbiltzeko eta haien parte-hartze aktiboa jarduera kulturaletan sustatzeko xedez.

13 Amnesty Internationek “Juegos por un Mundo Mejor” izeneko lehiaketa bat antolatu zuen 2010ean; bertan, Giza Esku-bideei buruzko bideo-joko didaktiko eta dibertigarri bat garatu behar zen.

“Contra viento y marea” bideo-jokoaren bidez, Acnur-ek errefuxiatuen egoeraren aldeko sentsibilizazioa bilatzen du.

Mugarik gabeko Medikuek, “Y comieron felices” jokoaren bitartez, haurren desnutrizioari buruzko sentsibilizazioa sustatzen du, haurrek ikasi eta parte hartu dezaten.

Unicef, beste bideo-joko baten bitartez, munduko epidemia hilgarrienaren -HIES- aurka borrokatzen saiatzen da, horren prebentzioa sustatuz Afrikako haur eta nerabeen artean.

14 Batzuetan, proiektuek dimentsio edo ezaugarri horietako batzuei erantzute diete, ez bati soilik.

B.- Gaitasunen garapena

- **Tailer** hauek zenbait diziplina artistiko erabiltzen dituzte pertsonen adierazpenerako, komunikaziorako eta gaitasunen garapenerako; adibidez: Apnabiren eguneko zentroaren arte plastikoen tailerra, beste adibide askoren artean.

C.- *Sorkuntza eta ekoizpen artistikorako sarbidea, artearen bidezko sentsibilizazioa, integrazioa, hedapen kulturala (desgaitasuna duten pertsonak dira beren sorkuntza ezagutzera ematen dutenak), kolektiboa bistaratzea ...*

- **Punto de vista ciego.** (Antoni Abad) Interneteko sare sozialeko proiektu bat da, pertsona itsuentzat eta ikusmen mugatua duten pertsonentzat sortua. GPS integratua duten telefono mugikorrentzat espezifikoki prestatutako software bat erabiltzearen bidez, parte-hartzaileek argitaratu ditzakete, webgune egokitu batean, kaleetan aurkitzen dituzten oztopo eta traba arkitektonikoen irudi eta soinu geo-lokalizatuak, eta baita egokitzapen onen adibideak ere. Halaber, beren eguneroko bizimoduaren esperientziak eta kontakizunak ere transmititzen dituzte; horri esker, webgunea bisitatzen dutenek hobeto ezagutu ditzakete kolektiboaren egunerokotasuna eta problematika.¹⁵
- **Verdini Dantza Taldea.** Gipuzkoako dantza konpainia bat. Diziplina hau erabiltzen du desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzeko tresna bezala.
- **Debajo del sombrero.** Madrilgo kolektibo bat, artisten arteko lankidetzaren inguruan Oacklanden (Kalifornia) garatutako esperientzia bat Madrilera ekarri duena -artista batzuk desgaitasunak dituzten pertsonak dira-. Tailerrak zenbait esparrutan kokatzen dira, hala nola “Matadero”n edo “Casa Encendida”n, eta esperientziak bidea ematen du artea lanbide bilakatu dadin pertsona batzuentzat.
- **Arteko-Gautena.** Arte plastikoen tailerra, autismoa duten pertsonentzat. Sorkuntza eta sormena sustatzeko esparru bat da, autismoa duten pertsonengana zuzenduta. EHUko musika, plastika eta gorputz adierazpen sailaren lankidetzarekin garatu da.

C.- *Zeharkako proiektuak, askotariko xedeak bilatzen dituztenak*

- **Créahm, Liejako** (Belgika). Elkarte honek 30 urte daramatza lanean, arte bisual eta eszenikoen alorrean, desgaitasun intelektuala duten pertsonen talentu artistikoak garatuz; aldi berean, talentu horien garapena eta bistarapena sustatzen ditu, erakusketa, ikuskizun eta kontzertuen bitartez.
- **The Studio Upstairs.** Leku honek eguneko zentro berritzaile moduan funtzionatzen du buru-osasuneko arazoak dituzten pertsonentzat. Beraren helburua da pertsona horien lan sortzaile eta artistikoa mantentzea, sostengatzea eta garatzea, kontuan hartuta pertsona horietako asko zaintza psikiatrikoko unitate edo instituzioetatik irten berriak direla.

Topaketarako, adierazpenerako eta gaitasunak artearen bidez garatzeko esparruak sortzen dituzten proiektuak, bazterketako edo bazterketa-arriskuko testuinguruetan.

- **Philippe Pascal** Espazioa (Irala). Artearen eta terapiaren arteko espazioa, erabilera anitzekoa, auzoan integratua (haurrak, etorkinak, buru-gaixotasuna duten pertsonak...)

¹⁵ Adibide hau beren errealitatea ezagutzera ematen duten pertsonen proiektuen adibidea ere izango litzateke.

- **Fidias Fundazioa.** Lamiako auzoan (Leioa) garatutako proiektua. Alternatiba bat eskaintzen die arrisku egoeran dauden nerabeei, antzerkiaren bitartez.

2011n eratua, Fidias Fundazioaren asmoa da gazteen potentzialtasunen garapenari sormenaren bidez laguntzea, arteaz baliatuz (musika, antzerkia...). Topaketarako espazio bat eskaintzen du; bertan, sorkuntza prozesuaren bitartez, nerabezaro-aurrean edo nerabezaroan dauden pertsonak beren aisialdiaren zati bat eman dezakete elkarren arteko harreman jardueretan, profesionalen eta boluntarioen zuzendaritzapean.

- **Zubietxeren Arte Tailerra (TAZ).** Tailer hau Zubietxe elkartearen Eguneko Zentroaren jardueretako bat da. Bi goizetan funtzionatzen du astean, lau orduz.

TAZen berezitasuna da etenik gabe lan egiten dela alderdi xume, intimo eta partikularretan. Bere formatuaren izaera berritzaile eta bereizgarriaren muina da sorkuntza artistikoaren prozedura eta prozesuak egunero berreskuratu eta eguneratzen direla, parte-hartzaile bakoitzaren beharretara egokitzeko.

Osoko instituzioetan gauzatutako proiektu artistikoak, adierazpen, garapen eta komunikazio pertsonalaren kanal bezala; eta espazio humanizatuak instituzioetan sortzea.

Espetxeetan egindako proiektu batzuk azpimarratzen dira, adierazpen edo diziplina artistiko batzuei lotuta:¹⁶

- Musika klasikako tailer edo ziklo batzuk egin dira espetxeetan; adibidez: Ara Malikian biolinista armeniar-libanoarraren **Musika eta Opera tailerra**, Teatro Realek Navalcarneroan Madrid IV espetxean ematen duena.
- **Antzerkiaren inguruko proiektuak**, hala nola, Nanclaresko espetxearen antzerki-tailerra, edo TeatroDentro-Bcn proiektua, espetxeen barruan bi ardatzen inguruan esku hartzeko: hezkuntza ez-formala eta sustapen kulturala.
- **Hipatia Proiektua** (“generoko pedagogiak giltzapeko espazioetan”). Izena Leongo Mansilla de las Mulasko espetxeko 10. moduluan giltzapetutako emakumeekin argitaratutako aldizkariaren izenburutik dator. Proiektuaren eragilea Gaztela-Leongo Arte Garaikideko Hezkuntza eta Kultur Ekintza Saila da.
- **La Lleca kolektiboa** (Mexiko), bere jardura Mexiko Hiriko adingabeen espetxean gauzatzen duena, estrategia erradikal batez, alegia, bere proposamen politiko eta aktibista da artea afektuekin lotzea, presoaren errepresentazioa/auto-errepresentazioa iraultzeko eta horren bidez, ahal den neurrian, subjektibitateak giltzapeko egoeran eraldatzeko. Estrategia honi hezkuntza estetikoak deitzen zaio.

¹⁶ Espetxeetako praktika artistikoen erakusgai on bat ondoren aipatutako artikuluaren ageri da, gai horri buruzko ikerketa proiektu bat jasotzen baitu: <http://www.revistalaocaloca.com/2011/05/practicas-artisticas-en-centros-penitenciarios/>.

Desberdinen arteko elkarbizitza eta harremanak artearen bidez sustatu nahi duten proiektuak.

- **Topaleku** (Bidesari-Bilbo). Topaleku **aisialdi eta topaketa** sozialerako proiektu bat da, bizi-historia desberdinetatik abiatuta, **proposamen kulturalen** bidez eta aisialdi aktibo eta parte-hartzailearen bidez. Bere helburua da espetxean egon diren eta/edo droga-mendetasun arazoak izan dituzten pertsonak gizarteratzea.
- **Goiztiri**, Barakaldon: gazteek gazteentzat egindako **antzerkia**, kulturartekotasuna sustatzera zuzendua.

Gazteekin egiten den antzerki tailer bat da, etorkin gazteen kolektibo estigmatizatuenetako batekin modu aktiboan lan egiten duena: familiarik gabeko gazte marokoarrek.

Barakaldoko Udalaren Immigraziorako Udal Zerbitzua, Goiztiri, Raquel Imaz antzerki irakaslea eta Giltzarri gazte plataforma lankidetzan aritu dira jarduera honi forma emateko, kultur arteko elkarbizitza sustatzeko espazio garrantzitsu bat sortuz. Tailer honen helburu nagusietako bat da arte eszenikoak erabiltzea kultur arteko harremanak bultzatzeko eta gozamenari irekitako espazio bat sortzeko.

- **Kalé Dor Kayikó. Txalo ikastaroa**, beste helburu batzuen artean integrazioa sustatu eta eskola-absentismoa saihestu nahi duena. Beraren emaitza bat da ijitoen kulturaren elementu bat baloratzea eta eskolaren eremuan presentzia ematea, bertan ikasten duten ijitoak gehiago identifikatu daitezen espazio horrekin (“10etatik 11etara txalo ikastaroa dagoela eta irakaslea ijitoa dela ikustean”). Beste emaitza bat estereotipoak aldatzea da (irakasleak ijitoak dira eta ikasleak payoak).¹⁷
- **Munduko emakumeak (tailerrak)**. Munduko Emakumeen elkartetik, jatorri desberdineko emakumeek protagonizatutako proiektu artistikoak bultzatzen dira, kulturartekotasunaren ikuspuntutik; asmoa da beren ikuspegia eta errealitatea adieraztea emakume eta artista bezala.

Gizarte ekintzaren alorreko erakundeentzako funtsak biltzeko eta sentsibilizatzeako proiektu kulturalak.

- Etorkinen elkarteek antolatutako **folklore jaialdiak**. Horien artean, gertu egoteagatik, “Festival de Gentes del Mundo” jaialdia azpimarratu genezake.
- Zenbait **erakusketa**, sentsibilizatzeako eta funtsak biltzeko gizarte ekintzaren alorreko erakundeentzat.

¹⁷ Ijitoen kultura hezkuntza edo kultur espazioetan baloratzeari lotuta, eta ijitoak espazio horietara iristeari eta espazio propio bezala sentitzeari lotuta, garrantzitsutzat jotzen da horrelako prozesuak musikaren alorrean ere bideratzea. Musika oso estimatua eta landua da ijitoen herriaren aldetik, baina errealitate horrek ez du korrespondentzia egokirik kontserbatorioen moduko espazioetan duen presentziarekin. Kalé Dor Kayikók dioenez, horri buruz hitz egin dute jadanik kontserbatorioen batekin, eta espero dute egoera bi alderdien artean konpondu ahal izatea.

Eztabaidan planteatzen den beste gauza bat da ona izango litzatekeela erakundeen artean kolaboratzea eta zenbait ekimen -adibidez: txalo ikastaroa- beste errealitate batzuetara eramatea (gizarte ekintzaren alorreko erakundeak); era horretan, elkarren arteko topaketa eta ezagutzarako espazioak sustatuko lirateke, gizarte ekintzaren alorrean, kultura, errealitate, gaitasun eta adin... desberdineko pertsonen artean.

Jarduera artistikoei buruzko trebakuntza profesionala emateko proiektuak, bazterketa, arrisku edo urrakortasun egoeran dauden pertsonengana zuzenduta. Batzuetan, gainera, beste helburu batzuk integra ditzakete: ondare kulturalaren berreskurapena, kulturartekotasunaren sustapena, eta abar.

- Prestakuntza hartzen ari den gazte talde baten parte-hartzea Buitrago de Lozoyako Elizaren zaharberrikuntzan.

Beste batzuk

Espazioak pertsona guztien beharretara egokitzeko / eraldatzeko proiektuak.

Hiri-espaziorekin zerikusia duten esku-hartzeak (ez dira ezinbestean artistikoak izan behar), azterketak eta proposamenak, haien humanizazioa bilatzeko eta kolektibo jakin batzuen ezaugarri eta beharren arabera egokitzen saiatzeko (adineko pertsonak, haurrak, desgaitasuna duten pertsonak, emakumeak...).

- **Haurren hiria** (Francesco Tonucci. Italia). Haurren Hiria proiektua hiria itxuratzeko forma berri bat da, haurrak erreferentzia-puntutzat hartzen dituena. Arrakasta handia lortu du eta munduko hainbat lekutara hedatu da. Bere helburuetako bat da hirietako zirkulazioa lasaitzea eta orain utopia dena egia bihurtzea: haurrak eskolara joan ahal izatea bakarrik, edo kaleetan askatasunez jolastu ahal izatea, autoek harrapatzeko beldurrik gabe.
- **Viena.** Mugikortasunaren azterketa, 80 urtetik gorako pertsona baten ikuspegitik.

Artea eta eraldaketa sozialaren beste elementu batzuk lotzen dituzten proiektuak.

Esku-hartze artistiko hauek orientazio eraldatzailea dute, baina ez daude zuzenean lotuta bazterketa, arrisku edo urrakortasun egoeran dauden pertsonengana zuzendutako esku-hartzeekin.

- **Transductores**, Pedagogías colectivas y políticas espaciales proiektu kultural bat da, praktika artistikoak, esku-hartze politikoa eta hezkuntza modu malguan egituratzen dizuten ekimenak ikertu eta aktibatu nahi dituena, diziplina arteko kolektiboen ekintzatik abiatuta.
- **Basurama:** artea birziklapen elementuekin. Basurama ikerketa, ekoizpen eta kudeaketa kulturalean diharduen kolektibo bat da; 2001 urtetik aurrera, bere azterlan eta ekintzen ardatza ekoizpen-prozesuak, horien eraginez sortzen diren hondakinak eta horien aukera sortzaileak izan dira.
- **Città dell'arte** (F.Pistoletto): proiektu politikoak, sozialak, ingurumenari buruzkoak... artearen bidez.

Cittadellarteren helburua da aldaketa arduratsu bat abiatzea eta bideratzea gizartean, ideia eta proiektu sortzaileen bitartez. Cittadellarte-Pistoletto Fundazioa 1998an eratu zen, Arte Manifesto Proiektuaren aplikazio konkretu bezala; beraren bitartez, Michelangelo Pistoletto artistak rol berri bat proposatzen du artistarentzat: artea zuzeneko elkarreraginean jartzea giza jardueraren alor guztietan.

Urrakortasun, arrisku edo bazterketa egoeran dauden pertsonen kontzientziazioa eta emantzipazioa artearen bidez bultzatu nahi dituzten ekimenak.

- **Teatro del oprimido** (TDO): Augusto Boal. Psikodrama. Antzerki-metodo bat da, Augusto Boal dramaturgo, aktore, zuzendari eta antzerki-pedagogoak 1960eko hamarkadan sistematizatuak. Julián Boalek -Augustoren semeak- beraren teoriei jarraitzen die.

Beraren definizioz onena hauxe izango litzateke: “klase zapalduen eta zapaldu guztien antzerkia da, baita klase horien barnean zapaldua daudenena ere”.

Ez da proiektu bat, baizik eta hainbat proiektu konkretutan mundu osoan -batez ere Latinoamerikan- inplementatzen den metodologia bat.

Esperientziei buruzko hausnarketa eta eztabaidatik planteatutako gai batzuk.

Identifikatutako esperientzietatik abiatuta, horietako askorentzat -edo guztientzat- komunak diren elementu batzuk azaleratu ziren:

- Arte sorkuntzarako eta parte-hartze sozialerako aukera eta tresna bezala kontzeptualizatzen da, ez kontsumo aukera eta tresna bezala (**arte parte-hartze bezala versus arte kontsumo bezala**).
- Bilatzen dena da desgaitasuna duten pertsonak eta urrakortasun, arrisku edo bazterketa sozialeko egoeran dauden beste pertsona batzuk sorkuntza artistikoko **prozesuen protagonistak** izatea, prozesu horiek beren **gaitasunetatik** abiatuta egonda.
- **Askotariko hizkuntza, bitarteko eta diziplina artistikoak erabiltzen dira adierazpen, parte-hartze eta eraldaketa sozialeko tresna bezala.**
- Artearen diziplina horiek **kanal pribilegiatu eta alternatiboak dira bazterketa**, arrisku edo urrakortasun egoeran dauden pertsonen adierazpenerako eta pertsona horiek ingurunearekin komunika daitezten.
- Esperientzia asko eraldaketa behar duten **lurralde eta espazioei** daude lotuta (pertsona guztien beharretara **egokituta ez dauden** hiri-testuinguruak, auzo baztertuak, espetxeak edo osoko instituzioak...).

Desgaitasuna duten pertsonen dagokienez, **personaren protagonismoa eta beraren artista kondizioa indartzeko beharra planteatzen da.**

Hasteko, lortu behar da pertsona agertzea prozesu sortzailearen benetako protagonista bezala. Adibidez, autismoaren kasuan, zailtasunak harreman sozialari lotuta plantatzen dira, eta artea adierazpide eta espazio bat da pertsona azaleratu dadin. Gainera, desgaitasunaren gainetik pertsona dago, eta baita beraren gaitasunak ere, eta hori sorkuntza artistikoko prozesu baten bitartez adierazten da.

Beste alde batetik, gizarte ekintzaren alorrean, badira oso lan ona egiten duten proiektu asko (tailerrak...), baina lan hori atomizatuta dago, izaera asistentziala du eta proiektio publiko eskasa duten espazio “segregatuak” konfiguratuak ditu (bazterketa edo arrisku egoeran dauden pertsonak, desgaitasuna dutenak, buru-osasuneko arazoak dituztenak...).

Espazio horiei beren balioa kendu gabe, ekarpen garrantzitsua egiten dutelako eta sarritan beharrezkoak direlako kolektibo jakin baten beharrei erantzuteko, beste espazio batzuen falta sentitzen da, hots, espazio irekiak, ez-segregatuak eta proiektio handiagokoak.

Norabide beretik, beste eztabaida bat planteatu zen, osagai hauek zituena: alde batetik, artea erabiltzea desgaitasuna duten pertsonen gaitasunak bistaratzeko (sentsibilizazioa, kolektiboaren ikusgaitasun soziala); eta, bestetik, sorkuntza artistikoan duten parte-hartzea normalizatzeko beharra: espazio segregaturik gabe, artista bezala bistaratzu, eta ez desgaitasuna duten pertsonak bezala.

“Ikusgaitasunaz” hitz egiten bada (obraren ikusgaitasuna, kasu honetan bestelako gaitasunak dituzten pertsonen dagokienez), “segregazioa” dagoelako hitz egiten da, hain zuzen ere: pertsona horiek sorkuntza eta ekoizpen kulturalaren prozesutik kanpo daudelako, eta baita hedapen kulturalaren espazioetatik kanpo ere.

Bestelako gaitasunak dituzten artisten sorkuntza eta ekoizpen kulturala bistaratzeko ikuspegitik begiratuta, kontua ez da kolektibo jakin baten edo beste baten obraren erakustaldiak sustatzea (pintura, dantza...).

Eta nolahi ere, presentzia hau -termino hauetan planteatzen bada- ohi ez bezalakoa ez izatea (populazio guztira zuzenduta) eta ohiko zirkuitu kulturetan, normalizatuta, bertakotzea hobe izango litzateke.

Bestalde, era orokorrean (ez soilik zaugarritasun egoeran, arriskuan edo baztertean pertsonaren kasuan), sorrera-prozesuak egitearen eta produktuak, espazio publikoetan erakustearen zailtasuna seinatzen dira, azken kasu honetan lekuak beti ez daude prestaturik edo ez dira egokiak edo benetan irekiak (inklusiboa, sartzen errezak).

Horregatik guztiagatik, ekimen inklusiboak sustatu behar dira:

- bai subjektuen ikuspuntutik, pertsonen parte-hartzea ahalbidetuz (urrakortasun, arrisku edo bazterketa egoeran dauden pertsonak), sorkuntza, ekoizpen eta hedapen kulturalako prozesuetan, beste artista batzuekin batera;¹⁸
- eta bai espazioen ikuspegitik ere, benetan “publikoak” (irekiak) diren espazioak sustatuz, “kultura pribatizatu beharrean”, horrek talde txiki bati soilik eskaintzen diolako bere obra sortzeko, ekoizteko eta hedatzeko aukera.

Espazio egokiak egotearen ikuspuntutik, badira muga handiak bai sorkuntzarako eta bai ekoizpen eta hedapen kulturalerako. Adibidez: erabilera anitzeko aretoak, oztoporik gabe eta leiho, mahai eta aulki gehiegirik gabe... Hau da, beren helbururako espresuki diseinatura: sorkuntza, ekoizpen eta hedapen kulturalako jarduerak gauzatzea, tailer bat egitea, obra erakustea...¹⁹

18 Norabide horretan doazen ekimenen adibide bat “Debajo del sombrero” da.

Kultur etxeek, akademiek eta horrelako erakundeek eskaintzen dituzten jarduerak biztanleria osoarengana zuzentzen dira, baina, batzuetan, taldeak berak dira (jardueretan parte hartzen duten pertsonak) modu homogeneoan eratzen direnak, desberdintzat jotzen dituzten pertsonak zuzeneko edo zeharkako eran segregatuz. Edonola ere, garrantzitsua izango litzateke jarduerak zuzendu eta kudeatzen dituztenek eskumenak izatea ekimenak egokitzeko eta bestelako gaitasun eta beharrak dituzten pertsonak integratzeko.

19 «Kultur etxeen sare paregabea dugu, eta guztiek gustura eskaintzen didate kultur etxea, baina azpiegiturak (obrak lortzeko, erakusteko...) desegokiak izaten dira (hormako saretak, berogailuak, altzariak, espazioak bigarren solairuan...). Horiek dira herriko jendearentzat dauden espazio batzuen ezaugarriak. Espazio garbiak, leunak, oztoporik gabekoak...

Alde batetik, artea adierazpen-tresna bat da -batzuetan, garrantzitsuenetako bat- komunikazio, ikusmen, entzumen, mugikortasun edo gisa bereko zailtasunak dituzten pertsonentzat... autismoa, afasia, buru-osasuneko arazoak... dituzten pertsonentzat.

Hala eta guztiz ere, kultur etxeek, akademiek... ez dituzte onartzen desgaitasuna duten pertsonak, edo ez daude prestatuta haien integrazioa bultzatzeko. Pertsona horiek bestelako hizkuntza baten bitartez bidera dezakete beren adierazpena, hots, hizkuntza artistikoaren bidez, baina ez dago haien gaitasunetara egokitutako kanalik.

Gainera, gogoan izan behar dugu “agian artistok garena beste kolektibo batzuetan integratu behar garenok. Bazterketa, arrisku edo urrakortasun egoeran dauden pertsonen lan artistikoak izugarriko balioa du ikuspuntu batzuetatik, eta baita “egintza artistikoaren arkeologia” bezala. “Artearen mundua”, akademikoa, instituzionala... errealitate horretara hurbildu beharko litzateke, errealitate hori ezagutu eta aitortu beharko luke. Arte garaikidea gaur egun egiten den arte guztia da.

Bukatzeko, **ezagutza falta esanguratsua antzeman zen gizarte ekintzaren eta artearen alorren artean:**

- Proiektu artistikoak bazterketaren eremuan garatzen dituzten pertsonak ez dute elkar ezagutzeari, ez dute kolaboratzen eta ez dute loturarik kulturaren esparruan lan egiten duten eta eraldaketa sozialagatik interesatzen diren erakunde eta pertsonekin.
- Kulturaren edo artearen eremuan aritzen diren pertsonak hobeto ezagutzen dute elkar, baina bazterketaren alorrean gauzatzen ari diren ekimen gehienak ezezagunak dira eurentzat.

4.3. Esku-hartzearen eremu nagusien identifikazioa eta definizioa.

Bloke hau hasteko, esku-hartzearen eremuei buruz egindako lehenengo sailkapena aurkeztu genien pertsona parte-hartzaileei, eremu bakoitzaren deskribapena aurkezteaz batera.

Lehenengo sailkapen eta deskribapen hauek Behatokiko taldeak egin zuen, taldeak berak identifikatu eta hasierako zerrendan sartutako esperientzien azterketa abiapuntutzat hartuta.

Esperientzien laginaren azterketak erakusten du askotariko ekimenak daudela, eta ekimen horiek irizpide batzuen arabera sailka daitezkeela: kolektiboen arabera, diziplina artistikoen arabera, helburuen arabera, eta abar.

Gure kasuan, erabaki dugu esperientziak helburuen arabera sailkatzea; izan ere, gure ustez, helburuek esku-hartze eremuak itxuratzen dituzte eta bidea ematen dute galdera honi erantzuteko: zer bilatzen da honelako proiektuak bultzatzean? edo, bestela esanda, nola lagundu ote dezake arteak inklusio sozialeko prozesuak sustatzeko, ikuspegi eraldatzaile batetik?

“arte garaikidearentzat” izan ohi dira».

Esaten da, beste alde batetik, kultur etxe batzuk larunbat eta igandeetan ixten dituztela. Eta, azkenik, garrantzitsua dela beraren zuzendariaren jarrera ere: “batzuek eskerrak emateko deitzen dizute, egindako erakusketagatik; beste batzuek, berriz, egiten duten gauza bakarra da erakusketa amaitu ondoren aretotik pasatu, ea kalteren bat gertatu den ikusteko”.

Aukeraketa hori egitea lagungarria zaigu jarduera-eremua definitzeko; halaber, lagungarria da definitzeko zer onurak ekartzen dituen horrelako proiektuak bultzatzeak, zer ekarpen sozial egiten duen. Hala, gure ustez hori hobea da sailkapena proiektuen hartzaileen arabera egitea baino (desgaitasuna duten pertsonak, bazterketa egoeran daudenak...) edo diziplina artistikoen arabera egitea baino. Kontuan hartu behar da pertsona hartzaile berberekin askotariko helburuak bila daitezkeela, eta hori hainbat diziplinaren bidez egin daitezkeela.

Saioetan parte hartu zuten pertsonak:

- Balidatu egin zituzten bertan proposatutako esku-hartze eremu guztiak, eta beste bat gehitu zuten: jarduera eta gauzak egiteko modua birpentsatzea/birplanteatzea, eta gauza bera egitea gizarte ekintzako erakundeen antolaketarekin, artistekiko lankidetzan proiektuen bitartez (“erakunde-eraldaketaren eremua”).

Pertsona batek planteatu zuen horrelako esperientziak “erakundeen sendotze sortzaile” bezala definitu zitezkeela. Edonola ere, komenigarria da azpimarratzea haien asmoa dela birpentsatzea bai erakundeen antolaketara eta bai haien jarduera eta jardunbideak.

- Beste alde batetik, aipatu zen beharrezkoa zela ikuspegi artistikoa esku-hartze sozialeko proiektuetan txertatzea, diziplina arteko lan testuinguru batean, diziplina artistikoen erabilera bultzatuz inklusio sozialaren helburuak lortzeko -eta baita sentsibilizazioa eta gisa bereko helburuak ere-, artisten eta esku-hartze sozialaren alorreko profesionalen arteko elkarlanetik abiatuta. Dena dela, kontsideratzen da hori zeharkakotasunez indartu nahi den ikuspegi bat dela, jarduera-eremu bat izan beharrean.
- Bukatzeko, esan zuten ekimen edo proiektu berberak eragina izan dezakeela eremu batean baino gehiagotan (“helburua”).²⁰
- Eta, halaber, proiektuek eboluzionatu dezaketela eta eremu berriak bereganatu, edo beste eremu horiek bizi propioa har dezaketela, proiektua abiatu zuen erakundetik kanpo. Hala, adibidez, prestakuntza proiektu bat enplegu proiektua izatera pasa daiteke, lehenengotik abiatuta baina independentzia hartuta.

Esku-hartzearen eremu nagusiak

Identifikatutako proiektuen ekarpenari begiratu (ekarpen pertsonala, soziala, erakundearena...), jarduera edo esku-hartze eremu batzuk bereizi ditzakegu; horiek, nolabait, bidea ematen digute inklusio soziala artearen bidez sustatzeko formak kategorizatzeke.



²⁰ Izatez, identifikatutako proiektu asko asmo bat baino gehiago integratzen dituzte, nahiz eta, sarritan, esku-hartzearen eremu bat gainerakoek gainetik nabarmendu ohi den.

Honako hauek dira.

Garapen pertsonalaren eta ongizatearen eremua	Sentsibilizazioaren eta salaketaren eremua	Sorkuntza-lanak eta ekoizpen kulturalak bistaratzeko eremua	Parte-hartze soziala sustatzeko eremua
Emplegu eta okupaziora iristeko eremua	Harremanak sustatzeko eremua	Prestakuntzaren, ezagutzara iristearen eta gaitasun artistikoen garapenaren eremua	Adierazpen artistikoaren sustapenaren eremua
Espazioaren eraldaketa eta hobekuntzaren eremua (hirikoa, tokikoa, publikoa...)	Baliabideak eskuratzeko eta artearen bidez finantzatzeko eremua	Erakunde-ereldaketaren eremua	

Garapen pertsonalaren eta ongizatearen eremua

- Barne hartzen ditu, besteak beste, ekintza terapeutikoa (gatazkak tratatzea, autoestimua eta motibazioaren sustapena...) eta adierazpena artearen bidez sustatzera zuzendutako proiektuak, beraren askotariko alderdietan, garapen pertsonalaren eta ongizatearen tresna gisa.
- Adibideak:
 - Pertsona autistekin garatutako pintura proiektuak; beren helburu nagusia komunikazio eta adierazpen bide bat garatzea da.
 - Antzerki-proiektuak kaleko haurrekin; lantzen den alderdi nagusia da bizi duten errealitateak planteatzen dizkien gatazkak eta sufrimendua tratatzea, antzerki-obra bat antzetzearen bitartez.
- Philippe Pascal espazioa, Fidias Fundazioaren proiektua edo “osoko instituzioetan” (espetxea ²¹, ospitale psikiatrikoak...) egiten diren proiektu asko ere esku-hartzearen eremu honetan sartuko lirake.

Beste alde batetik, berehala azalduko den bezala, adierazpen artistikoa pertsona zaintzaileak (senideak, boluntarioak, profesionalak) zaintzeko eremu bat ere izan daiteke, eta baita gizarte ekintzaren alorreko erakundeak hobetzeko ere (harremana, giroa, sorkuntza eta berrikuntza jarrearen garapena...).

²¹ Berehala aipatuko dugun El Borda Ospitalearen proiektua, aldiz, ez da hor sartzen.

Sentsibilizazioaren eta salaketaren eremua

- Sentsibilizazioa eta salaketa (estigmararen eta arrazakeriaren aurka borrokatzea...), zenbait diziplina artistikoren bidez; horren protagonistak, kasu batzuetan, bazterketa, arrisku edo urrakortasun egoeran dauden pertsonak berak dira.
- Adibideak:
 - “El Frente de Artistas del Borda” 1984 urtearen amaieran sortutako esperientzia bat da, El Borda Ospitaleko artistek -barnean eta kanpoan zeudenak- abiatua; beraren asmoa da artea salaketa eta eraldaketa sozialeko tresna gisa erabiltzea, ekoizpen artistikoen bidez lotura bat sortu ahal izateko gizartearekin. “Frontera joan”, irteteko arriskua hartu, zoramenari buruzko imaginario soziala kuestionatuz.
 - “Canal accesible”: desgaitasuna duten berrogei pertsonak kaleetan aurkitutako oztopen argazkiak egin zituzten telefono mugikorrez; gero, multimedia mezuak bidaliz, Bartzelona iritsiezinararen kartografia irudikatu zuten Interneten.
- Identibuz edo Habla proiektuak ere eremu horretan sartuko lirateke, balioei buruzko sentsibilizazio eta hezkuntzarako beste proiektu batzuekin, horietako batzuk bazterketa egoera edo arriskuan dauden pertsonen protagonizatuta (Hortzmuga, Trukeme, Munduko Txokoa, sentsibilizatzerazuzendutako bideo-jokoak egitea,...).

Sorkuntza-lanak eta ekoizpen kulturalak bistartzeko eremua

- Normalean hedapen kulturalaren zirkuluetatik eta ondasun kulturalen merkatutik urrun egoten diren pertsona eta kolektiboen sorkuntza eta ekoizpen artistikoak bistartzea.
- Adibidez:
 - Adierazpen kulturala ahalduzuzeko eta sendotuzeko programa (tailerra, postalak, bideoa, erakusketa...), pertsona immigranteek eginda; 2007an asmatu eta 2008an gauzatu zen, Harresiak Apurtuz-Euskadiko Immigranteei Laguntzuzeko GKEen Koordinakundeak gidatuta.

Ekimen honen bidez, pertsona immigranteek hainbat diziplina artistikoren baitan egindako produktu artistiko eta kulturalak bistartu nahi dira, eta, horrekin batera, lankidetzaz eta lan bateratuz harremanak sortu jarduera hori garatzen duten erakunde sozialekin.
- Desgaitasuna duten pertsonen sorkuntza eta ekoizpen kulturala bistartzea ahalbidetzen duten proiektu horiek (argazki-proiektua pertsona itsuekin, Verdini Dantza Taldea, Quick, Artismo...) eremu honen barnean sartuko lirateke; izan ere, sorkuntza edo ekoizpen artistikoa sustatzen dute eta haien erakusketa bermatzen dute eszenatoki, galeria eta beste hedapen-esparru batzuetan.

Parte-hartze soziala sustatzeko eremua

- Pertsona eta kolektiboen parte-hartze sozialaren sustapena, beren gaitasunak bideratzea eta garatzea ahalbidetzen dieten proiektu edo jarduera artistikoen bidez.
- Adibidez:
 - “Voluntarios Culturales Mayores” - Adineko Kultur Boluntarioak- programaren eginkizuna da ondo prestatutako pertsona nagusiek Museoak eta Ondare Historiko-Artistiko espainiarra erakustea, beren borondatez eta modu altruistan, haurrei, ikasle gazteei, adineko pertsoneri eta erretiratuen taldeei.²²

Enplegu eta okupaziora iristeko eremua

- Enplegurako aukerak sortzea, ondasun kulturalen ekoizpenaren bidez eta/edo adierazpen artistikoaren munduarekin zerikusia duten jardueren bidez.
- Adibidez:
 - Creative Future ongintzako erakunde bat da, pertsona baztertuei gizarteratzeko aukera eskaintzen diena, beren talentuen bitartez, artista eta idazleentzako prestakuntza (hasierako maila eta maila aurreratua) eta laguntzaren bidez; horrek bidea ematen die, gainera, beren lana erakusteko eta argitaratzeko.
- “Debajo del sombrero” ere alor honetan sartuko litzateke, artistei enplegura iristeko bidea benetan irekitzen dien neurrian; horrez gain, berehala azalduko dugunez, bestelako gaitasunak dituzten artistei irekitako proiektu artistikoen adibide bat ere bada. Eremu honetan sartuko lirateke, halaber, bazterketa, arrisku edo urrakortasun egoeran dauden pertsonak jarduera artistikoetan prestatzera zuzendutako proiektuak.

Harremanak sustatzeko eremua

- Isolamendu sozialeko egoeran dauden pertsonen harremanak sustatzea (harremanetarako trebakuntza, irekitasuna, konfiantza...), pertsona desberdinen arteko topaketa eta elkarreragina sustatzeaz batera, proiektu edo jarduera artistikoen bidez.
- Adibideak: Topaleku edo Sarea Taberna moduko proiektuak eremu honetan sartuko lirateke; dena dela, Sarea Tabernaren kasuan, esparru kultural bat ere sortu nahi da espresuki, bazterketako hiri-testuinguru batean.
- Eremu honetan sartuko lirateke, orobat, Goiztiriren proiektua (gazteek eta gazteentzat egindako antzerkia, kulturartekotasuna sustatzeko), Kalé Dor Kayikören txalo ikastaroa eta Munduko Emakumeen tailerrak.

²² Horrelako ekimenetan, kontuz ibili behar da lan profesionalik tartean ez sartzeko.

Prestakuntzaren, ezagutzara iristearen eta gaitasun artistikoen garapeneren eremua

- Pertsonen gaikuntza eta trebakuntza, bai adierazpenaren eta artearen alorrean eta bai giza mailan, proiektu artistikoen bidez.

Eremu honetan, helburua da diziplina artistiko batzuetara iristeko lehenengo atea irekitzea pertsona eta kolektiboek; era horretan, artea hurbiltze zaie pertsona guztiei, horrek dakartzan ondasun guztiekin (ondasun kulturalak eta garapen pertsonalaren ondasunak). Beraz, hemen hedapen kulturalako proiektu jakin batzuk sartuko lirateke.

- Adibidez:
 - Zenbait diziplina artistikotan trebatzeko tailerrak, bisita gidatuak, kulturaren munduko pertsonak hurbiltzea bazterketa, arrisku edo urrakortasun egoeran dauden pertsonengana eta beren testuinguruetara.
- Eremu honetan sartuko lirateke, halaber, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren eta FEVASen proiektua, hedapen kulturalako proiektu bat ere baita, eta gaitasun artistikoak garatzera zuzendutako tailerrak.

Adierazpen artistikoaren sustapeneren eremua

- Adierazpen artistikorako eta gaitasunen garapenerako aukerak sortzea (espazioak, proiektuak...) bazterketa egoera edo arriskuan dauden pertsonentzat.

Ez dira hedapenerako, sarbiderako edo gaitasunen garapenerako proiektuak, ezta okupaziora edo enplegura espresuki zuzendutako proiektu edo espazioak ere. Eremu honetan sartuko lirateke komunitatean integratutako eta berari irekitako proiektu artistikoak, bestelako egoeretan dauden edo bestelako gaitasunak dituzten pertsonen inklusioa errazten dutenak.

- Adibidez:: 104 Paris proiektua, Le Laboratoire d'aubervillers edo Artibarri gisa horretako proiektuak izango lirateke. Eta "Debajo del sombrero" ere bai.

Espazioaren eraldaketa eta hobekuntzaren eremua (hirikoa, tokikoa, publikoa...)

- Espazio fisiko bat, lurralde bat, azpiegitura bat... hobetzea, esku-hartze artistikoen bidez..

- Adibidez:

- <http://www.6emeia.com/sobre.php>. Bikote honek hiri-altzariarekin zerikusia duten jarduerak gauzatzen ditu (estolderia, zutoinak,...) bai hiri-espazioa eraldatzeko xedez eta bai beraren inguruko hausnarketa egiteko eta berari buruzko ikuspegia aldatzeko xedez.

Eremu honetan sartuko lirateke, adibidez, espazioak (hirikoak) eraldatzeko eta pertsona guztien beharretara egokitzeko proiektuak, hala nola, haurren hiria; sartuko lirateke, halaber, hiri-espazioa esku-hartze artistikoen bidez eraldatzeko proiektuak, bazterketa testuinguruetan, elkarbizitzarako espazio atseginak sortzera zuzendutakoak.

Baliabideak eskuratzeko eta artearen bidez finantzatzeko eremuak

- Finantziarioa eta baliabideak eskuratzeko, inklusio ekimenak garatzeko.
- *Adibidez:*
 - DuranWOP. Musika, kirola, antzerkia, magia eta hogeiki ekintza baino gehiago Durangon biltzen dituen jaialdi bat, goi mailako artistekin, familia osoarekin gozatzeko asmatua. Adrenoleukodistrofia diagnostikatu zioten haur baten gurasoek eta beraren inguru hurbilekoek bultzatutako ekimen bat da. Proiektua irabazi-asmorik gabeko elkarte bezala eratu zen, The Walk On Project, eta oso helburu garbiak hartu ditu: funtsak biltzea gaixotasun neuro-degeneratiboen ikerketarako, jarduera kultural eta musikalen bitartez.
- Funtsak biltzera zuzendutako folklore jaialdiak edo erakusketak ere horrelako proiektuen adibideak izango lirarteke.

Erakunde-eraldaketaren eremua

- Gizarte ekintzaren alorreko erakunde eta instituzioen jarduera eta gauzak egiteko moduak birpentsatzea/birplantatzea, eta baita beren antolaketa ere, artistekin batera landutako proiektuen bitartez.

- *Adibidez:*

Conexiones improbables (www.conexionesimprobables.es) kolaborazio-ikerketak eta ko-sorkuntzako ekimenen komunitate bat da, berrikuntza eta erantzukizun sozialerako.

Oinarriztat hartzen ditu berrikuntza irekiaren paradigmatik eta esparruen, diziplinen eta pertsona desberdinen arteko elkargunearen printzipioak. Arteak, pentsamendua, zientzia, enpresa eta gobernantza konektatzen ditu, era guztietako erakundeen beharrei buruzko galdera eta erantzun berriak bilatuz.

Nortzuek parte hartu al dezakete? Enpresek, ezagutza zentroek (oinarrizko ikerketako edo ikerketa aplikatutako zentroak, unibertsitateak, eta abar), fundazioek/izaera sozialeko erakundeek, administrazio publikoek ...

Zertarako? Bestelako erreferentziak eta metodologiak dituzten profesionalak lan taldean txertatzeko, aldi baterako -kasu honetan, artistak edo gizarte zientzien alorreko pentsalariak-, ko-ikerkuntzako eta ko-sorkuntzako prozesuen jarraipena aprobetxatzeko.

5. Testuingurua aztertuz.

5.1. Mapen bidezko irudikapena.

Parte-hartzaileen ikuspuntutik esanguratsuak ziren proiektuen identifikazioari esker, esku-hartzearen eremua mugatu ahal izan dugu, hasiera batez.

Identifikazio hori egin ondoren, horrelako proiektuak egiteko zeuden oztupoak eta aukerak identifikatzeko eskatu genien pertsona parte-hartzaileei, haien zuzeneko esperientzia eta hirugarrenen ekimenen ezagutza kontuan hartuta.

Taldeka lan egin ostean, hauxe planteatu genien eratutako hiru taldeei: talde bakoitzak esku-hartzearen espazioaz zeukan pertzepzioa irudikatu zezala, eta baita espazio horren inguruan zuen ikusmoldea eta oztupo eta aukerei buruz egiten zuen azterketa ere, mapen bitartez.

Horretarako, zenbait material eskaini genizkien (puxikak, gometxak, plastilinak, eraikuntzako materialak, errotuladoreak, pintzelak, gomak, eta abar), eta talde bakoitzari eskatu genion bere ikuspegia jaso zezala irudikapen grafiko baten bitartez (mapa), talde bakoitzak nahi zuen formaz eta materialez eginda.

Dinamika horretaz baliatuz, hiru eduki mota jaso ahal izan ditugu: proiektuak planteatzerakoan dauden oztupoak, aukerak eta funtsezko gakoak.

Orain, deskribapen moduan, mapa bakoitzaren elementu nagusiak aurkeztuko ditugu, eta horren ostean oztupo eta aukeren zerrenda bateratuak.

Geroago, modu sistematikoan, mapen aurkezpenetik eta horren osteko eztabaidatik ateratako gakoak aurkeztuko ditugu.

1. Mapa



Mapa espazioen arabera egituratu da:

- *Lehenengo espazioa*, erdian kokatua; bertan, pertsona hartzaileak eta haien gaitasunak jarri dira. Giza irudiak eta puxikek pertsona hartzaileak irudikatzen dituzte, eta komunikazioaren organo batzuek ere irudikatu dira (begiak, ezpainak, eskuak...), beren gaitasunen ikur bezala.
- *Bigarren espazioa*, ezkerren goiko partean kokatua; bertan, euskarri edo sostenguak islatzen dira: familia eta elkartea dira euskarri kolektibo nagusiak. Eta, zehazki, pertsona hartzaileei laguntzen dien profesionala (edo boluntarioa)(pertsona hori puztutako eskularru batez irudikatzen da: “eskua laguntzeko luzatzen duen pertsona”). Azkenik, baliabide ekonomikoak irudikatzen dira (dolarraren ikurrarekin).
- *Hirugarren espazioa*, eskuinaren goiko partean kokatua; bertan, oztopoak islatu dira, idatziz, honako hauek aipatuz:
 - Dibergentziarekiko beldurra (soziala eta pertsonala).
 - Balio sozialen irauketa.
 - “BPG” Pentsaera (ondasunak sortzen dituen da garrantzitsua, hots, aberastasun materiala).
 - Kultura homogeneizatzailea.
 - Arauak ezartzen dituzten espazioak versus espazio egokituak (“normalizatuak”).
 - Ekonomia pribatua versus ongizate publikora zuzendutako ekonomia publikoa.
 - Ezagutzarik eza (informaziorik eza).
 - Arteari buruzko ideia “arruntak” (gutxi batzuentzat soilik, produktuei lotuta, horretarako balio behar da / jaio behar da...)
- *Laugarren espazioa*, ezkerren beheko partean eta erdian kokatua: integrazioaren eta inklusioaren arteko desberdintasuna islatzen du.

Integrazioa prozesu bezala irudikatzen da, izaera lauagoa edo linealagoa baitu; noranzko bakarra duen gezi batez irudikatzen da, eta ezarritako kanonak errepikatzen orientatzen da.

Inklusioak, berriz, hauxe dakar berekin:

a) pertsonak –artistak– ibilbide bat egin dezake (prestakuntza, sorkuntza / ekoizpena, hedapena...), eta, hala dagokionean, baliabideei lotutako bide bat ere, espazio normalizatueta iritsiz -hori baliabideak lotzen dituzten puntuen bidez irudikatzen da-;

b) pertsonarekin eta baliabideen artean erlazionatzeko modu desberdin bat, sarean lan eginez (baliabideak elkarrekin lotzen dituen soka baten bidez irudikatzen da), sorkuntza eta inklusio espazio berriak sortzeko.

- *Bosgarren espazioa*, beheko eskuinaldean kokatua; bertan islatu dira, idatziz, ekimen eta proiektu artistikoak garatzen dituzten edo garatzea ahalbidetu dezaketen baliabide edo espazio batzuk: etxea, Arte garaikideko museoa, eskola, udaletxea, elkarlearen egoitza, kultur etxea, Aldundia, espetxea, osasun zentroa.

- *Lehenengo espazioari dagokionez*, adierazten da pertsona hartzaileak erdian kokatu behar direla (maparen eta esku-hartzearen erdian, hain zuzen ere).

Esaten denez, pertsonak ardatz bezala izateak “profesional hobeia izatera eramaten zaitu”, eta pertsonak erdigunean jartzea bete beharreko baldintza da esku-hartzearentzat. Pertsona hartzaileak, beren gaitasunak abiatuz eta garatuz, sorkuntza artistikoko prozesuen funtsezko protagonistak izan behar dira.

- *Euskarriei dagokionez*, kontsideratzen da familia - eta beste pertsona hurbil batzuk- eta pertsona hartzaileen erakundeak pertsonaren eta esku-hartzearen zutabe eta euskarri nagusiak izaten direla.

Familia funtsezko euskarria -edo oztopoa- izaten da. Bere kideen gaitasunen identifikazio, aitortza (balorapen positiboa) eta bultzadari buruz duen jarrera funtsezkoa da, eta hori desgaitasuna, buru-osasuneko arazoak eta horrelakoak dituzten pertsonen gaitasun artistikoen kasuan ere gertatzen da.

Elkarreak ere garrantzi handiko euskarriak dira. Eta, alde horretatik, garrantzitsua da proiektu artistikoei buruz duten ezagutza hobetzea; hobetu behar da, halaber, bazterketa, arrisku edo urrakortasun egoeran dauden pertsonen inklusio sozialari proiektu horiek egin diezaioketen ekarpenaren balorapena.

Azpmarratzen da, orobat, profesionalen garrantzia, beren inplikazio eta konpromisoaren garrantzia (“ez dezatela ikusi diru-iturri bezala soilik, edo lanpostu edo lan aukera huts bezala”). Normalean, horrelako ekimenak bultzatzen dituztenak pertsona konprometituak izaten dira, artearekin eta sorkuntza-prozesuarekin motibatutako pertsonak, eta baita esku-hartze sozialarekin eta laguntza ematen dieten pertsonen garapen pertsonalarekin ere motibatutakoak. Batzuetan, urrakortasun, arrisku edo bazterketa egoeran dagoen pertsona batekin duten bizipen edo harreman pertsonala da beren motibazioaren iturria.

Horrez gain, bereziki azpmarratzen da zaintza pertsonalaren beharra, batzuetan oso errealitate gogorrek ere bizi dituzten pertsonen lagunduz lan egiten denean. Aipatzen da gabezia bat nabaritzen dela zaintzaren alorrean -bai kanpoko zaintzan eta bai norberaren zaintzan-, eta azpmarratzen da pertsona zaintzailea zaintzeak duen garrantzia (“zaintzen duenak bere burua ere zaindu behar du”).

Illo beretik, esaten da “erakundeak pertsonak garela” eta garrantzitsua dela pertsonak zaintzea.

Ondorengo eztabaidan, pertsonak -profesionalak, boluntarioak, senideak...- zaintzeko tresnak garatzeko beharra planteatu zen zehazki. Planteatu zen, orobat, artea (jolasa, irudikapen sinbolikoa, jarduera artistikoak, erakundetik kanpoko artistekiko elkarreragina eta kontrastea, sormenaren garapena, eta abar) hobekuntzarako tresna bat izan daitekeela gizarte ekintzaren alorreko erakundeentzat eta pertsonen zaintzearentzat: gozamina, adierazpena, harremana, berrikuntza... bultzatzea.

Illo beretik, inklusioaren aldeko artearekin zerikusia duten proiektuak bultzatzeko, badirudi garrantzitsua dela alor sozialean lan egiten dutenen gaitasun artistikoak garatzea, horrelako proiektuen potentzialtasun ugariak ekartzeko. Horri dagokionez, gizarte ekintzaren alorreko erakundeek esperientzia mardula dute metatuta, eta, beraz, egokia izango litzateke esperientzia hori konpartitzea.

Gainera, gizarte ekintzaren alorrean, funtsezkoa da pentsaera sortzailea garatzea, pertsona eta erakunde gaitasun bezala. Erakunde esku-hartzea beren lanaren xede diren pertsonen ezaugarrietara egokitzeko (ez da gauza bera, adibidez, antzerki-tailer bat hurrekin egitea eta nerabeekin egitea), oso garrantzitsua da erakundearen jardura birpentsatzea, behar sozialentzako erantzun berriak bultzatzea... “bestelako modu batez pentsatu, topikoetatik atera”.

Bukatzeko, euskarri dagokienez, gabezia bat antzematen da horrelako ekimenen finantziazioan. Baliabide ekonomikoak oso garrantzitsuak dira, bestela ezinezkoa delako proiektuak aurrera eramatea, baina ez dira euskarri funtsezkoena. Edozein kasutan, “bigarren postuan daude garrantzi aldetik”. Euskarri garrantzitsuenak pertsonak dira.

- *Inklusioari eta baliabideen arteko erlazio ereduari dagokienez*, planteatzen den arazoa da nola lortu ote daitekeen inklusioa, baldin eta lan egiteko eredu baztertzaila bada berez, espazio segregatuak sortzen baditu...

Egoera hori aldatzeko, badirudi beharrezkoa dela baliabideen arteko erlazioa birdefinizioa, subjektu eta espazioei buruzko proiektu inklusiboak sortuz, lehen aipatutako norabidean, eta elkarlanean aurrera egitea.

Alde horretatik, behar hauek ere planteatzen dira:

- deribazioak indartzea gizarte ekintzaren alorreko erakunde artean, eta baita erakunde artistiko edo kulturaletara zuzendutakoak ere; era horretan, ibilbideak egitea ahalbidetzen zaie pertsonari, jatorriko erakundeak baliabide nahikorik ez duenean;
- zirkuitu normalizatuera zuzendutako deribazioak bultzatzea (kultur etxeak, akademiak, hedapen-espazio arruntak...), hori posible denean eta pertsonaren prozesuaren ikuspuntutik egokia denean;
- lankidetzak bultzatzea (erakunde sozialen artean, instituzioekin...), horren bidez sustatzeko bai proiektu inklusiboak eta bai desberdinen arteko topaketak, espazio eta proiektu ez-segregatuak;
- bestelako gaitasunak dituzten artistekin eta bestelako egoeretan garatu daitezkeen proiektuak identifikatzea (desgaitasuna duten pertsonak eta desgaitasunik gabekoak, bazterketa egoera edo arriskuan daudenak eta horrelako egoeran ez daudenak);
- espazio fisikoak konpartitzea (prestakuntza zentroak, sorkuntza zentroak, hedapen espazio normalizatuak,...);
- proiektuak, laguntzako baliabideei buruzko informazioa, metodologiak, ikerketak eta gisa berekoak konpartitzea, proiektu artistikoak eta inklusioa bultzatzera zuzendutako proiektu artistikoak alor sozialean bultzatzen ari diren edo bultzatzeko interesa duten erakunde, instituzio eta profesionalen artean;
- eta, zehazki, gizartearen alorrean eta alor artistiko edo kulturean diharduten erakundeen arteko elkarreragina indartzea.



Pertsonen joan-etorriak ere -proiektu edo erakunde batetik bestera- aukera bat dira: ekimenak konpartitzeko eta lankidetzak indartzeko, baliabide, espazio eta proiektuen inguruan...

2. Mapa




CLAVES

Ebullición de ideas
 Recuperación de espacios
 A pie de calle
 Deseos, retos, necesidades
 Ligereza y flexibilidad de proyectos



NECESIDADES

Información
 (oportunidades, becas, subvenciones, buenas prácticas)
 Financiación
 Búsqueda de recursos



Kasu honetan, mapa emakume baten gorputzaren forma hartzen du; horren bidez, sinbolizatu nahi du esku-hartzeen benetako protagonista pertsona izaten dela, eta pertsona dela inklusio soziala sustatzera zuzendutako proiektu eta ekimen artistikoen abiapuntua eta horizontea.

Baliabide nagusia ideiak eta pertsonen gaitasunak dira. Burua eta burmuina sormenaren lekua dira: hortik sortzen dira (burutik sortzen diren puntu gorriez irudikatuak), gero izaera arin eta malguko (kotoia) ekimen eta proiektu bihurtuko diren ideiak.

Irribarreak islatu nahi du prozesu sortzaile orok behar duen baikortasuna.

Bihotzean pertsona hartzaileen nahiak, beharrak, erronkak... irudikatzen dira; izan ere, pertsona horiek proiektu eta ekimenen motorra eta abiapuntua izan behar dira.

Baliabideak altzoan kokatu dira; horren erdian, pertsona bat kokatu da berriz, eta espazio ireki bat sortzen da (plaza bat). Era horretan, adierazi nahi izan da proiektuak eta baliabideak “kalean bertan” kokatu behar direla, hau da, jendearen eskura, beren inguruneari lotuta eta oinarritik landuta, pertsonen kulturara eta adierazpen artistikora iristeko bidea emanez. Eta “espazio publikoaren” ideia, pertsonarengana orientatutako eta pertsona guztien parte-hartzera irekitako espazio bezala, inor baztertu gabe.

Besoetan, zurezko blokeen bidez, erabilerarik gabe dauden espazioak irudikatu dira; adierazi nahi da espazio horiek berreskuratu eta egokitu behar direla sorkuntza artistikoko proiektu eta ekimenak abiatzeko, hots, proiektu eta ekimen irekiak, pluralak eta polibalenteak... abiatzeko (segregaziorik gabe).

Eta baliabideak elkarrekin lotzen dituzten puntu urdinen bidez, pertsonen eta baliabideen arteko elkarlanaren garrantzia sinbolizatu nahi da, hau da, ekimenen garapenerako horrek duen garrantzia.


Bukatzeko, behean, informazioa eta baliabide ekonomikoak irudikatzen dira (gometxen bidez irudikatzen dira, txanpon formaz), proiektuen oinarri material bezala.

Esku-hartzearen **gako** bezala, hauek aipatzen dira:

- ideiak sortzeko eta abian jartzeko gaitasuna, pertsonen aldetik eta laguntzen dietenen aldetik;
- espazioak berreskuratzea (degradatutako edo aprobetxatu gabeko hiri-espazioak, erabilerarik gabe geratu diren azpiegiturak);
- kalean bertan lan egitea, oinarritik eta inguruneari lotuta;
- pertsonen behar, nahi eta erronkak kontsideratzea, esku-hartzearen abiapuntu bezala;
- eta, azkenik, proiektuek izan beharko lituzketen malgutasuna eta arintasuna (helburu batzuetatik beste batzuetara eboluzionatzeko aukera, pertsona berriak inplikatu ahal izatea...).

Beharren artean, berriz, hauek aipatzen dira: aukera, beka, diru-laguntza, jardunbide egoki eta horrelakoei buruzko informazioa; eta, halaber, finantziarioa eta, oro har, era guztietako baliabideak (pertsonak, lokalak, baliabide ekonomikoak) bilatzeko laguntza izatea (bitartekotza...).

3. Mapa



Kasu honetan, mapa elementu berezietatik abiatuta eraiki da, baina elementu horiek elkarrekin lotzen dira azkenean, prekariotzat jo daitekeen testuinguru batean, hau da, pil-pilean eta modu partzialan soilik konektatuta dagoen testuinguru batean...

Hala, mapa irudikatzeak eta gero berarekin bola bat egiteak, talde handiak ireki eta interpretatu dezan (zimurtu, deseraiki, berreraiki), esanahi hau ere izan dezake:

- a) Inklusio soziala sustatzera zuzendutako ekimen eta proiektuak egiten diren testuinguruaren aldakortasuna. Aukerak ez dira finkoak, etengabe mugitzen dira, "gaur aukera dena, agian bihar ez da aukera izango".
- b) Eta jakin-mina eta elkarlana, ekimen eta proiektuen motor bezala. Beharrezkoa da "bola irekitzeko", bai banakako eta taldekako sorkuntza prozesuetan eta bai mapa egitera eta interpretatzera daraman sorkuntza kolektiboko prozesuan.

Elementuen deskribapena:

- Pertsonak, kortxoak bidez irudikatuta, - eta elkarteak edo pertsonen taldeak, sarean (zerrenda koloredunen bidez irudikatuta) - erdian kokatzen dira hemen ere. Pertsonak, banakako moduan eta kolektiboki, ekimenen protagonistak dira, eta beren gaitasunak dira baliabide nagusia.
- Bihotz bat irudikatzen da: desioen mundua adierazten du, eta baita desioek sorkuntzarako duten indarra ere bai.

Eta zauritutako bihotz bat ere (bihotz oso bat dela adierazten da): honek sinbolizatzen du mugak eta sufrimenduak ezartzen dituzten bizipenek prozesu sortzaileen motor bezala jokatzeko duten rola; adierazten du, halaber, prozesu sortzaileak lagungarriak izan daitezkeela beraren adierazpenerako.

- Artearen funtzioa begiaren bitartez irudikatzen da: begirada sortzaile eta askotarikoa eskaintzen du, neurri batean barrutik eta neurri batean kanpotik, errealitateari buruz, prozesuei buruz, agertoki alternatiboetarako buruz,...
- Kotoiek diziplina artistikoak irudikatzen dituzte, eta baita diziplina horiek eskaintzen dituzten aukerak ere; hainbat motatako proiekturen bidez kanalizatu daitezke, hainbat espaziotan.

- Oinez ibilbide bat egiteko beharra irudikatzen dute, bide bat egiteko beharra, bai inklusio sozialarentzat eta bai sorkuntza prozesuan bertan.
- Denbora, ordu-zonak dituen puxika baten bidez irudikatua, funtsezkoa da lan sortzailearentzat²³ eta horrelako proiektuak bultzatzeko, aldi berean zaintza eta prozesuentzako arreta eskatzen baitituzte; gainera, proiektuen garapenaren oztopo nagusietako bat da.
- Baliabide ekonomikoak ere ekimen eta proiektuen garapena baldintzatzen duten elementu bat dira.

Esku-hartzearen **gako** nagusien artean, prozesuaren garrantzia eta beraren zaintza aipatzen dira. Esaten da, azken batean, garrantzitsua dela pertsonak adierazpenerako ahalmena izatea, beren gaitasunak garatu ahal izatea, beren ikuspegiak zabaldu ahal izatea eta beren obraren eta beren errealitatearen protagonista izatea, hau da, azken batean, beren bizitzaren protagonista. Arteak horrelako prozesuak errazten ditu, helburu horiek lortzeko tresna pribilegiatua da, era guztietako pertsona eta kolektiboekin.

Halaber, edozein motatako proiektuak garatzea ahalbidetzen duten baliabide nagusien artean, elkarlana, enpatia eta jakin-mina ere identifikatzen dira. Eta diziplina arteko lana, artisten eta esku-hartze sozialaren alorreko profesionalen artean, horrelako proiektuak bultzatzeko.

Aukerei dagokienez, hauexek aipatzen dira:

- Pertsonak proiektuen motor nagusi bezala.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak.
- Krisia, mendetasun instituzionala murrizteko eta beste laguntza-linea batzuei irekitzeko aukera bezala (mezenasgoa, erantzukizun sozialeko proiektuak, berrikuntzarako laguntza eta baliabideak, kolaborazio-finantziak...).
- Bazterketa/inklusio sozialaren alorreko deialdi/diru-laguntzetara iristeko aukera, eta, aldi berean, arte, kultura edo berrikuntzarekin zerikusia dutenetara iristeko aukera. Gainera, badira deialdiak, espazio horien elkargunean kokatzen diren ekimenei laguntzera zuzentzen direnak.
- Laguntza eta elkarlana non behar dugun detektatzeko dugun ezintasunaz jabetzea (ezintasuna aukeraren espazio bezala).
- Harreman sareak funtsezko elementu bezala, bai proiektuak egiteko eta bai ideiak definitzeko, era guztietako baliabideetara iristeko, eta abar.

Bukatzeko, aipatu izan den bezala, **oztopo** esanguratsuenetako bat denborarik eza da. Prozesu sortzaile eta hezitzaileek behar duten denbora da ondasun urrietako bat, bai prozesuen protagonista edo laguntzaile diren pertsonen kasuen eta bai erakundeen kasuan.

Beste oztopo bat erreferentziatzeko pertsonen mende egotea da; izan ere, alde egiten dutenean ekimenak kolokan gera daitezke. Garrantzitsua da guztia pertsona bakar batengan ez oinarritzea, diziplina bakar batean ez oinarritzea...

Mapen inguruko hausnarketa abiapuntutzat hartuta, oztopo eta aukeren identifikazioan jarraitu zen lan egiten, alde batetik; eta, bestetik, esku-hartzearen gakoaren inguruan. Hausnarketa horren emaitza jarraian aurkeztuko da.

²³ Denbora kontuan hartu behar dugun elementu bat da, eraikitza goazenean, eta beharrezkoa da sorkuntza behar den bezala bukatzeko: *“Batzuetan, diseinugile batek diseinu bat lantzen du eta atsedenean uzten du, gero beste une batean berriz begiratzeko eta hobetzen jarraitzeko, edo berregiteko”*. *“Baliteke zenbait urte behar izatea film bat egiteko, eta prozesuaren azken partea soberan dauden eszenak kentzea da”*.

5.2. Oztopo eta aukeren identifikazioa.

Atal honetan, ekimenak garatzeko dauden **oztopo** eta **aukera** (laguntzako elementuak) nagusiak aurkezten ditugu, hau da, azken batean, "kulturalara" iristeko, sorkuntza kulturalerako eta adierazpenerako dauden oztopo eta aukera nagusiak. Baztertutako pertsona, kolektibo eta komunitateek aurkitzen dizuten oztopo eta aukerak, beren errealitatea, beren egoera... gizarte osoari helarazteko eta eurentzat aberasgarriak izan daitezkeen ingurune kultural eta artistikoetan sartzeko.

OZTOPOAK



ALOR SOZIALAREN ETA ALOR ARTISTIKOAREN ARTEKO ELKARRERAGINIK EZA ETA EZAGUTZARIK EZA, ETA PROFESIOALEN EGOERA

- Honelako proiektu eta ekimenetan laguntzen duten pertsonen **erresumina** edo nekea, egoera prekarioan lan egiten dutelako, aitortza eskasarekin, inplikazio handiarekin, gutxi zainduta... Beren kasuan, aitortzarik eza bikoitza izaten da, hau da, esku-hartze artistikoari dagokiona eta esku-hartze sozialari dagokiona. Eta esku-hartze konplexuak gauzatu ohi dituzte, baldintza prekarioetan, laguntza gutxiarekin.
- Gizarte ekintzaren alorreko profesional batzuei **denbora eta prestakuntza** falta zaizkie mota horretako proiektu eta jarduerak gauzatzeko; gainera, erakunde batzuek motibazio gutxi dute, zeren pentsatzen baitute horrelako esku-hartzeak osagarriak edo “bigarren mailakoak” direla.

Normalean, esku-hartze sozialaren alorreko profesionalak ez dakite asko diziplina artistikoez, eta sarritan ez dute kontzientziarik izaten diziplina horiek inklusio prozesuak bultzatzeko duten potentzialaz. Eta, oro har, nahiko mugatuta daude denbora aldetik horrelako esku-hartzeei heltzeko; izan ere, horretarako beharrezkoa da jarduerak xehetasunez prestatzea, prozesuak abiatzea pertsona erabiltzaileen parte-hartzearekin, eta abar. Gainera, esan dugun bezala, esku-hartze horiek ez dute aitortza handirik jasotzen erakunde aldetik.

- **Alor sozialean lan egiteak artistei sortu ahal dizkien zailtasunak**, ezagutzen ez duten eremu bat baita.

Halaber, artistek ez dakite nola lan egiten den bazterketa egoera edo arriskuan dauden pertsonekin, eta pentsatzen dute esku-hartze soziala oso gai korapilatsua dela eta haiek ez daudela prestatuta horretarako.

Illo horretatik, eztabaida bikoitza sortzen da; alde batetik, horrelako egoeretan dauden pertsonekin lan egiteak dakarren zailtasun graduaren ingurukoa; eta bestetik, eztabaidatzen da ea beharrezkoa den artistek laguntza eta lankidetzak eskuratzea kontraparte sozialaren aldetik.

“Alor sozialean lan egitea oso gai delikatua da; izan ere, gauzak modu sakonagoan planteatzera behartzen zaitu, beste testuingururen batean egingo zenukeena baino”.

“Artistak ez du zertan jakin zer-nolako gaixotasun, errealitate edo egoera duen berarekin lan egiten duen pertsonak. Eta ez du zertan jakin nola bideratu egoera horiek. Harremanik baldin badago hezitzailearekin, bera izan daiteke laguntza hori emateaz arduratzen dena. Beharrezkoa da akonpainamendu hori”.

Bazterketa, arrisku edo urrakortasun testuinguru eta/edo egoerek zailtasunak dituzte berez. *“Oso gai delikatua da, eta egiten den urrats bakoitza kontu handiz neurtu behar da... badirudi egingo duzun guztia okerreko urratsa izan daitekeela”.*

Batzuetan, “zailtasun” horrek zerikusi handiagoa izan dezake mundu hori ezagutzen ez duen pertsonaren begiradarekin (artista); beraz, laguntza eman dakioke mundu horretara hurbiltzeko, gutxienez hasieran.

Beste pertsona batzuek uste dute ona dela alor sozialari lotutako pertsonaren batek artistari laguntzea, baina “ez dela hainbesterako”. Eta badira artista esperientziadunak ere, proiektu artistikoak bultzatzen ari direnak gizarte ekintzaren alorreko erakundeetatik, eta erreferentzia eta laguntza izan litezkeenak pertsona horientzat

- **Sektore kultureko profesional batzuen** (eragileak, kultura teknikariak...) **interes eta prestakuntzarik eza**, bazterketa egoera edo arriskuan dauden pertsonak integratzeko.

Eta biztanleria osoarengana zuzendutako kultur zentro eta baliabideen gaitasunik eta -batzuetan- gogorik eza, horrelako prozesuetan sakontzeko.

- Alor sozialaren eta kulturalaren artean dauden **aurreiritziak eta estereotipoak**, eta elkarreraginean aritu ahal izateko ezagutu behar diren hizkuntza desberdinak egotea.
- **Harreman-fluxu gutxi egotea** artearen alorrean eta alor sozialaren artean, eta baita proiektu artistikoak alor sozialean bultzatzen dituzten pertsonen artean ere.²⁴
- Alor horretan Bizkaian, Euskadin, Estatuan, Europan edo Munduan **lan egiten duten gainerako eragileen ekimenei buruzko informaziorik eza**.
- **Ez dago aliantza edo lankidetzarik** baliabideak optimizatzeko. *“Europar ereduari heldu beharko genioke; izan ere, bertako elkarte askok planteamendu kooperatiboez lan egiten dute, ekimenak konpartituz”.*

BALIABIDERIK EZA

- **Baliabide ekonomikoen** eskasia horrelako proiektuentzat, eta baliabide horiek eskuratzeko zailtasuna, are gehiago krisiaren egoeran eta gastu sozial eta kulturala murrizten ari denean...
- **Erakundeek ezagutza eskasa dute baliabideak eskuratzeko bideei** buruz eta horren inguruko ekintzak garatzeari buruz: komunikazioa, sustapena, marketina. *“Komertziala behar da”.* *“Profil berriak behar ditugu erakundeetan, baliabideen bilaketarako”.*
- **Diru-laguntzei eta bestelako laguntzei buruz dagoen informaziorik eza**. Finantzaziorako baliabide eta bideei buruzko ezagutzarik eza (Europakoak, erakunde pribatuena, administrazio publikoena...) eta artearen eta inklusio sozialeko prozesuen arteko elkargune hori bultzatzeko laguntzen urritasuna.
- **Espazio** egokien falta erakunde eta instituzioetan (kultur etxeak...). Aipatu dugun bezala, zerbitzu batzuek bazterketa edo arrisku egoeran dauden pertsonak kanpo uzten dituzte “de facto”, espazioen ezaugarriengatik, egutegiagatik, irekitzeko eta ixteko ordutegiengatik, eta abar.

²⁴ Lantegia egitearen eraginez, argitalpen honen amaieran modu laburrean aurkezten dugun elkarlan bat abiatu da Rekalde Aretoaren eta Bidesariren artean. Horrekin batera, abiatu litezkeen beste elkarlan batzuk ere proposatu dira, hala nola, Kalé Dor Kayikoren txalo ikastaroa gizarte ekintzaren alorreko erakunde batzuetan ematea. Orobat, komenigarria izango litzateke topaguneak eta esperientziak trukatzeko espazioak eskaintzea bazterketa egoera edo arriskuan dauden pertsonekin lan egiten duten profesionaleri, hots, pertsona horiekin egiten diren proiektu artistikoak dinamizatzen dituzten profesionaleri, dela hirugarren sektorearen erakundeetatik dela beste erakunde edo instituzio batzuetatik.

Alde horretatik, badira oztopoak baliabide eta espazio kultural normalizatueta (biztanleria osoa zuzenduta) iristeko, eta baita komunikaziorako zailtasunak ere (“hizkuntza desberdinez hitz egiten da”).

AITORTZARIK EZA

- **Proiektu artistikoen aitortzarik eza, batez ere mota horretako** sorkuntza kulturalera proiektuen kasuan: bazterketa edo arrisku egoeran dauden pertsonekin, desgaitasuna duten pertsonekin...
 - Badirudi sorkuntza kulturalera orientatzen den eta alor sozialean gauzatzen den proiektu batek justifikazio bikoitza behar duela, administrazio publikoen aldetik duen balorapen eskasagatik, bai maila teknikoan eta bai maila politikoan.
 - Antzeko zerbait detektatzen da baldin eta jarduera bat planteatzen baduzu ikastetxeekin, kultur zentroekin... Espazioa uzten dizute, baina profesionalak ez dira inplikatzeko proiektuan.
- Artistek ez dute **aitortza ekonomikorik** izaten. Izan ere, beren jarduna artistaren bokazio-nahi edo bizimodu bohemioarekin lotzen da... (“airetik bizi dela” pentsatzen da).

IKUSPUNTUA: ESPAZIOAREN INGURUKO IKUSMOLDEA (ARTEA ETA INKLUSIOA)

- **Espazio segregatu** gehiegi egotea, espazioen **atomizazioa**, gaitasun desberdinak dituzten pertsonen arteko **elkarreraginik eza**.
- Helburu mugatuak bilatzea (**integrazioa versus inklusioa**): okupatuta edo integratuta egoteko helburua, artistikoa edo beste edozein motatakoa izan daitekeen jarduera bat gauzatuz, espazio segregatueta... Horren aurrean, bada besteko ikusmolde zabalago bat, alegia, subjektua eta protagonista izatea, sortzeko gaitasunarekin... eta gaitasunak dutenei aukerak eskaini ahal izatea (sortzeko, bere obra hedatzeko, sorkuntza eta hedapen zirkuitu normalizatueta iristeko...).
- **“Tailerismoa”**, produktuan zentratutako ikusmolde bezala, prozesuan zentratu beharrean, artista irakasle bezala ikusten duena eta ikaslea kopiatzaile bezala (tailerra “txurreria” bezala: pertsona guztiak produktu berean lan egiten dute, irakasle gisa diharduenak ezarritako jarraibideen arabera), horizonte edo proiektuorik gabe, espazio segregatu edo atomizatueta, eta abar.
 - *“Tailerra lehenengo urratsa izan behar da, baina ez eskaintza osoa, proiektuaren zati bat izan behar da soilik”*. Gaitasunak garatzeko tresna bat izan behar da, hainbat motatakoa, eta hasierako lotura-elementu bat izan daiteke, sorkuntzarako potentziala duten pertsonak erakartzeko.
 - Espazio malguagoa izan behar da, produktuan zentratu gabe; bertan, pertsonak jarduteko askatasuna izan behar dute, nahi dutena adierazteko tarteak, kanpora jotzeko, sortzeko, eboluzionatzeko...
 - Pertsonen interes, nahi, erronka eta gaitasunetatik abiatu behar da, horiek aitortzen lagundu behar du, eta baita bultzatu ere, sarritan transmititu dizkiguten ideiak gaintuz (“zuek ez dakizu kantatzen, dantzatzen...”); izan ere, presio horien eraginez beldurra sentitzen dugu adierazpen artistikoaren aurrean, eta irakasle gisa diharduen artistak ezartzen digun erredua errepikatzen dugu, besterik ez, bera baita benetan dakiena.

- **Artea negozio bezala ikusteak** (aisiarekin egiten den bezala) bazterketa sortu dezake eta sortu ohi du; gainera, beste ondorio batzuen artean, asko mugatzen du ekoizpen kulturalerako irisbidea (pertsonek batzuei soilik irekitzen die bidea) eta hedapen eta banaketa kanaletara iristeko aukera.²⁵

Alde horretatik, beharrezkoa da bazterketa egoera edo arriskuan dauden pertsonen (“bestelako gaitasunak duten artistak”) protagonismoa ematen dieten sorkuntza kulturalerako prozesuak bultzatzea (gutxi batzuek ekoizten dutenaren kontsumo kultural hutsa bultzatu beharrean). Halaber, ekoizpen eta hedapen kulturalerako baliabide eta zirkuitu normalizatuera iristeko bidea eskaini behar zaie pertsona horiei, espazio segregaturik sortu gabe.

- **Arteari eskusibotasuna egotea**, hots, zerbait eskusibo bezala ikustea (gaitasunez “jaiotzen” diren pertsona gutxi batzuentzat erreserbatuta...). Estereotipo horrek oztopatzen du arteari buruz bilatzen dugun begirada izatea, hots, inklusioa lantzeko tresna eta bide bezala ikustea.

LANAREN XEDE DIREN PERTSONEN EZUAGARRIETARA EZ EGOKITZEA, ETA FORMATUEN EGOKITZAPENIK EZA

- **Lanaren xede diren pertsonengana ez hurbiltzea eta pertsona horiek gutxi ezagutzea.** *“Pertsonen benetako interes-guneak bilatu behar dira. Ez badut kontakturik haiekin, zaila da modu egokian erantzutea”.*
- **Formatuen egokitzapenik eza:** *“Ez da zaintzen gauzak “nola” eskaintzen ditugun. Batzuetan, formatu “zaharretan” egiten dira, eta horrek itxura monotono eta aspergarria ematen die”.*

²⁵ Internet eta sare sozialak, aldiz, aukera ona dira horretarako, bai finantziarioaren ikuspuntutik eta bai banaketaren ikuspuntutik.



Parte hartzen duten pertsonak identifikatutako aukerek badute lotura oztopoen kasuan agertu diren elementu bereberekin (pertsonak, baliabideak, elkarlana eta ikuspuntua), eta, kasu batzuetan, proposamen bezala planteatzen dira. Beraz, beti ez dira euste-puntu irmoak, baizik eta indartu beharko liratekeen alderdiak; alderdi horiek indartuz gero, oztopoak gaitutiko lirateke neurri batean.

PERTSONAK ETA ERAKUNDEAK, BEREN GAITASUNAK ETA BALIOAK

- Bazterketa egoera edo arriskuan dauden **pertsonekin** egiten diren proiektu artistikoen sustapenarekin konprometitutako pertsonak, oinarritik jardunez, baliabide eta aitortza gutxiarekin, baina indar handiarekin eta oso interesatuta gauzatzen ari diren zereginean.
- **Pentsaera sortzailea, ideien jariora, ideiak sortzeko gaitasuna.**
- **Jakin-mina eta enpatia**, baliabide bezala eta proiektu bat garatzeko bide bezala. *“Halaber, loturak oso garrantzitsuak dira elkarlanean aritzeko garaian”.*
- Norberaren **gaitasunak**, eta baita pertsona eta erakundeen **ezintasunak** ere, horrek hobekuntza puntuak identifikatzea ahalbidetzen duen neurrian, prestakuntza non falta den identifikatzea ahalbidetzen duen neurrian; izan ere, horrek bidea ematen du identifikatzeko non diren beharrezkoak sostengua eta hazkundera.
- Toki mailako esperientzia, **inklusio sozialaren sustapenerako ekimen eta proiektuak abiatzeko eta garatzeko egindako bidea**, askotariko diziplina artistikoen bidez eta esku-hartze eremu ugarran.

BALIABIDEAK

- Badira **erabilerarik ez duten hainbat espazio**; beraz, modu kolektiboan erabil litezke, topaketa prozesuak, sorkuntza bateratuak eta beste sinergia interesgarri eta emankor batzuk sortzeko bertan, harremanen eta kolektibo eta diziplinen elkarreaginaren bitartez (erreferentzia bezala, Madrilgo “Matadero” esparrua aipatzen da).
- Honezkerok, **informazioaren eta komunikazioaren teknologiak** espazio garrantzitsua dira sorkuntza eta hedapen kulturalerako, eta baita lankidetzan aritzeko ere; gainera, informazioa eta baliabideak trukatzeko plataforma bat eskaintzen dute.
- **Berrikuntzaren baliabideak, eta esku-hartze sozialeko proiektuen konexioa berrikuntzaren beharrek, enpleguaren sorrerarekin...**

Aipatzen denez, laguntza publiko eta pribatuen inguruan ezagutzen diren deialdien irizpideak gero eta gehiago orientatzen ari dira berrikuntzarekin edo enplegurako aukerak sortzearekin zerikusia duten alderdietara. Hori krisiaren aurreko errealitate bat da, baina indartzen ari da eta gehiago indartuko da, beraren ondorioei erantzuteko behararen eraginez.

Artearen eremuko proiektu batzuk, eta alor sozialeko proiektu batzuk ere, helburu horiekin lotzen dira eta esparru horretatik bideratzen dituzte jadanik beren ekimenak.

Horizontean, lantegiko lanean azaleratu diren gako asko integratzen dituzten proposamen handinahiak ager daitezke.

Eta, konkretuki, **proposamen** hau plazaratzen da: testuinguru edo lurralde bati lotutako artistak, artisauak... identifikatzea, eta proiektu artistikoak modu bateratuan sustatzea, testuinguru horren baitan (auzo batean, hiri batean...) eta oinarritik, alderdi hauek bultzatuz:

- artisten eta gizarte erakundeen arteko elkarlana;
- sorkuntza, ekoizpen eta hedapen kulturala, bestelako gaitasunak dituzten pertsonak eta artistak hiru prozesuetan inplikatur;
- erabilerarik gabe dauden hiri-espazioak eta azpiegiturak berreskuratzea;
- enplegu eta garapen ekonomikorako aukerak sortzea;
- berrikuntza;
- hiri-ingurunearen eraldaketa;
- eta abar.

ELKARLANA

- **Pertsonak, erakundeak eta kontaktuak jadanik biltzen dituen sarea -jadanik eratuta dagoen sarea-... eta beraren garapena eta bultzada.**

Elkarren ezagutza eta pertsona eta erakundeen arteko elkarlana lagungarriak izan daitezke ekimen ugari aurrera eramateko, maila xumeetatik hasita, baina sare eta aliantza estrategikoak eratzerira iritsiz. Kontua izango litzateke:

- Informazioa trukatea: esperientziei buruzkoa, proiektu edo ekimenen egoerei buruzkoa, erakundeei buruzkoa, ekimenak bultzatzen dituzten profesionali buruzkoa, eta abar.
- Baliabideak lankidetzaz bilatzea: baliabideei buruzko informazioa trukatea, proiektu bateratuak aurkeztea, lokalak konpartitzea, hirugarrenen jarduerak ekartzea erakunde bati, beraren garapenari eta hedapenari horrela lagunduz, eta abar.
- Jardunbide egokiak identifikatzea eta esperientzia arrakastatsuek aztertzea, gainerakoentzat baliotsuak izan daitezkeen alderdiak ezagutzera emateko (transferentzia).

Alde horretatik, aztertu beharko litzateke -adibidez- zergatik sortu eta garatu diren hainbeste proiektu eta ekimen kultural eta artistiko desgaitasunen eremuan, hainbeste ikuspegitatik: hastapena, gaitasunen garapena, ekoizpen eta hedapen kulturalera iristea, eta abar.

- Ekimenak alor horretan garatzen dituzten profesionalen eta erakundeen arteko topaketarako espazioak sustatzea: “sorkuntza jardunaldiak sarean”, erakunde batean proiektu artistiko bat bultzatu duten profesionalak kolaboratu dezakete gisa bereko ekimen bat bultzatu nahi duen beste erakunde batekin, eta abar.
- Erakundeen arteko sareak eratzea eta lankidetzaproiektuak sustatzea.

“Bada Europako 52 elkarte biltzen dituen esperientzia bat: modu bateratuan mobilizatzen dira, espazioak berrerabiltzen dituzte, zenbait proiektutan kolaboratzen dute”.

- **Alor sozialetik kanpoko pertsona eta erakundeekin (artistak, enpresak...) harremanak izatea eta haiekin batera lan egitea.**

Batzuetan, gure baliabideak baino ez ditugu hartzen kontuan; beraz, topaketa horien aurrean irekita egoteak aukera zabalagoak eskaintzen dizkigu.

“Erakunde guztiek (enpresak, instituzioak, hirugarren sektoreko erakundeak) behar ditugu bestelako profilak dituzten pertsonak”.

Hori erantzukizun sozialeko prozesuen bidez lor daiteke -adibidez-, zeren lankidetzatza-lotura bat sortzea ahalbidetzen baitu, finantza-lotura hutsetik haratago.

IKUSPUNTUA: ESPAZIOAREN INGURUKO IKUSMOLDEA (ARTEA INKLUSIORAKO)

- **Lurralde, pertsona eta komunitateekiko konexioa... proiektuak eta espazioak kalean bertan kokatzea, jendearengandik hurbil.**
- **Tailerrak laborategi bezala ikustea** (“tailerismotik haratago”).

Sorkuntza prozesura orientatzea, pertsonen gaitasunetatik abiatuta, eta gaitasun horiek estimulatzea; laguntzaile bezala jardutea, irakasle gisa aritu beharrea (tailerrek era ikusmolde hori har dezakete eta, izatez, ekimen batzuek horrela funtzionatzen dute).

Jarraian, hain zuzen ere, inklusio soziala artearen bidez sustatzera orientatutako proiektu eta ekimenek izan behar lituzketen gakoak sakonduko ditugu. Batzuetan, gako horietatik plantatzen dira ekimenak, eta uste dugu horrela egin beharko litzatekeela orokorrean.

6. Oraingo errealitatea eraldatuz.

6.1. Esku-hartzearen gako batzuk.

Esku-hartzearen ardatz nagusia pertsonari laguntzea da, gaitasunak dituen artista bezala, eta beraren sorkuntza prozesua erraztea.

Pertsonaren eta beraren protagonismoaren garrantzia sorkuntza prozesuan.

- Proiektuen abiapuntua pertsona da, eta **pertsona** da proiektu guztien horizontea ere.
- Beharrezkoa da **prozesua** zaintzea, baina produktua ere garrantzitsua da.
- **Proiektuak eboluzionatu** eta eraldatu daitezke, eta hori beharrezkoa da neurri batean.
- Oso garrantzitsua da **parte-hartzea** zaintzea, pertsonak izan daitezen prozesuen protagonistak.

Prozesuan laguntzen duen pertsonaren garrantzia, eta beste erreferente eta tresna batzuk.

- **Familiekin eta beste erreferente** esanguratsu batzuekin lan egitea.
- Prozesu horien **laguntzailea** funtsezko figura da.
- **Espazioa** funtsezko bitartekoa da ekimenak sortzeko.

Elkarlana, esku-hartze eremu hau bultzatzeko tresna bezala.

- Garrantzitsua da alor sozialean eta artistikoan diharduten **profesionalen arteko elkarlana**; eta horrelako ekimenak bazterketaren, desgaitasunen eta horrelakoen alorrean gauzatzen dituzten pertsonen artekoa ere bati.
- **Diziplinartekotasuna eta hibridazioa** funtsezko elementuak dira horrelako ekimen eta proiektuen sorrera eta garapenerako.
- Beharrezkoa da **berrerabilitzea, birziklatzea, proiektuak konpartitzea...** iraunkortasunaren ikuspegitik.

Proiektu inklusiboak sortzeko behar sakona.

- Bazterketa edo arrisku egoeran **dauden pertsonen adierazpen artistikoak aitortuz, sustatuz eta bistaratuz, pertsona horiek artistatzat hartuz.**
- **Bestelako gaitasun eta egoerak dituzten pertsonen arteko elkarreragina** sustatuz (artistak, sortzaileak...).
- Bazterketa egoera edo arriskuan dauden **pertsonei ahalbidetuz** biztanleria osoarengana **zuzendutako sustapen kulturalako baliabideetara iristea**, eta **baliabideen unibertsaltasuna eta egokitzapena** aldarrikatuz.
- **“Arte garaikidea” elite baten espazio propiotzat hartzen duen ideari aurre eginez**, eta pertsona guztien parte-hartzea bultzatuz sorkuntza eta ekoizpen kulturallean (artearen parte-hartze bezala versus arte kontsumo bezala).²⁶

Proiektu eta ekimenen orientazio eraldatzailea

- Proiektu eta ekimen guztiek **dimentsio eraldatzailea** izan behar dute eta **aldaketa sozialera** orientatu.
- Ezaugarri jakin batzuk dituen kolektibo baten **produktua** ezaugarri horretan oinarrituta **hedatzeak dilemak sortzen ditu**, produktu horren hedapena beraren artista izaeran oinarritzearen aldean -hau da, produktua hedatu behar da pertsonaren ezaugarri bereziengatik edo artista delako-.

²⁶ Kultura -eta artea, kultura sortzen duen elementu bezala- ez da merkatuak mugatutako espazio bat, non pertsona batzuk soilik sartzen diren, sortzaile bezala, eta beste pertsona batzuk kontsumitzaile bezala soilik sartzen diren, erosteko ahalmena dutelako. Aitzitik, lehen esan dugun bezala: “arte garaikidea, gaur egun egiten den arte guztia da”.

Pertsonaren eta beraren protagonismoaren garrantzia sorkuntza prozesuan

1. Proiektuen abiapuntua pertsona da.

Oso garrantzitsua da proiektu eta ekimenak errealitateetik abiatzea; oso garrantzitsua da, halaber, kontuan hartzea pertsonen egoerak eta, batez ere, beren gaitasunak, interes-guneak, beharrak, erronkak, desioak...

Gainera, pertsona guztiak badute, berez, sormen osagai bat. Pertsona sorkuntza bat da berez, sortu eta birsortzen da etengabe. Sinesmen eta konfiantza horiek funtsezko oinarriak dira sormena pertsona guztiengan azaleratzeko.

2. Halaber, inklusioa sustatzera zuzendutako **proiektu artistiko guztien horizontea, helburu komuna, **pertsona da**: euskarri eta espazioak eskaini behar dira bere adierazpenerako, bere gaitasunen garapenerako eta sorkuntza prozesuaren protagonista izateko, bere obra, bere errealitate eta bere bizitzaren protagonista izateko.**

Diziplina artistiko guztiak -horietako edozein- tresna pribilegiatuak dira horrelako prozesuak errazteko; batzuetan, gainera, interesgarria izan daiteke zenbait diziplina nahasten dituzten proiektuak planteatzea.

Sortzailearen hasierako gaitasunak eta laguntzailearen prestakuntza artistikoa ez dira beste proiektu batzuetan bezain garrantzitsuak. Proiektu hauetan, garrantzitsuagoak dira sorkuntza prozesua eta pertsonen prozesu horretan laguntzeko gaitasuna.

3. Beharrezkoa da **prozesua zaintzea.**

Sarritan, prozesu luze eta nahiko sakonak izango dira, beren azkeneko helburuarekin bat etorriz. Obra baten sorrerarekin amaitzen diren prozesu laburren kasuan ere, sorkuntza prozesua zaindu behar da, eta baita pertsona hartzaileek bertan duten parte-hartzea ere.

Sorkuntza prozesua topaketa²⁷ bezala garatzen da beti, eta komunikazio prozesu bezala ere bai, bai norberaren buruarekin eta bai prozesuan -modu batean edo bestean- parte hartzen duten gainerako pertsonekin. Azaltzeko aukera bat da, sentitzeko, norbera eta besteak ezagutzeko, adierazteko, harremanak izateko... tresna batzuen bidez.

Batzuetan, parte-hartze soziala bilatzen da, beste pertsona edo erakunde batzuk sorkuntza prozesuan inplikatzeko da helburua, proiektu horren partaide bihurtuz: auzo bat eraldatzeko proiektuak, auzokideek beraren diseinuan parte hartuz; komunitateko pertsonen parte-hartzeari irekitako proiektu artistiko edo kulturalak...

Gainera, batzuetan, prozesuaren eta produktuaren arteko mugak lausoak dira. Hala, emanaldi bat abiatzen den bakoitzean, sorkuntza prozesu bat sortzen da, ikusleen parte-hartzearekin -neurri handiagoan edo txikiagoan- eta emaitza berri batekin.

²⁷ Sarritan, topaketa helburu bat izaten da berez. Adibidez, topaketarako esparruak sortzen direnean espresuki (jarduera artistiko edo kultural bat gauzatzeko lokalak), edo kultur arteko antzerkian, beraren asmoa pertsonak elkartzea baita, elkar ezagutzeko eta elkarrekin sortzeko esperientzia izatea, azkeneko produktutik haratago.

4. **Dena dela, produktuak ere badu garrantzia**, zenbait ikuspegitatik begiratuta.

Ikusmolde kultural batzuek (oso zabaldua daudenak) garrantzi handiagoa ematen diote produktuari -eta beraren hedapen eta salmentari- sorkuntza prozesuari baino, hainbesteraino non, batzuetan, prozesu hori “merkaturatu” daitekeen produktu bat sortzearen mende geratzen den.

Esan berri dugun bezala, arreta berezia jarri behar da prozesuan, baina kontuan hartuta produktuak eta beren hedapena garrantzitsuak direla egileentzat, pertsona eta artistak diren aldetik, identifikazio, adierazpen eta aitortza elementu erreal eta konkretu bezala,..²⁸. Eta badute balio soziala, adierazpen kultural bat dira eta kultura sortzen laguntzen dute.

Hedapenari dagokionez, komunikatzerakoan garrantzitsua izango da prozesuaren aberastasuna eta horrek inplikatu duena ere transmititzea, artistaren intimitatean sartu gabe.

5. **Proiektuak eboluzionatu eta eralda daitezke** -eta hori beharrezkoa da, neurri batean-, prozesuan aurrera egiten den neurrian eta pertsonen gaitasunak, beharrak, nahiak, erronkak... aldatzen diren neurrian.

Proiektuak “arinak” eta malguak izan behar dira, helburu irisgarriekin eta helmuga handinahiagoekin epe ertain eta luzera. Kasu batzuetan, ona izan daiteke eboluzioa helburutzat hartzea; adibidez: motibazio eta hastapen proiektu batetik gaitasunak garatzeko proiektu batera pasatzea. Edo gaitasunak garatzeko proiektu batetik sorkuntza artistikoko espazioak sortzera pasatzea, ahal den neurrian enplegua lortzeko aukera eskainiz pertsona batzuei.

6. Funtsezkoa da pertsona sortzaileen **parte-hartzea zaintzea** (proposatu, aukeratu eta erabakitzen dutenen parte-hartzea...) prozesuaren dimentsio eta fase guztietan (ideiaren hasieratik azkeneko helburura arte eta beraren aurkezpenera arte). **Pertsonak** izan daitezela sorkuntza artistikoko **prozesuen benetako protagonistak**.

Bide honetan, funtsezkoa da pertsonengan konfiantza sortzea eta pertsonak zaintzea. *“Konfiantza izatea lana egiten duen pertsonarengan. Erratzen utzi behar diogu. Berritzaileak saiatzen utzi behar diogu”*.

Orobat, garrantzitsua da parte hartzen duten pertsonen motibazioa sustatzea eta lan taldeen dinamika zaintzea, asmoa sorkuntza kolektiboko prozesu bat gauzatzea denean.

²⁸ *“Neuk hau egin dut, eta hau espazio honetan dago, eta espazio hau baloratzen da ...; ez nuen inoiz ere pentsatu horrelako espazio batean ordezkatzeko ninduen zerbaite sortu ahal izango nuenik”*.

Laguntzailearen eta beste erreferente eta tresna batzuen garrantzia

7. Prozesu horretan **laguntzen duen pertsona** funtsezko figura da, eta baita baliabide nagusia ere, pertsona hartzaileekin batera (prozesuaren xede diren pertsonak).

Garrantzitsua da beren prestakuntza zaintzea, dimentsio horretan, eta beren motibazioa eta konpromisoa babestea; halaber, zaintza pertsonalerako espazioak eta tresnak eskaini behar zaizkio, batez ere errealtate gogorak bizi dituzten pertsonekin lan egiten duenean.

Esku-hartze sozialaren pertsonak eta artistek konpartitzen duten espazio bat sortzen denean, beharrezkoa da ikuspegi konpartitu bat garatzea eta kontuan hartzea bai sorkuntza prozesuaren beharrak eta bai ikuspegi hezitzailea, modu koordinatuan lan egiten ikasiz.²⁹

Artistarentzat, garrantzitsua da tailerraren kudeaketaz/koordinazioaz arduratzen diren pertsonak izatea bere ondoan; garrantzitsua da, gainera, pertsona horiek ikas dezatela artistaren eta taldearen lana/sormena ulertzen eta errespetatzen. Hezitzaileen eta esku-hartze sozialaren alorreko beste profil batzuen rola da pertsonen dinamika sortzailean sartzen laguntzea, eta, horrekin batera, prozesua, hizkuntza, materialak eta espazioa... pertsona hartzaileen ezaugarrietara egokitzen laguntzea.

8. **Familiekin eta pertsona hartzaileen beste erreferente esanguratsu** batzuekin lan egitea ere garrantzitsua da, pertsona horien motibazioari eusteko, beren gaitasunak aitortzeko, beren prozesua animatzeko...

Batzuetan, proiektuek edo jarduerak beren azkeneko hartzaileen parte-hartzea soilik hartzen dute kontuan. Eta, batzuetan, positiboa da parte-hartzea irekitzea pertsona hartzaileen erreferente diren beste pertsona batzuei (senideak, boluntarioak, profesionalak,...). Pertsona horiek pertsonari lagundu diezaiokete bere prozesuan, eta proiektuen diseinu, garapen eta ebaluazioan parte har dezakete, edo jarduera batzuetan.

9. **Espazioa** funtsezko bitartekoa da ekimenak sortzeko.

Beharrezkoa da espazio egokiak izatea sorkuntza artistikorako, hedapenerako eta pertsonen arteko topaketarako. Espazio horiek espazio irisgarriak izan behar dira, hurbilak, auzoan integratuak, elkarbizitza kalean bertan ahalbidetzen dutenak, topaketa errazten dutenak (pertsonarekin berarekin eta gainerako pertsonekin), eta abar.

Beste alde batetik, beharrezkoa da espazioak zaintzea³⁰, eta ezinbestean egokitu behar dira jarduerara (“txalo tailer bat ezin egin daiteke akustika txarra duen areto batean”) eta pertsona hartzaileen ezaugarrietara (adingabeak edo adineko pertsonak, desgaitasuna duten pertsonak...); horren eraginez, zaila izaten da espazio egokiak eskuratzea, batez ere espazio konpartituak baldin badira.

Hala ere, banadutak ez dauden espazioak izatea beharrezkoa da, sorrera artistiko edo kulturalerako prozesuei ostatu egonkorra emateko, ghettoak bihurtzen ez direnak eta beraien diseinuak pertsonen, kolektibo, entitate edo beste taldeen arteko topaketa-dinamikak

29 “Bai artistok eta bai hezitzaileok erreferentzia-marko propioak ditugu, gure funtzionatzeko erak, eta, batzuetan, komunikazioa eta lan bateratua oztopatzen (edo aberasten) dituzten klitxe propioak ere”.

Horren eragina izan daiteke ikuspegi hezitzaileak murrizten dituela esplorazio artistikoa eta aukeren bilaketa, prozesu artistiko osoa gainetik jarriz, ulertu gabe badaudela beste helburu eta marko batzuk, eta abar.

30 “Proiektuak beren espazioengatik ezagutu eta aitortzen dira, hau da, proiektuak hartzen dituzten espazioengatik. Garrantzitsua da ordena bisualaz lan egitea, espazioa ordenatuta egotea. Desordenaren aurka borrokatu behar da. Batez ere espazio komunetan.”

sustatzen dituztenak.

Espazio horiek irekitasuna eta beren aldeko apustua eskatzen dituzte instituzioen aldetik eta espazioak konpartitzen dituzten pertsona eta erakundeen aldetik, baina inklusio prozesuak ahalbidetzen dituzte eta aukera berriak, proiektuak eta ekimen interesgarriak sor ditzakete.

Espazio kultural “normalizatuak” herritar guztiei irekitzeaz gain, erabilerarik gabe dauden espazioak berreskuratzeko aukera kontsideratu beharko litzateke, haien erabilera konpartitua sustatuz, iraunkortasunez, jadanik funtzionatzen ari diren proiektu batzuen esperientziatik abiatuta -adibidez: Madrilgo Tabacalera proiektua. Beste alternatiba bat -partziala- izango litzateke hirugarren sektore sozialeko erakundeen espazioak irekitzea hirugarrenen ekimen eta proiektu artistikoei.

Elkarlana, esku-hartzearen espazio hau bultzatzeko tresna bezala

10. Alor sozialaren eta alor artistikoaren **pertsonen arteko elkarlana**, eta proiektu artistikoak desgaitasunen, bazterketaren eta horien antzeko eremuetan garatzen dituzten pertsonen artekoa.

Beharrezkoa da elkarren arteko ezagutza eta lankidetzaren bultzatzea gizarte ekintzaren eta artearen alorrean lan egiten duten pertsona eta erakundeen artean, eta baita proiektu artistikoak desgaitasunen, bazterketaren eta horren antzeko alorrean garatzen dituztenen artean ere, lankidetzaren eta elkarlanerako espazio formalak eta informalak sortuz.

Hain zuzen ere, aberasgarria izan daiteke lankidetzak planteatzea gizarte ekintzaren alorreko erakundeekin lotuta ez dauden artisten eta erakunde horien artean, lan konpartitu bat ahalbidetuz artisten eta erakundeko profesionalen artean, bai jarduerari dagokionez (proiektu berria) eta bai jarduteko edo antolatzeke formei dagokienez.

Aipatu dugun bezala, “Conexiones improbables” horrelako prozesuak erraztu ditzakeen ekimen bat da. Gainera, hirugarren sektoreko sareek ere elkarreragin-espazioak sortu ditzakete eta efektu biderkatzailea ahalbidetu.

11. **Diziplinartekotasuna eta hibridazioa** funtsezko elementuak dira horrelako prozesuen sorrera eta garapenerako. Elkarlana, enpatia eta jakin-mina funtsezko baliabideak dira proiektu-ideiak identifikatzeko eta garatzeko.

Sareko lana (erakundeen arteko deribazioak, lan bateratua, informazio truke...) funtsezkoa da baliabideak aprobetxatzeko, aukerak eta espazio konpartitua sortzeko (segregatu gabeko espazioak), eta abar.

12. **Proiektuak berrerabili, birziklatu, konpartitu...**

Iraunkortasunaren ikuspuntutik, aukera hau planteatzen da: beste leku batzuetan hasitako edo egindako proiektuak -beste pertsona edo erakunde batzuek sortuak- berrerabiltzea, birziklatzea, birsortzea...

Elkarlana, trukea, sinergiaren sorrera, ideiak eta metodologiak konpartitzea... kontuan hartu beharreko motor garrantzitsua dira. Kontua ez da ideia bakarrak eta errepikaezinak sortzea, baizik eta inklusioa artearen bidez modu eraginkorrean sortzen dituzten prozesuak sustatzea. Asmoa izango litzateke konpartitzea, elkarren artean lehiatu beharrean, hots, eraikuntza bateratuaren logikan sartzea.

Proiektu inklusiboak sortzeko behar sakona

Lehen esan dugun bezala, kontuan hartu behar da bistaratzeari buruz hitz egiten dugula (obra bistaratzeari; kasu honetan, bestelako desgaitasunak dituzten pertsonen obra bistaratzeari), zeren kulturaren alorrean ere baitago segregazioa (sorkuntza prozesuetatik eta hedapen kulturalerako espazioetatik kanpo uztea).

Bestelako gaitasunak dituzten artisten ekoizpen kulturala bistaratzeari ikuspegitik, hobe izango litzateke presentzia hori - baldin eta beste asmo bat kolektiboa bistaratzeari eta gizarte sentsibilizatze badi, artista moduan duten balioa aitortzeaz batera- ohiz kanpokoa ez izatea, hau da, ohiko zirkuitu kultural "normalizatu" integratzea.

Hala, esku-hartze espezifikoak kasu batzuetan egiteko beharra kuestionatu gabe, azpimarratzen da beharrezkoa dela ekimen inklusiboak sustatzea, ikuspuntu hauetatik:

- *subjektuen* ikuspuntutik (desgaitasunak dituzten pertsonen edo urrakortasun, arrisku edo bazterketa egoeran daudenek sorkuntza, ekoizpen eta hedapen kulturalerako prozesuetan parte hartzea, beste artista batzuekin batera);
- *espazioen* ikuspuntutik, benetan "publikoak" eta irekiak diren espazioak sustatuz, "kultura pribatizatu beharrean", horrek talde txiki batentzat soilik erreserbatzen baititu sorkuntza kulturalaren aukerak eta obraren hedakuntza.

Eta horretarako, beste alderdi batzuen artean:

13. Bazterketa egoera edo arriskuan dauden **pertsonen adierazpen artistikoak aitortzea, sustatzea eta bistaratzeari**, artistak diren aldetik, zirkuitu normalizatuera iristeko bidea eskainiz -beste alderdi batzuen artean-.
14. **Bestelako gaitasunak eta egoerak dituzten pertsonen arteko elkarreragina sustatzea (artistak, sortzaileak...)**, proiektuak erakunde sozialekin batera -lankidetzan- bultzatuz eta, edozein artistarentzat irekitako espazioak sortzearen bidez, kolektibo artistikoekin batera.
15. Bazterketa edo arrisku egoeran dauden **pertsonen laguntzea biztanleria osoarengana zuzendutako sustapen kulturalerako baliabideetara iristen** (jarduerak kultur zentroetan, akademietan, kontserbatorioetan..). Eta **zentro horien unibertsaltasuna eta egokitzapena**, bestelako pertsonak eta adierazpen kulturalak barne hartuz: barrera fisikoak ezabatuz, baliabide egokiak eskainiz, eta horrelako zentroetako profesionalak trebatuz, biztanleria guztiarekin benetan lan egiteko gai izan daitezen, kulturaren irisgarritasuna sustatzeko modu bezala.
16. Azkenik, lehen aipatu dugun bezala, inklusioa bultzatzeri begira (gaitasunak aitortzea, zirkuitu normalizatuera iristeko bideak ematea...), beste **alderdi garrantzitsu bat da "arte garaikidea" elite baten edo alor akademikoaren produktu propioetatik hartzen duen ikusmoldea ezabatzea**,... horrez ordez adierazpen artistiko guztiak aitortzeko.

Eta artea sorkuntza eta parte-hartze sozialerako aukera eta tresna bezala ikustea, ez kontsumo tresna bezala (**artearen parte-hartze bezala versus artearen kontsumo bezala**).

Proiektu eta ekimenen orientazio eraldatzailea

17. Proiektu eta ekimen guztiak dimentsio eraldatzailea izan behar dute eta aldaketa sozialera orientatu.

Arte eta inklusio sozialari buruz hitz egiten badugu, ekimenek dimentsio eraldatzailea ere izan behar dute. Ezin dira espazio batean agortu, batez ere izaera segregatua badu. Nolabait, gizarte inklusiboa sustatzen duten prozesuak sortzen saiatu behar dugu.

Helburu hori duten proiektu eta ekimen artistikoak aldaketa sozialera orientatu behar dira, alegia: a) pertsonen gaitasunak aitortu eta garatu behar dituzte, aukerak zabaltzeaz batera; b) eskubideen erabilera eta hiritartasun aktiboa ahalbidetu behar zaizkie bazterketa, arrisku edo urrakortasun egoeran dauden pertsoneri (adierazpena, kulturarako irisbidea, baliabide eta zirkuitu normalizatuetera iristea, enplegu edo okupaziora...); c) bistaratzea (adibidez: bestelako gaitasunak dituzten artistak bistaratzea); d) sentsibilizazioa eta salaketa, balioen eremuko hezkuntza...; e) espazioak eraldatzea (hiri-espazioak, azpiegiturak...); eta abar.

Halaber, proiektuak baliagarriak izan daitezke pertsonak bistartzeko eta pertsoneri “ahotsa” emateko. Ikuspegi horretatik, sorkuntza artistikoa pertsonen komunikaziorako eta pertsonak bistaratzeko bitarteko edo tresna bat izango litzateke,

Logikoa denez, kontua ez da ekimen bakoitzak alderdi horiek guztiak garatzea, baina bai bere dimentsio transformatzailea bideratzea horietako baten edo batzuen bidez.

18. Produktuen aurkezpena edo hedapena

Ezaugarri jakin bat (sexua, adina, jatorria, autonomia maila...) duen kolektibo baten produktua ezaugarri horretan oinarrituta hedatzeak dilemak sortzen ditu, produktu horren hedapena beraren artista izaeran oinarritzearen aldean.

Alde batetik, aukera bat izan daiteke kolektibo jakin baten errealitatea ezagutzera emateko (emakumeak, gazteak, etorkinak, desgaitasuna duten pertsonak..l.) eta horrelako lanen bidez sentsibilizatzeko. Horrek zentzua izan dezake proiektuak helburu horretara orientatzen direnean bereziki.

Beste alde batetik, estigmatizazioa ekar dezake, zeren emaitzak kolektibo horien partaidetza nolabait “erabiliz” bistaratzen baititu, kontuan hartu gabe -beste alderdi batzuen artean- sortzaileek berek artista bezala dituzten itxaropenak eta merezimendua, ezta sortuta produktuaren balioa ere.

Artearen alorrean, bizitzaren gainerako adierazpenetan bezala, beharrezkoa da bilatzea inklusioa, baliabide eta zirkuitu normalizatueterako irisbideak, bestelako gaitasunak dituzten pertsonen aitortza,...

Nolanahi ere, sorkuntza prozesua sortutako produktuen hedapenarekin bukatu behar denean, beharrezkoa da prozesuaren protagonistekin hitz egitea: obraren helburuari buruz, beraren aurkezpenaren inguruan dituzten itxaropenei buruz, eta abar.

6.2. Proiektuak gauzatzeko ideiak.

Bigarren saioan, proiektuak gauzatzeko ideiak itxuratzen saiatzea proposatu zitzaion pertsona parte-hartzaileei; ideia horiek zerikusia izango zuten esku-hartze eremuekin, eta baita lantegian identifikatutako gako eta aukera espazioekin ere. Ariketa horren emaitzak jarraian aurkeztuko dira.

Hasteko, taldea lau multzotan zatitu zen, eta geroago lehenetsiko ziren zenbait proiektu identifikatzeko eskatu zitzaion; proiektu horiek dira xehetasun gehiagorekin azalduko direnak. Bada, identifikatutako proiektuak hauek dira:

- **GARABATAZ.** Arte tailerra.
- **DESART.** Garapena artearen bidez.
- **MI CV YA LO TIENES.** Pertsonala modu sortzailean aukeratzea.
- **REIVINDICART(E).** Errealitate sozialen errebindikazioa ahalbidetzen duten artistak.
- **EDUCADORES/AS “RESIDENTES” (HEZITZAILE “EGOILIARRAK”).** Zentro kultural eta artistikoetan “egoilar” bezala kolaboratzen duten hezitzaileak, bazterketa arrisku edo egoeran dauden pertsonengana zuzendutako esku-hartze proiektuak bultzatzeko (interes sozialeko beste proiektu batzuekin).
- **IBILALDI.** Ate irekien jardunaldiak, alor sozial eta kultureko eragile eta baliabideak bistartzeko.
- **JARDUERA KULTURAL/ESTETIKOEN GIDARI ZERBITZUA,** bazterketa egoera edo arriskuan dauden pertsonen gidariak izateko prestakuntza emanaz.
- **AUTISMOA DUTEN PERTSONENTZAKO ANTZERKIA,** autismoa duten pertsonen komunikazio tresna bezala eta haiekin komunikatzeko tresna bezala, haien mundura hurbiltzeko.

Horien guztien artean, lehenengo hirurak lehenetsi ziren. Aukeraketa egin ondoren, taldeka lan egin zen beren hasierako garapenean, alde zuzenetik landutako eskema bat -jarraian aurkeztuko duguna- oinarritzat hartuta. Proiektu bakoitza identifikatutako esku-hartze eremuekin lotu da.

Atal hau amaitzeko, lantegian izandako topaketatik abiatuta Kartzela Pastoraltzako Bidesari elkarteak eta Rekalde Aretoak (Bizkaiko Foru Aldundia. Kultur Saila) Basauriko espetxearekin jadanik bultzatu duten proiektuaren protagonistei emango diegu hitza.

GARABATAZ ³¹. Arte Tailerra

DESKRIBAPENA ³²

Proiektu honen bidez, sorkuntza artistikoaren kontzeptuaren inguruan kalean dagoen pertzepzioa aldatu nahi da, aldaketa hori landu nahi da. Eraldaketa hori lortzeko modu bakarra da praktika artistikoaren esperientzia kalera hurbiltzea, bere topiko elitistetatik askatuz eta beraren alderdi atsegin eta erlazionalak erakutsiz.

- **Praktika artistikoa eguneroko bizitzan sustatzeko eta hedatzeko proiektu bat da;** beraren bitartez, bizi-kalitatea hobetzen da eta kohesio soziala aktibatzen da forma berritzaile, harrigarri eta zirrargarrian.
- **Espazio atsegin bat da, pertsona “urrakorrentzat” eta/edo gizarteratzeko zailtasunak dituzten pertsonak hartzeko diseinatua.** Ez da espazio segregatua.
- **Loturak sortzen dituen espazio bat da:** pertsonen artean; pertsona eta kolektiboen artean; kolektiboen artean; kolektibo eta instituzioen artean... Bertan, elkarlana sustatzen da beste elkarte, kolektibo eta instituzio batzuekin.
- **Doako** zerbitzu bat da, kaletik hurbil jarrita; sarbide librea dago bertara, eta irekita dago komunitatearentzat.
- **Tamaina txikiko proiektu bat da:** udalerrikoa, tokikoa, auzokoa; ez du azpiegitura handirik behar, jadanik existitzen direnak erabil ditzakeelako, jarduera batzuk bertara eramanez. Eta proiektu handia ere bai, askotariko zerbitzuak eskaintzen dituelako eta hainbat motatako eginkizunak bete ditzakeelako (beti eskala txikian, horixe baita beraren bideragarritasunaren bermea).
- Jadanik **funtzionatzen ari diren espazioak eta jarduerak birpentsatzeko eta bizkortzeko aukera bat da** (adibidez: Kultur Etxeetan, eskulanak egiteko espazioak eskaintzen dituzten elkarteetan, adineko pertsonentzako egoitzetan...), elkarrekin lan egiteko eta elkar osatzeko.

31 Izenak garabato arrunta aipatzen du: jatorri bezala, konturatu gabe ere egiten dugun zerbait bezala, “edonork egiten duela” uste dugun zerbait bezala. Generoa aldatu diogu hitzari. “Z” bat jartzen diogu amaieran; horrela, gaztelaniaz irakurtzeko beharrezkoa da euskaraz ahoskatzea.

32 Helena Gonzálezek asmatutako proiektu hau lantegiaren ostean abiatu da. Dena dela, ideia aurretik zetorren, eta Helenak tailerra hartu zuen heldutasuna emateko espazio bezala.

ESKAITZEN DITUEN ZERBITZUAK ETA JARDUERAK

- **Tailer irekia.** Kalean bertan, sarbide librearekin (doakoa) eta goizeko eta arratsaldeko ordutegiekin. Tailer honetara edonor etor daiteke, nahi duten pertsona guztiak.

Espazio honetan, sorkuntza artistikoaren esperientzia erraztu nahi da alderdi askotan, arreta berezia zuzenduz urrakortasun egoeran dauden pertsonen, desgaitasunen bat dutenei, naturaltasunez gizarteratzeko espazio bat bilatzen dutenei.

Tailerretik gauzatu daitezkeen jardueren adibideak:

- Emakumeekin lan egiteko taldeak (artearen lana eta ahalduntzea), 8 eta 13 urte bitarteko neskekin lan egiteko taldeak (sorkuntza artistikoa eta ahalduntzea). Arrisku egoeran dauden nerabeekin lan egiteko taldeak.
 - Kutsu terapeutikoagoa duten taldeak (arteterapeuta eta psikologoekin batera, elkarlanean), problematika konkretuak jorratzeko.
 - Auzora zuzendutako esku-hartzeak: auzokideentzako gonbidapenak, argazki-kontaktuzunak, bideoak egitea, haur eta helduentzako jai artistiko txikiak.
- **“Kanpo” jarduerak.**

Pertsonak tailerrera ezin etor daitezkeenean GARABATAZek eskaintzen dituen zerbitzuak (adibidez: adineko pertsonekin egiten diren lanak, Basauriko egoitzetan), eta sentsibilizazio zerbitzuak, gai hauei buruz: artearen eginkizun soziala, kultur aniztasuna, generoa, kontsumoa... artearen bidez.

Sentsibilizazio lan hori bisita eta gonbidapenen bitartez egingo da. Helburua da sorkuntza artistikoaren balio positiboak transmititzea, artearen potentzialtasuna jakinaraztea eta artea ulertzeko moduaren inguruko topikoak desegitea (pertsona pribilegiatuentzako zerbituak, ezinbestekoa ez den luxuzko jarduera bat).

- **Prestakuntza eta orientazio jarduerak.**

Zerbitzu hau pertsona hauengana zuzentzen da: hezitzaileengana, gurasoengana, okupazio-terapeutengana... eta jarduerak pertsonekin garatzen diharduten pertsona guztiengana, beren baliabideei sorkuntza artistikotik datozen beste baliabide batzuk gehitu nahi badizkiete.

ZER PUBLIKORENTZAT (NORENGANA ZUZENTZEN DA?)

Komunitatea eta edozein pertsona, bai bazterketa, arrisku eta/edo urrakortasun egoeran badago eta bai horrelako egoeran ez badago.

HELBURUAK

Proiektu hau eskari erreal bati erantzuten dio, hots, Hirugarren Sektoreko erakundeetan lan egiten duten artista batzuek hainbat urtez entzun duten eskari erreal bati.

1) Espazio inklusibo bat eraikitzea sorkuntza artistikoarentzat.

Lehenengo helburu honek sorkuntza artistikorako lekuen eskariari erantzuten dio; leku egokiak behar dira bazterketa egoera edo prozesuan dauden pertsonak modu atseginian elkartu ahal izan daitezen zirkunstantzia horietan ez dauden beste pertsona batzuekin.

Elkarbizitzarako espazio bat, elkarren arteko ezagutza eta balorapena ahalbidetzen duena, eta sorkuntza artistikoak ahalbidetzen duen hurbilpen mota eskaintzen duena.³³

2) Artistari ahotsa ematea, eta artistari “entzun” ere bai.

Helburu hau bat dator bazterketa prozesuetan dauden pertsonekin izandako tratuan detektatutako behar batekin, alegia, **pertsona horiek “ahotsa”** izateko duten behararekin, **entzunak izateko behararekin.**

Asmoa da esperientzia sortzailea erraztea eta bitartekotza egitea, partikulartasuna ekarpen kultural bezala ager dadin. Eta, halaber, leku bat eskaintzea pertsonok partaide aktibo eta baliotsu bezala sentitu gaitzen.

3) Sorkuntza artistikoaren balio positiboak transmititzea eta berari buruzko ideia errealagoak sustatzea, beraren potentzialtasuna ezagutzera emanaz eta alderdi hauek azpimarratuz:

- gizatasunaren funtsezko osagai bezala duen garrantzia, bere originaltasunaren indize bezala eta osasun pertsonal eta sozialaren osagai bezala;
- jarduera artistikoa pertsona pribilegiatuentzako zerbait bezala -ezinbestekoa ez den luxuzko jarduera bat- aurkezten duten topikoak.

ESKU-HARTZE EREMUAK

- Garapen pertsonala eta ongizatea.
- Harremanen sustapena.
- Parte-hartze soziala.
- Sorkuntza eta ekoizpen kulturalak bistaratzea.

33 Sorkuntza artistikoaren esperientzia askotariko kolektibotan zenbait urtez sustatu ondoren, garbi geratu da jarduera hori (oinarizko giza jokabide bat) gauzatzen den bitartean oso handia dela subjektibitatearen eta partikulartasunen isuria edo “ihesa”, hainbestearino non oztopoak lausotu egiten baitira.

Sortzen den giroa plurala, alaitua, gozagarria, konplexua eta jario positibo handikoa da (“Mihalyi Csikszentmihalyik FLOW izenez deskribatu duenarekin identifikatzen dugu”), desioen sinergia indartsu bat, beste batekin elkartu eta bat egiten duena bere partikulartasuna galdu gabe, hain zuzen ere partikulartasun hori bestearengan indartu daitekeelako.

PROIEKTUAREN BALIO NAGUSIA

Proiektua bereizten duen ezaugarria da ez dela erabilgarritasunari begira pentsatutako espazio bat, edo espaziotik kanpo lortu nahi den helburu batez pentsatutakoa. Ekintza artistikoa da biltzen gaituena, eta bera da parte-hartzaile bakoitzak esploratu ahal eta nahi dituen edukien harrera-gunea (pertsonek asmatzen dituen edukien harrera-gunea).

Gure gizarteak ekoizpen-sistema postfordistak ezarritako beharrak asetzera zuzentzen ditu oinarritzko giza jokabide guztiak; sistema horretan, *“ezer ez egiteko uneak”* ere aisialdi bihurtu dira, hots, gidatutako aisialdi.

Gure ustez, sorkuntza artistikoaren praktikak eten egiten ditu inertzia horiek. Sorkuntza artistikoaren praktikaren laguntzarekin, konturatzen gara *“badela bizia kontsumotik haratago”*, konturatzen gara *“persona autore bezala bizi gaitzkeela”*.

Sorkuntza artistikoaren praktika iraunkorra, beste pertsona batzuen lanarekin eta beren irudimenezko dimentsioekin kontaktatzea, eta bitarteko eta materialen esplorazioa... lagungarriak dira irudimenezko horizontea zabaltzeko, gure eguneroko bizimoduaz bestelako modu batean pentsatzeko.

GAKOAK

- Kontuan hartu beharreko elementu garrantzitsuena hauxe izango litzateke: pertsonak zaintzea, entzutea, ekintza sortzailean laguntzea eta haien sorkuntza-lanen lekuko eta bideratzaileak izatea. *“Gustatzen zaigu pentsatzea gure lana bitartekotza-lan bat dela, pertsonen potentzialtasun sortzailearen eta horren balioa beren eguneroko bizitzaren errealitatean erakustearen arteko bitartekotza-lana.”*
- Artea eta sorkuntza artistikoa honela ulertzea:
 - jaitik eta gizatasunaren ospakizunetik gertu dagoen giza jokabide bat, kohesio soziala errazten duena. Gure ustez, sinergia positibo, atsegin, sortzaile eta irekiek efektu iraunkorrak sortzen dituzte pertsonengan, harreman sozialak hobetzeaz batera.
 - eguneroko bizitzari lotutako proposamen bat, bizitza hori (bir)pentsatzea eta eraldatzea ahalbidetzen duena, eta, eguneroko bizitza bere lehengai den aldetik, *“eskuak masan sartuta”* gauzatzen dena.
- Espazio sozial fisiko eta ideologiko bat eraiki, pertsona guztien aldetik eta pertsona guztientzat, zaintza, adeitasuna eta sormena paradigmaztat hartuta.
- Profesionalen eta baliabideen artean kolaboratzea.

BALIABIDE NAGUSIAK

- **Pertsona bideratzaileak**
 - Profesionalak eta ez-profesionalak, sorkuntza artistikoaren modaliteren bat praktikatzen dutenak eta askotariko jarduerak baliabide xumeekin garatzeko gai direnak.
 - Profesional bat administraziorako.
- **Azpiegiturak:**
 - Lokal bat.
 - Askotariko material fungiblea, eskariaren arabera biltzekoa.
 - Ordenagailua, inprimagailua, interneterako konexioa.
- **Sareak eta lankidetzak:**
 - Konexioak mota bereko beste esperientzia batzuekin.
 - Harremanak udalerriko elkarte-sarearekin.
 - Lankidetzak eta koordinazioa udalaren zenbait instantziarekin (kultura, berdintasuna, gizarte ongizatea...), eta baita osasun, asistentzia eta hezkuntzaren eremukoekin (institutuak, eskolak, HHE...).
- **Harremanak tokiko negozio eta saltokiekin**, azpiegitura batzuen hornidurarako, material fungiblea eskuratzeko... Kontsumoaren filosofia birziklapenaren filosofiaz ordeztu, faboreen kateak, trukea, eta abar.

OZTOPO NAGUSIAK

Proiektu honetan, taldeak uste du oztopo nagusietako bat beraren garapenerako aukerekin duela zerikusia.

1. Oztopoa: Proiektuaren identitateari buruzko ideia arrunt eta estereotipatuak.

- 1. aukera: gure zeregina ideia horiek ezeztatzea da, hain zuzen ere. Ez gaitu molestatzen ez nahasmenduak ez kaosak. Ez zaigu axola pintura akademia batekin nahastu gaitzatela. Nahasmendu hori lehenengo hurbilpena izan daiteke, eta gure alde joka dezake.

2. Oztopoa: Finantziarioa.

- 2. Aukera: Gure ustez, dirurik ez izatea ezin da oztopoa izan, zeren ez baitugu sinesten "diruak mundua mugitzen duenik". Beraz, gure funtzionamenduaren alderdi asko lankidetzak moduan gauzatu dira. Adibidez: azpiegitura eta oinarriko materialetarako, laguntza eskatzen diegu udalerriko merkatariei, erabiltzen ez dituzten material edo gaiak emateko, edo lokala berriztatzeagatik bota nahi dituzten altzariak helarazteko, eta abar.
- 2bis. aukera: Iturri bakar baten mende jartzen ez gaituzten finantziario formak ikertzea. Irabazi-asmorik gabeko elkarte bat eratu dugu ("GARABATAZ, arte y sociedad"), eta agian mini-kuota sistema bat ezarri ahal izango dugu. Halaber, adi gaude udalak elkarreentzat ematen dituen laguntzen aurrean, gainerako laguntza publikoen aurrean (bekak, proiektuentzako laguntzak, eta abar) eta deialdi pribatuen aurrean ere. Halaber, espero dugu beste finantziario formatu batzuekin ere lan egitea, hala nola, masa-finantziarioa (crowdfunding), gure sare sozialen bitartez.

SOSTENGU NAGUSIAK

- Pertsona hauen sostengua dugu edo izan genezake:
 - inklusio sozialaren alorrean lan egiten duten profesional eta erakundeak, gure proiektua desiragarria dela eta gure komunitatearen barnean zentzuko lekua betetzen duela usten dutenak;
 - nolabaiteko handicapak duten pertsonen senideak, aurkezten dugunaren moduko espazio bat begi onez ikusten dutenak;
 - artearen pedagogiaren eremuko profesionalak, udalerrian modu pribatuan lan egiten dutenak eta proposatutako espazioa guztiontzat komenigarria dela uste dutenak.

ZER DA BERE BURUAZ GEHIEN GUSTATZEN ZAIONA? NOLA HOBETU DAITEKE PROIEKTUA?

- Artea sozializatzea, eskalako txikiko eraldaketa tresna bezala, tokiko mailan.
- Jadanik existitzen diren espazioak biziberritzea (kultur etxea...) eta birpentsatzea. Birziklapena.
- Proiektuaren handinahia; oso proiektu konplexu eta osatua izatea.

DESART / Artearen bidezko garapena

DESKRIBAPENA

Hezkuntzaren eta esku-hartze sozialaren alorreko pertsoneri laguntzeko programa, arte eta kulturaren bitartez -akonpainamendu programa-.

Kontua da hezitzaile, gizarte langile, psikologo, psikopedagogo eta gisa bereko profesionaleri laguntzeko prozesuak sortzea, artearen bitartez.

Artea erabiliko litzateke gozamenerako tresna bezala, beren ongizate pertsonala hobetzeko, beren buruaren zaintzarako eta beren lanean gero aplikatu ditzaketen teknikak eta estrategiak eskuratzeko.

Asmoa da topaketa eta prestakuntza prozesuak sortzea:

- bazterketa, arrisku edo urrakortasun egoeran dauden pertsonekin esku hartzen duten profesionalen artean, edo artea beren esku-hartzean eta/edo beren buruaren zaintzarako erabiltzen duten edo erabili nahi duten profesionalen artean -hainbat alorretako profesionalak- ;
- diziplina artistikoetan modu ludikoan sartu ahal izateko eta diziplina horietako bakoitzak eskaini ditzakeen tresnak ezagutzeko.

ESKAITZEN DITUEN ZERBITZUAK ETA JARDUERAK

- 1) **Prestakuntzarako “desart” espazioak** (kanpoko eskaintza).
- 2) **“Desart” espazioak instituzio/erakunde bakoitzean.**
- 3) **Topaguneak** (espexkeko kolektiboa, desgaitasunak dituzten pertsonena...) hezitzaile eta artisten artean... sareak eratzeko eta esperientziak trukatzeko.

DESART espazioek tailer formatua izango dute (pintura, eskultura, musika, antzerkia...), eta beren edukiak zerikusia izango du norberaren zaintzarekin eta/edo arte eta adierazpen artistikoaren bidezko esku-hartzearekin. Tailer batean izena emateko erabakiak zerikusia izango luke bilatzen den hobekuntzarekin edo esku-hartzearekin, kasu bakoitzaren arabera.

ZER PUBLIKOARENTZAT

Hezitzaileak eta gizarte langileak, psikologoak, psikopedagogoak... (hezkuntzaren eta esku-hartze sozialaren alorreko pertsonak).

Hirugarren sektoreko instituzioak eta erakundeak.

HELBURUAK

- Hezkuntzaren eta esku-hartze sozialaren alorrean diharduten pertsonen **ongizatea sustatzea**.
- **Pertsonak zaintzen dituen profesionala zaintzea**, arte eta kulturaren bidez.
- **Beren gaitasunen garapena ahalbidetzea**; geroago beren lanean erabil ditzaketen tresna berriak ezagutzera ematea.
- **Topaguneak** eta elkarren arteko eraginerako **espazioak sortzea** artisten eta alor horietan diharduten pertsonen artean. Eta sortzea, horren bidez, hobekuntza eta estimulazio prozesuak, ideia berrien sarrera, erregistroak eta ekintzarako aukerak.

ESKU-HARTZE EREMUAK

- Garapen pertsonala eta ongizatea.
- Harremanen sustapena.
- Gaikuntza, ezagutzera iristea eta gaitasun artistikoen garapena.
- Adierazpen artistikoaren sustapena.

PROIEKTUAREN BALIO NAGUSIA

- Profesionalen bizi-kalitatea hobetzea, artearen bidez.
- Beren hezkuntza-lanean gero aplikatu ahal izango dituzten tresna artistikoak ematea profesionali.
- Artistak/sortzaileak hezkuntzaren eta esku-hartze sozialaren alorreko lan-testuingurura hurbiltzea, eta, alderantziz, profesional horiek ingurune artistikora hurbiltzea.

GAKOAK

- Pertsonak zaintzea eta pertsonen entzutea, haien ondoan egotea ekintza sortzailean, eta haien sorkuntza-lanen lekuko eta bideratzaileak izatea.
- Artearen alorreko tresnak eta ezagutza ikastea.
- Diziplina artistikoen arteko topaketa-prozesuak sortzea, eta jakintza eta erregistroak hibridatzea, zaintza-esparruak eta ekintzarako aukera berriak sortzeari begira.
- Proiektua erakunde bakoitzaren ezaugarrietara egokitzea.

BEHAR ETA BALIABIDE NAGUSIAK

- Talde antolatzailea.
- Sareak sortzea, elkarren artean konektatzea...

OZTOPO NAGUSIAK

- Erakundeen erreparoa lanaldiaren ordu batzuk “desart” espazioentzat uzteko.
- Artistek ez ezagutzea, aldez aurretik, zein diren hirugarren sektoreko erakundeen beharrak eta kolektiboen berezitasunak.
- Esku-hartze sozialaren alorreko profesionalen artean interes edo motibaziorik ez egotea -hori gerta daiteke- horrelako espazioetan parte hartzeko.

SOSTENGU NAGUSIAK

- Ideiaren freskotasuna.
- Konexio eta kontaktatzeko gogo handia egotea esku-hartze sozialaren alorreko pertsonen eta artisten artean.
- Ziur egotea esperientzien emaitza positiboaz, hots, ondo jakitea bi espazioen arteko topaketa-prozesuak oso esperientzia positiboak sortzen ari direla erakundeen hartzaileentzat.
- Profesionalen prestakuntzarekin eta berrikuntza espazioekin zerikusia duten deialdien bidez finantzatzeko aukerak.

MI CV YA LO TIENES. Pertsonalaren aukeraketa sortzailea

DESKRIBAPENA

Pertsonala modu sortzaile edo kreatiboan aukeratzeko proiektu bat da.

Kontua izango litzateke alternatiba bat sortzea pertsonalaren aukeraketaren ohiko kanalentzat; horri begira, topaketarako/konexiorako espazio informal eta sortzaileak asmatuko lirateke, pertsona langabeak eta kontratatzeke interesa izan lezaketen pertsona edo erakundeak biltzeko.

ESKAITZEN DITUEN ZERBITZUAK ETA JARDUERAK

Proiektuak bi fase izango litzuzke, artisten parte-hartzearekin:

- 1. fasea:** prestakuntza-lan bat garatzea langabezia dauden pertsonekin.
- 2. fasea:** topaketak edo ekitaldiak diseinatzea eta langabeen ondoan egotea beren agerraldi publikoetan, leku hurbiletan (tabernak, jatetxeak, kultur zentroak...).

ZER PUBLIKORENTZAT

Publikoa hauxe izango litzateke: pertsona langabeak eta pertsonala kontratatu behar duten enpresak edo pertsonak.

Jarduera honen publikoa pertsona langabeen kolektiboa izan arren -orokorrean-, interes berezia eskainiko litzaieke langabezia-aldi luzeko pertsonari eta bazterketa sozialeko egoeran dauden beste pertsona batzuei.

HELBURUAK

- Asmoa da pertsonalaren aukeraketa humanizatzea eta espazio informalak sustatzea enpleguaren eskari eta eskaintzarentzat.
- Lana bilatzeko forma konbentzionaletan sartzen ez diren edo ikusten ez diren gaitasun eta jarrera berriak bistaratzea eta bideratzea -espazioak emanez-.

ESKU-HARTZE EREMUAK

- Enplegu eta okupaziora iristeko bideak.
- Harremanen sustapena.

PROIEKTUAREN BALIO NAGUSIA

Proiektuaren ideia nagusia da lana bilatu behar duten pertsonen bilaketaren unean sortzen zaien problematikari erantzutea.

Proiektu honekin, **lan-merkatura hurbiltzeko bide berriak eskaini** nahi zaizkie lana bilatzen duten pertsonen. Halaber, **kontaktatzeko espazio berri eta desberdinak eskaini nahi dizkie eskatzaileei eta enplegua eskaintzen duten pertsona, enpresa edo erakundeei.**

Topaketa-prozesu horrek guztiak pertsonen duintasuna hartu nahi du abiapuntutzat, eta baita curriculumaren alderdi formaletatik haratago enplegatzaileari egin ahal zaizkion ekarpenak ere (curriculumaren alderdi formalak erraz identifikatzen dira).

Kontua izango litzateke honelako alderdien balioa azpimarratzea: motibazioak, harremanak izateko gaitasuna, hurbiltasuna, balio pertsonalak eta akonpainamendu-prozesuen bidez identifikatutako beste hainbat.

Azken batean, asmoa izango litzateke enplegua bilatzeko eta eskaintzeko espazioak ikuspegi kreatibotik sortzea.

Idea da diziplina artistikoak erabiltzea ikaskuntza eta adierazpen prozesuak sortzeko, horren bidez nolabaiteko freskotasuna emateko espazio horiei, aukeraketa-prozesu arruntetan nekez erakutsi daitezkeen alderdi pertsonal batzuk nabarmentzeaz batera.

Halaber, ekimenaren beste helburu bat izango litzateke pertsonak aukeratzeko prozesuak humanizatzea, giza alderdiak eta harremanekin zerikusia duten alderdiak bultzatuz, topaketa horiek gauzatzera zuzendutako espazio hurbilak sortzeaz batera.

GAKOAK

Artistak “akonpainamenduan” kontuan hartu beharko litzuzkeen alderdi garrantzitsuenak -gakoak- hauexek dira:

- Pertsonen alderdi positiboenak bistaratzea.
- Norberaren gaitasunen adierazpen egoki eta sortzailea bultzatzea.
- Jendaurreko agerraldien oinarritzko teknikak bereganatzea.
- Konfiantza eta ahalduzko prozesuak sortzea pertsonarekin, beraren enplegua biltzeko prozesuan.

Prozesu honetako beste gako garrantzitsu batzuk hauexek dira:

- Pertsona sorkuntza artistikoko prozesu baten erdigune eta protagonista da; horrelako prozesuetan aditua den pertsona baten laguntzaz, horrek bidea emango dio bere potentziala adierazteko, modu beteagoan eta sortzaileagoan.
- Espazio fresko, berritzaile, hurbil, abegikor, ireki, atsegin eta lotesleak sortzea.
- Topaketa eta hurbilketa prozesuak sortzea askotariko eragileen artean: elkarlana eta hibridazioa artisten, hezitzaileen, enplegu-sustatzaileen, enplegua eskaintzen duten erakundeen eta eskatzaileen artean. Horri begira, prozesu osoaren komunikazioa funtsezkoa izango da.

BALIABIDE NAGUSIAK

- Langabezian dauden pertsonak.
- Proiektua bultzatzen duten pertsonak edo erakundeak.
- Finantziazioa (enpleguaren sustapenerako laguntzak).
- Artista + hezitzailea/alor sozialeko profila: langabezia-aldi luzeko pertsonak atenditzeko, egoera hori eta beste bazterketa egoera batzuk nolabaiteko zailtasun mailaz edo kronikotasunez pairatzen badituzte.
- Artista + lanaren alorreko aditua: langabezia profil “normalizatuagoentzat”.
- Erakunde eta pertsona kontratatzaileak.

OZTOPO NAGUSIAK

- **Berritasunarekiko beldurra**, batez ere lana bilatzen duten pertsonen kasuan, horrek agerian uzten dituelako, pertsona moduan, pertsona eta erakunde kontratatzaileen aurrean.
- **Masa kritikoa lortzea** (proiektuagatik interesatu daitezkeen pertsonen mobilizazioa).
- **Finantziatorik ez lortzea** (gutxieneko oinarria behar da).

SOSTENGU NAGUSIAK

- Oinarritik sortzen den proiektu bat da, pertsona arrunten behar eta errealitateak. Ez dago instituzionalizatuta, eta, hortaz, proposamen fresko eta erakargarria izan daiteke.
- Langabezian dauden pertsonak eta enpresa/erakunde kontratatzaileak. Topagune berriak sortzeko duten beharra.
- Espazio sozial, kultural... batzuk (fisikoak), proiektua garatzeko leku bezala erabil daitezkeenak.
- Sare sozialak, komunikaziorako eta proiektuaren hedapenerako motor bezala.

NOLA HOBETU DAITEKE PROIEKTUA? ZEIN DA BERAREN ALDERDI GUSTUKOENA?

- Bada behar erreal bat.
- Oso interesgarri eta praktikoa izan daiteke bazterketa egoeran dauden pertsonentzat.
- Pertsonak zuzenean ager daitezke espazio horietan, beren aurkezpena pertsonalizatuz eta azpimarragarriak izan daitezkeen alderdi subjektiboak nabarmenduz.
- Jokoa jarritako gaitasunak lehenesten dira curriculum edo elkarrizketa formal baten bidez egiaztatutako gaitasunen aldean.
- Aukerak eskaintzen dizkie esperientzia izan arren curriculum-garapen normalizaturik ez duten pertsonen (prestakuntza, lan kontratuak...).

Jarraian, xehetasun gutxiagoz, identifikatutako beste hiru proiektu aurkeztuko ditugu.

REIVINDICART(E). Errealitate sozialen errebindikazioa errazten dute artistak

DESKRIBAPENA

Proiektuaren oinarria da artistak erakundeekin lotzea, langileei, herritarrei... zer gertatzen ari den kontatzen laguntzeko: zer gertatzen den, zein diren beren eskariak, haur autista zer den azaltzea, ijito herria zer den, zergatik borrokatu behar dugun HIESaren estigmaren aurka...

Abiapuntuan dagoen ideia da posible dela elkarteei eta familiei laguntzea... gai horiek gizarteari hobeto helarazteko, hau da, aurkezpenak sormen eta nobedade handiagoz eginez, artisten lankidetzaren bitartez. Hala, artistak Erakundeek landutako edukari buruzko sentsibilizazio, salaketa edo errebindikaziorako proposamenak egiten saiatuko lirateke, modu sortzailez eta beren adierazpideen bitartez.

ZER PUBLIKORENTZAT

Herritarrak -oro har-, Hirugarren Sektoreko erakundeak, gizarte mugimenduak.

HELBURUAK

- Sentsibilizazio, salaketa edo errebindikazio mezuak transmititzea, aurkezpen sortzaile eta artistikoen bitartez.
- Topaketarako bide bat eskaintzea erakundeei eta eraldaketa sozialaren aldeko sentsibilizazioa duten artistei.

ESKU-HARTZE EREMUAK

- Sentsibilizazio eta salaketa.
- Parte-hartze soziala.
- Harremanen sustapena.

PROIEKTUAREN BALIO NAGUSIA

Aurkezpena egiteko proposamenen sormenak erakundeen forma eta klitxeak apurtzen ditu, beren errebindikazioak aurkezteari dagokionez.

Bidea eta egitura ematea artearen alorreko pertsonen parte-hartzeari, hots, eraldaketa prozesuetan inplikatzeko gogoia duten baina hori nola egin ez dakiten artisten parte-hartzea bideratzea eta egituratzea.

GAKOAK

Lankidetzaren horiek bideratzeko sor daitekeen espazioa edo egitura espazio ireki eta ezaguna izan behar da, eta bai erakunde sozialak eta bai kulturaren alorreko pertsonak bildu behar ditu. Ez da oso egitura astuna izan behar, ezta pertsona askoz osatuta egon behar ere, baina malgua izan behar da eta elkar loturak bizkortasunez bultzatu behar ditu.

“HEZITZAILE EGOLIARRAK”: kultur etxeetan, artearen espazioetan

DESKRIBAPENA

Proiektuaren ideiarene abiapuntua da kulturaren eta espazio kulturalen irisgarritasuna hobetu behar dela pertsona eta kolektibo jakin batzuentzat; pertsona eta kolektibo horiek, beren ezaugarriengatik, akonpainamendu handiagoa behar dute baliabide horietatik eskaintzen diren ondasun kulturaletara iristeko, ondasun horiek ulertzeko eta haietaz gozatzeko.

Horretarako, proiektuak hauxe planteatzen du: gizarte hezitzaile baten presentzia zentro kulturaletan eta artearen espazioetan, sustapen kulturalerako jarduerak sortzen laguntzeko, kolektibo jakin batzuekin, gizarte erakundeekiko elkarlanetik abiatuta.

Egitura kulturalen barnean dauden langileei begira, kontsideratzen da presentzia horrek bestelako ikuspegi bat helaraz diezaiekeela, normalean eurekin harremanik izaten ez duten beste pertsona batzuen errealitate eta profiletik gertuago dagoen ikuspegi bat, hain zuzen ere. Pertsona eta erakunde horiekin dituen esperientzia eta harremanetatik abiatuta, hezitzaileak aukera berriak sor ditzake sustapen eta hedapen kulturalarentzat.

Asmoa izango litzateke bai pertsonak zentro kulturaletara hurbiltzea eta bai zentro horien proposamenak auzo, erakunde eta kolektiboengana hurbiltzea.

Hezitzaileak zentro kulturaletan eta artearen espazioetan egoteari dagokionez, presentzia hori beren egituren baitan kontuan hartu liteke, beren organigrametan edo aldi baterako harrerarealdietan (egonaldiak edo bitartekotasuna [interinaje]), edo, horrez gain, pertsonen elkarlana edo trukeak planteatu litezke -intentsitate handikoak edo txikiagoak- erakunde kultural eta sozialen artean.

Era horretan, erakunde edo espazio kulturalerako instituziotik kanpoko pertsonak hartuko lituzkete, bertan kolaboratzeko edo ekarpenak egiteko proiektu edo programa konkretuetan, bestelako ikuspegi batez.

Edozein kasutan, kontua izango litzateke proiektuak garatzea, ez -ezinbestean- heziketa sail edo alor bat txertatzea zentro kultural edo artistikoetan; garrantzitsua dena da hezitzaileak zentroko taldean parte hartzea, eta proiektua modu egokian uztartzea zentroarekin.

ZER PUBLIKORENTZAT

- Herritarrak, orokorrean, batez ere bazterketa edo arrisku egoeran dauden pertsonak eta kolektiboak, desgaitasuna duten pertsonak...
- Hirugarren Sektoreko erakundeak, gizarte mugimenduak.
- Hedapen kulturalaren alorreko erakundeak eta espazioak.

HELBURUAK

- Ondasun kulturaletara iristeko bide hobeak eskaintzea espazio horietara iristeko zailtasunak dituzten pertsona eta kolektiboei, edo, izatez, bertara gutxitan iristen direnei.
- Bestelako profilak dituzten pertsonekin kolaboratzearen eta elkarrearen bidez, ikuspegi berriak eta lan egiteko eta esku hartzeko aukera berriak eskaintzea zentro kulturaletan eta gizarte erakundeetan.

ESKU-HARTZE EREMUAK

- Sorkuntza-lan eta ekoizpen kulturalak bistaratzea.
- Prestakuntza, ezagutzarako irisbidea eta gaitasun artistikoen garapena.
- Adierazpen artistikoaren sustapena.
- Antolakuntzaren eraldaketa.

PROIEKTUAREN BALIO NAGUSIA

Kulturara iristeak bazterketa, arrisku edo urrakortasun egoeran dauden pertsona eta kolektiboen ongizate pertsonalarentzat eskaintzen dituen aukerak garatzea, eta pertsona horiek ondasun kulturaletara iristeko izaten dituzten zailtasunei aurre egitea.

Behar hori oso agerikoa da eta kulturaren eta esku-hartze sozialaren alorreko erakunde eta instituzioek konpartitzen duten kezka bat da.

GAKOAK

Kasu honetan ere, aurreko proiektuan bezala, ekimen eta lankidetzak hauek bideratzeko sor daitezkeen espazio edo egitura espazio ireki eta ezaguna izan behar da, eta bai erakundeak eta bai kulturaren eremuko pertsonak bildu behar ditu.

Ez da oso egitura trinkoa izan behar, eta ez da beharrezkoa pertsona asko biltzea, baina malgua izan behar da eta interkonexio handikoa.

IBILALDI

DESKRIBAPENA

Ate irekien jardunaldiak, eragile eta baliabide komunitarioak bistartzeko, hainbat diziplina artistiko erabiltzearen bitartez (pintura, antzerkia...).

Proiektuaren abiapuntua errealitatean antzematen den zerbait da, alegia, auzokide askok ez dituztela ezagutzen beren bizilekuko baliabide komunitarioak (aisialdiarekin zerikusia dutenak, kulturalak, sozialak...).

Hala, ibilaldien eta ate irekien jardunaldien antolaketa eredutik abiatuta, asmoa izango litzateke baliabideak auzokideengana hurbiltzen dituen IBILIALDI bat antolatzea, aurrena auzoz auzo eta gero auzo batzuk batuta.

Alde batetik, tokiko erakundeak, taldeak eta baliabideak (publikoak eta pribatuak) aurkeztuko lirateke, ibilbide baten bitartez; eta, bestetik, espazio konpartituak antolatuko lirateke, auzoan bertan, jendeak aukera izan dezan erakundeak edo taldeak ezagutzeko, eta baita haien proiektuak eta bertan parte hartzen duten pertsonak ere ezagutzeko.

Asmoa izango litzateke ezagutzera ematea:

- herritar guztiei: bazterketa edo arrisku egoeran dauden pertsonak barneratu nahi dituzten proiektuetan lan egiten duten baliabideak, herritarren laguntza eskatuz;
- bazterketa edo arrisku egoeran dauden pertsonen: komunitate osoaren esku dauden baina -hainbat faktorerengatik- pertsona horiek erabiltzen ez dituzten baliabideak.

Hori guztia zenbait diziplinako artisten akonpainamenduarekin egingo litzateke, horrek hobetuko bailituzke bai “eszenaratzea” eta bai parte hartzen duten erakunde, talde edo instituzioen komunikazio prozesua.

Proiektua fase hauetan gauzatuko litzateke:

- Talde / elkarte / instituzio bakoitzak bere espazio eta jarduera irekiko lituzke, zer den eta egiten duen ezagutzera emateko.
- Talde / elkarte / instituzio bakoitzak bere jarduera kanporantz komunikatzeko prozesu bat sortuko luke (ibilaldiaren aurreko fase bezala).
- Ibilaldia.

ZER PUBLIKORENTZAT

Komunitatea, auzoa, batez ere alor sozial eta kultureko talde, erakunde eta pertsonak.

HELBURUAK
<ul style="list-style-type: none"> • Jarduerak eta proiektuak ezagutzera ematea, parte hartzeko espazioak eta aukerak sortuz. • Pertsonen ahalduntzea sustatzea, baliabide komunitarioetara iristen eta baliabide horiek erabiltzearen bidez.
ESKU-HARTZE EREMUAK
<ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartze soziala. • Harremanen sustapena. • Adierazpen artistikoaren sustapena.
PROIEKTUAREN BALIO NAGUSIA
<p>Alor sozial eta kulturalaren sektore publiko eta/edo pribatuko pertsonak, proiektuak, programak... bistaratzea, eta herritarrak inklusio sozialera zuzendutako ekimenekin kolaboratzera bultzatzea; halaber, baliabide normalizatueta (herritar guztiengana zuzentzen direnak) iristen laguntzea bazterketa, arrisku edo urrakortasun egoeran dauden pertsonen.</p>
GAKOAK
<p>Artista edo sortzaileek laguntza ematen dute, beren adierazpen-baliabideen bitartez, taldeak eta erakundeak aurkez daitezzen eta komunikazio prozesu bat garatu dezaten.</p>

REKALDE ARETOAREKIN ELKARLANA - Kartzela Pastoraltzako BIDESARI Elkarte

Elkartea izan genituen gurekin. Eta lanegiaren helburua artea eta bazterketa edo urrakortasun egoeran dauden pertsonen inklusio soziala uztartzea zenez, lanari ekin genion, batez ere bi alderdiak interesatuta zeudela ikusi ondoren.

Pentsatu genuen onena zela esertzea eta hitz egitea, bi erakundeak aberastuko zituzten sinergiak nola sortu zitezkeen ikusteko.

Alde batetik, pentsatu genuen Rekalde Aretoa gehiago hurbildu behar zela bazterketa sozialeko arrisku edo egoeran dauden taldeengana, zeren artea kulturaren zati baita, eta beraz, gizartearen sektore guztietara iritsi behar da. Batez ere guztiok sinesten badugu gizarte integratzailean. Izatez, aretoak urte batzuk daramatza lan egiten arrisku edo bazterketa sozialeko egoeran dauden pertsonekin, bisitaldi komentatuak eskainiz. Eta jarduera horrek, gainera, harrera ona izan du elkarteetako pertsona erabiltzaileen aldetik.

Beste alde batetik, Bidesarik, preso dauden pertsonekin lan egiten duen hezkuntza-elkartea den aldetik, aurrerapauso bat egin behar du eta artea (hemen beraren adierazpide guztiak sartzen dira: pintura, argazkia, eskultura, eta abar) helarazi bere lanaren xede diren pertsoneri.

Hasierako elkarrizketa horren ostean, eta bi alderdiek abentura hori asteko gogoia zutela berretsita, pentsatu genuen beharrezkoa zela Bidesariko egoitza-baliabideen arduradunek Rekalde Aretoa ezagutzea, elkarren artean zentzua aurkitzeko proposamen artistiko eta hezitzaile honentzat.

Hala, lehenengo pausoa izan zen Rekalde Aretoaren lana ezagutzea, beraren bisitaldi komentatuen bitartez. Bisitaldi horiek bisitariaren eta bitartekariaren arteko elkarrizketa ahalbidetzen dute. Ez dira gidatutako bisitaldi arruntak; aitzitik, proposamen honetan zerbait ludiko eta errazetik lotzen gara artearekin, pertsona bakoitza bere izanarekin eta daukanarekin jartzen da artelanaren aurrean: bere bizi-historiarekin. Espazio horretan, pertsona bere bizipen, interes eta ezagutzaren bidez hurbiltzen da artelanera. Obrari buruzko ikuspegi artistikoa hartzen da (obra gustatzen zaiola edo gustatzen ez zaiola adierazten du ikusleak), eta ibilbidean zehar hobeto ezagutu daitezke pertsona artistaren eta beraren obraren arazoak; bertan, bakoitzak irudika dezake, usaindu, jolastu, sentitu... eta azkenean bere artelan propioa egin... zeren jende guztiak baitu sortzeko ahalmena.

Bidesariren aldetik, ikusi genuen bisitaldiaren estilo hezitzailea gustatzen zitzaigula, zeren protagonismoa obra ikustera datorren pertsonarengan uzten baitu; horri esker, elementu ugari landu daitezke, eta bidea ematen du artea gure bizitzetara hurbiltzeko, modu erraz, zuzeneko eta polit batean. Artea hasten da bere urruntasuna galtzen, eta jakin-mina pizten digu.

Beste urrats bat falta zitzaigun. Bidesarik espetxearen barruan ere lan egiten du, **eta erronka iruditzen zitzaigun Rekalde Aretoaren proposamen artistikoa Basauriko espetxera hurbiltzea. Nola izango ginen gai Rekalde Aretoaren erakusketa deszentralizatzeko eta Bidesariren pertsona hartzaileengana hurbiltzeko?**

Bilboko beste kultur erakunde batzuek bazituzten horrelako programak, baina kasu honetan nahi genuena zen protagonismoa parte-hartzaileek berek izatea. Hala, Rekalde Aretoaren proposamena motortzat hartu genuen pertsonen ahalduntzea eta errealtateari buruzko ikuspegi kritikoa izateko gaitasuna erraztuko zituzten dinamikak eta praktikak sortzeko, ikuspuntuak konpartitzeaz eta desberdinen arteko elkarriketa sustatzeaz batera.

Proposamena Basauriko Espetxean aurkeztu zen aurrena, eta oso erakargarria iruditu zitzairen. Beraz, bagenuen beren sostengua.

Geroago, bertan preso dauden pertsonen galdetu zitzairen, zeren eta, azken batean, horiek baitira pertsona interesatuak, jardueraren hartzaileak. Eta, pertsona askok pentsa dezaketena gorabehera, espetxean bizi diren pertsonen badute gogoia esperientzia berriak ezagutzeko eta beren aisialdia aprobetxatzeko; gainera, pertsona batzuek badituzte gaitasunak edo zaletasuna adierazpen artistikoren baten inguruan: pintatzea, modelatzea, eta abar. Oso garrantzitsua zen beren interesa edo interesik eza ezagutzea, proposamen sortzaile batez haiengana hurbiltzeko metodologia asmatzerakoan.

Espetxearen eta presoaren sostengua lortuta, erraza iruditzen zitzaigun proposamena gauzatzea; izan ere, gaur egun baditugu helburuak betetzea ahalbidetzen diguten bitarteko teknologikoak, eta, gainera, sormen kontua da.

Errekalde Aretoan bertan, balio erantsietako bat zen jatorrizko obra gure aurrean izatea; kasu honetan, berriz, bideragarriagoa zen proiektore bat izatea aldi baterako erakusketaren obrak edo instalazioak bistartzeko eta horien inguruan lan egin ahal izateko, objektu artistikoak sortzakeen gogoeta eta proposamenengatik interesatuz, objektuagatik beragatik baino gehiago.

Aukera horrek, gainera, obrak alde aurretik aukeratzera behartzen gintuen, komentatzeko edo haien inguruko gogoeta edo eztabaida sustatzeko egokienak zirenak aukeratzu. Kontua ez da obra guztiak aurkeztea, zeren bisitaldi komentatuaren asmoa ez baita pertsona estimuluz betetzea, baizik eta adierazpen artistiko horietako batzuk sortzen dituzten sentimendu eta emozioak piztea pertsonarengan.

Adierazpen horiek ez dira beti positiboak izan behar. Aitzitik, baliteke obra pertsonaren gustukoa ez izatea, zalantzak sor diezazkioke, liluratuta utz dezake.... bada horretarako askatasuna. Egia da, dena dela, azalpen batzuk lagungarriak izan daitezkeela artearen aurrean ditugun aurreiritzi batzuk apurtzeko, zeren hurbilpen hori ez baitugu ezta eskolan izan, edo bizitzaren beste une batzuetan.

Oraingoz, lehenengo saioa egin dugu, Rufo Criadoren *Sonidos de agua* erakusketarekin. Beraren bidez, erreposoa eman diegu pintura abstraktuari eta pintura eta eskulturaren abstrakzio geometrikoari.

Lankidetzaren formatuari dagokionez, plantatzen da ordu eta erdiko saio bat egitea hilean, gutxi gorabehera. Badugu erabateko askatasuna saioak planifikatzeko, Rekalde Aretoko erakusketen egutegiaren mende egon gabe, zeren erabiltzen dugun material guztia digitala baita. Gainera, erakusten diren artelanak beren testuinguruan jartzen dira beste artista batzuen irudiekin batera -artista horiek komentatzen ari garen autorearen garai berekoak izan daitezke, edo iraganekoak-.

7. Bibliografia eta erreferentzia bibliografikoak

BEL ADELL, C. *Exclusión Social: origen y características*. Ikastaroa: “Formación específica en Compensación Educativa e Intercultural para Agentes Educativos”. Murtzia, 2002ko Urtarrilaren 30a. [Linean] Dirección General de Formación Profesional, Innovación y Atención a la Diversidad de la Universidad de Murcia. Interneten eskura daiteke: http://enxarxats.intersindical.org/hee/CE_exclusio.pdf

CARNACEA, A Y LOZANO, A (COORD). *Arte, intervención y Acción social. La creatividad transformadora*. Ed. Grupo 5, Madril, 2011.

CASTEL, R. *La metamorfosis de la cuestión social. Una crónica del salariado*, Ed. Paidós, Buenos Aires, 1997.

FUNDACIÓN FOESSA VI Informe Foessa sobre exclusión y desarrollo social en España, Ed. Cáritas, Madril, 2008, Interneten eskura daiteke: www.foessa.org/quePensamos/huestrasPrioridades/index.php?MzI%3D

EUSKO JAURLARITZA. KULTURA SAILA. KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA ETA KULTURAREN EUSKAL KONTSEILUA. *Kultura 07*. Ed. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz, 2007. Interneten eskura daiteke: http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-19803/es/contenidos/informacion/ko7/es_ko7/adjuntos/Kultura%2007.pdf

JIMÉNEZ RAMÍREZ, M. *Aproximación teórica de la exclusión social: complejidad e imprecisión del término. Consecuencias para el ámbito educativo*. Revista estudios Pedagógicos XXXIV, 1. zkia.: 173.-186. orrialdeak, Ed. Universidad Austral de Chile. Facultad de Filosofía y Humanidades. Valdivia 2008, Interneten eskura daiteke: <http://www.scielo.cl/pdf/estped/v34n1/art10.pdf>

SARTU, *Tendencias Sociales e Inclusión Social*, ed. Sartu Federazioa. (2010) Bilbo. Interneten eskura daiteke: <http://www.sartu.org/files/TendenciasSocialesDEF.pdf>

SUBIRATS, J. (DIR.) Y OTROS. *Pobreza y exclusión social. Un análisis de la realidad española y europea*. Ed. Fundación “la Caixa”. in Colección Estudios Sociales. 16. zkia., Bartzelona, 2004. Interneten eskura daiteke: www.estudios.lacaixa.es.

TEZANOS, J. F. *Tendencias en desigualdad y exclusión social. Tercer Foro sobre tendencias sociales*. Ed. Sistema, Madril, 2004.

VVAA, *Eres Igual*, Ed. Caja Madrid, Madril, 2009. Interneten eskura daiteke: https://www.obrasocialcajamadrid.es/Ficheros/CMA/ficheros/Eres_igual_Obra_Social_Caja_Madrid.PDF